

puntua

+

Oporrak,
norberaren
gustu eta estilora

Mikel Bakaikoa
entrenatzaileari
elkarriketa



GERRAKO AZTARNAK, AGERIAN

Espainiako gerrako Errepublikaren aldekoen
bunkerra berritu dute Arrasaten / 12

Arrasate Zientzia Elkarteko eta Intxorta 1937 Elkarteko kideak, Arrasateko Oroimen detekzio taldearekin batera, Udalako Larratxu baserriaren ondoko bunkerrean, gerrako obusa eskuan dutela. XABIER URZELAI



**Confebask-eko
presidente izendatuta,
egonkortasuna eskatu
du Eduardo Zubiaurre
enpresaburuak / 4**

**Mugikortasun Plana
egin ostean erabakiko
dute seminarioan
aparkalekua egingo
duten edo ez / 24**

**Debagoieneko
parapente taldeko
kideak, Espainiako
txapelketan
domekatik aurrera / 38**

**Bridges Nazioarteko
Antzerki Egoitza
ibiltaria Oñatin
uztailaren 29ra
bitartean / 40**

SINADURAK

	XABIER MUGARTZA / 8		MIKEL ARROIA / 19
	HORAZIO ARGARATE / 12		AINHOA NEGERUELA / 34
	AGURNE BARRUSO / 48		

SKODA KODIAQ

DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 35 • ARRASATE • 943 71 18 70

Eneko Azurmendi ARRASATE

Antzuolako alkate Beñardo Kortabariaren (EH Bildu) ordainsaria urtean 42.000 eurokoa izatea onartu zuen udalbatzak uztailako osoko bilkuran, 2015ean baino 5.404 euro gehiago –36.596 eurokoa zen orduan–. Liberatuta ere bera bakarrik egongo da.

Talde politikoez jasoko duten diru kopuruari dagokionez, bakoitzak 35 euroko kopuru finkoa jasoko du hilero eta kopuru aldagarria ere 35 eurokoa izango da zinegotziko, hilero. Bestalde, udalbatzarreko bilkura bakoitzagatik 40 euroko dieta jasoko du zinegotzi bakoitzak, eta batzorde informatzaile bakoitzagatik 70 eurokoa.

Aramaion, igoera txikia

Lierni Altunak (EH Bildu) 39.510 euro kobratuko ditu urtean, 2015ean baino 1.910 euro gehiago, eta bera izango da liberatuta egongo den bakarra.

Udal talde politikoez jasoko duten diruari erreparatuz, 2019ko aurrekontuetan onartu zen moduan, 12.000 euroko partida modu honetan banatuko da: 2.000 euro jasoko dituzte bai EH Bilduk eta bai EAJk osagai finko moduan; osagai aldakorrari dagokionez, zinegotzi eta batzordeburu kopuruaren arabera egiten da gainerako 8.000 euroen banaketa, eta 6.500 euro dagozkio, honenbestez, Gobernu taldeari, eta 1.500 jeltzaleei. Dietarik ez dute jasoko zinegotziek.

Aretxabaletan, hiru liberatu

Unai Elkororen (EAJ) soldata 56.486 eurokoa izango da urtean –11.486 euro gehiago–. Alkateaz gain, Ainhua Cabero (EAJ) eta Ion Albizu (EH Bildu) ere egongo dira liberatuta, jardunaldi osora, eta urtean 39.881 euroko soldata jasoko dute biek.

EAJk 22.835 euro jasoko ditu, guztira, hauteskundeetan lortutako boto kopuruagatik, zinegotzi kopuruagatik eta Gobernu batzordeko kide kopuruagatik. EH Bilduk, berriz, 17.664 euro jasoko ditu, guztira, kontzeptu berengatik. Zinegotziek ez dute dietarik jasoko.

Arrasaten, seigarrenaren zain

Maria Ubarretxenak (EAJ) 67.466 euroko ordainsaria izango du urtean –2.466 euro gehiago–. %100ean liberatuta egongo dira baita Oscar Garcia (PSE-EE) –39.881 euro– eta Ander Garay



Arrasateko uztailako osoko bilkura. XABI GOROSTIDI

Zenbat irabazten dute alkateek?

Agintaldi berria martxan da (2019-2023), eta dagoeneko herri gehienetan udalbatzek finkatu dituzte alkateek izango dituzten soldatak, Oñatin izan ezik; horrez gain, udal taldeek eta zinegotziek jasoko dituzten diru kopuruak ere zehaztuta geratu dira

Alkateen soldatak, urtean (eurotan)

HERRIA	2015		2019		ALDEA
	ALDERDIA	SOLDATA	ALDERDIA	SOLDATA	
Antzuola	EH BILDU	36.596	EH BILDU	42.000	+ %14,76
Aramaio	EH BILDU	37.600	EH BILDU	39.510	+ %5,07
Aretxabaleta	EAJ	45.000	EAJ	56.486	+ %25,52
Arrasate	EAJ	65.000	EAJ	67.467	+ 3,79
Bergara	EAJ	67.087	EH BILDU	51.000	- 23,98
Elgeta	EH BILDU	25.827	EH BILDU	35.224	+ 36,38
Eskoriatza	EAJ	43.020	EAJ	59.188	+ 37,58
Oñati	EH BILDU	49.962	EH BILDU	53.159	+ 6,39

ITURRIA: GOIENA ETA UDALAK

(EAJ) ere –39.881 euro–. Ibon Arrupe (EAJ), %55ean liberatuta egongo da –21.935 euro–, eta Maitane Muñoz (EAJ), %50ean –19.940 euro–. EH Bilduk laster zinegotzi bat liberatuko du, eta sei izango dira, guztira.

Alderdi politiko bakoitzak 9.000 euro jasoko ditu urtean, eta liberatuta ez dauden zinegotziek 2.400 euro –zinegotziko eta alderdiko jasotzen den ordainsaria alderdi politikoak jasotzen du zuzenean–.

Batzorde informatzaile batera joateagatik 90 euro jasoko dute

zinegotziek, eta batzordeburuen kasuan, 180 euro. Osoko bilkura batera joateagatik 180 euro zinegotziko, baita Tokiko Gobernu Batzarrera joateagatik ere.

Bergaran, soldatak behera

Gorka Artolaren (EH Bildu) urteko soldata 51.000 eurokoa izango da –Elena Leterena (EAJ) baino 16.087 euro gutxiago–.

Zinegotzien dedikazioari dagokionez, alkateaz gain, Udal Gobernu lau kidek jasoko dute liberazioa. Ainhua Lete alkateordea %100ean liberatuta

egongo da, eta 41.000 euroko soldata gordina izango du; Aitor Arantzailek eta Kristina Markinak 13.000 eurokoa, eta Ekaitz Aranberrik 13.650 eurokoa –bakoitzak heren bat–.

Era berean, EAJko Maite Agirre %100ean liberatuko dute eta haren soldata gordina izango da 35.454 eurokoa urtean.

Udal taldeek jasoko duten diru kopuruari dagokionez, finkoak eta aldakorrak kontuan izanda, EH Bilduk 121.808 euro jasoko ditu urtean, EAJk 33.836 euro eta PSE-EEK 7.895 euro. Dietarik ez dute jasoko zinegotziek.

Elgetan, igoera nabarmena

Elgetaren kasuan, Iraitz Lazkanok (EH Bildu) 35.224 euro kobratuko ditu urtean –2015ean onartutakoa baino 9.397 euro gehiago–, eta bera izango da liberatutako bakarra.

Talde politiko bakoitzak 20 euroko ordainketa finkoa jasoko du hilero, eta 15 euro hilean zinegotziko. Zinegotzien dietei dagokionez, parte hartu izanda osoko bilkura bakoitzeko 25 euro jasoko ditu hautetsi bakoitzak, eta batzordeburu direnek beste 35 euro hileko. Alkatea salbuespena da kasu honetan, ez du dietarik jasoko.

Eskoriatzan ere, soldatak gora

Joxerra Zubizarretaren (EAJ) soldata 59.188 eurokoa izango da urtean, 2015ean baino 16.168 euro gehiago. Halaber, alkatea izango da liberatu bakarra. Udal taldeentzako diru kopuruari dagokionez, urtean 9.500 euroko partida bat dago, eta horren %40 udal talde guztien artean banatuko dute, hiru zati berdinetan. Gainontzeko %60 zinegotzi kopuruaren arabera banatuko da. Zinegotziek ez dute dietarik jasoko.

Alkateak ez du kobratzen

Leintz Gatzagako alkateak ez du kobratzen, eta zinegotziek ere ez dute dietarik jasotzen. Halaber, hauteskundeak egin zain jarraitzen dute gatzagarrek.

Oñatin, erabakitzeke

Izaro Elorzaren (EH Bildu) soldata, liberatuen kopurua eta euren soldatak hurrengo osoko bilkuran onartuko dituzte Oñatin, uztailaren 23an. Bitartean, Mikel Biainen diru kopuru bera jasoko du Izaro Elorzak, 53.159 euro urtean.

Talde politikoez hilean diru kopuru finko bat jasoko dute, 50 euro, eta bakoitzak duen zinegotzi kopuruaren arabera zati bat ere bai. Hori aldakorra izango da: 707 euro batzordeburu bakoitzeko, 375 euro batzordeburu ez den zinegotziko eta 160 euro hileko zinegotzi liberatu bakoitzeko. Dietarik ez dute jasoko zinegotziek.

Eudel-en mugen barruan

Alkate guztien soldatek egin dute gora 2015ekoekin alderatuta, Bergaran izan ezik. Hala ere, Euskadiko Udalen Elkartearen 2019-2023 agintaldirako Euskadiko Toki Erakundeei Buruzko Legeak ezartzen dituen mugen azpitik daude guztiak. Izan ere, herri bakoitzaren biztanleriaren arabera, liberatuen gehieneko ordainsariak finkatzen ditu Eudelek agintaldi bakoitzean, probintziak, eta aipatutako soldatak eta liberatu kopuruak Arabako eta Gipuzkoako muga horien barruan daude.

ORO HAR, SOLDATA GUZTIEK EGIN DUTE GORA; BERGARAKOA DA SALBUESPEN BAKARRA

"Zientzia-lorpen handiak egin dira Bergaran"

INES PELLON ZIENTZIA KIMIKOETAN DOKTOREA (EHU)

Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroetako bat Bergaran egin dute, lehen aldiz; 'Ilustrazioa eta STEAM hezkuntza' izena du eta irakasleei zuzenduta egon da

Amaia Zaabala Tolosa BERGARA

Ilustrazioa eta STEAM hezkuntza ikastaroak bi egun iraun du eta Bergarako bi egoitza historikotatik izan dira hitzaldiak: uztailaren 11ko saioa UNEDen eta uztailaren 12koa, berriz, Laboratorium museoa. Ines Pellon, Zientzia Kimikoetan doktorea eta kimikaren historian espezializatua, ikastaro honetako hizlarietako bat izateaz gain, zuzendaria ere bada.

Ilustrazioa eta STEAM hezkuntza; zein izan da ikastaro horren helburua?

XVIII. mendean Bergaran gertatu ziren zientzia arloko gertaera historikoez jakinaraztea izan da helburua. Horretarako, Bergaran ilustrazioa zer izan zen azaldu genuen ikastaroaren hasieran, eta, jarraian, Euskal Herriaren Adiskideen Elkartea nola sortu zen azaldu genuen. Izan ere, elkarte hau bultzatu zuen Peñafloredako kondeari, bere laguntzaileei eta estatuaren babesari esker, Bergarako seminarioan inbestigazioa eta irakaskuntzako zentro aurreratu bat ezarri zuten. Ikastaroan, elkarte honen modernitatea azpimarratu genuen; izan ere, beren irakaskuntza metodologietan gaur egun hainbeste entzuten diren STEAM hezkuntza



Ines Pellon, Zientzia Kimikoetan doktorea EHU. INES PELLON

"KIMIKAKO TAULA PERIODIKOAREN ERAKETAN SEKULAKO GARRANTZIA IZAN ZUEN BERGARAK"

eta zeharkako konpetentziak ordurako praktikan jarri zituzten ikasketa planetan. Garai hartan, Bergarak estatu guztia argiztatu zuen.

Bergarakoa Estatuko lehen adiskideen elkarte izan zen, ezta?

Bai, eta jarraian etorri ziren imitazioak. Horretaz gain, Bergarakoan egindako inbertsioak fruitu zientifiko handiak eman zituen. Munduan lehen aldiz wolframa isolatzea eta platinoa xaflakor egitea lortu baitzen. Baita medikuntza, matematika eta ingeniaria arloko beste hainbat lorpen ere. Beraz, erabateko pioneroa izan zen zentro hau. **EHUko udako ikastaro bat Bergarako lekualdatu izana beritasuna izan da. Zer dela eta pauso hau?** Orain arte, Donostian ardaztu dira ikastaro guztiak; beraz,

kurtso hau Bergaran egiten lagundu izana oso garrantzitsua izan da. Bergarak merezi duela uste dugu, historia handiko leku zoragarria baita, eta bai Udalak eta bai Laboratoriumek oso harrera ona egin digute; dudarik gabe, honek jarraipena izatea espero dugu, ideiak eta gogoak, behintzat, ez zaizkigu falta.

2019a Elementu Kimikoen Taula Periodikoaren Nazioarteko Urtea izendatua izan da; zer esan nahi du horrek?

Unescok kontsideratu zuen Elementu Kimikoen Taula Periodikoa elementu unibertsal bat zela, kimikaren oinarria, hain zuzen, eta honen balioa azpimarratzeko izendapen hau ematea erabaki zuen. Oso erabaki ona, nire ustez; izan ere, taula bat besterik ez da, baina elementu kimiko guztien informazioa batzen du. Eta honek ere badu Bergarekin lotura, taula periodikoaren eraketan sekulako garrantzia izan zuen eta Bergarak: herri honetan isolatu zen wolframa. Europan bazekiten wolframita izeneko mineral bat existitzen zela eta ordura arte isolatzea lortu ez zen elementu kimiko bat zuela, baina lorpen hori Elhuyar anaia izan zen, eta hemen, Bergaran.

Eta amaitzeko, ikastaro honetaz gain, zein beste proiektutan dabil murgilduta Ines Pellon?

Kimikaren historian espezializatua naiz eta XVIII. eta XIX. mendeetako historiaz hainbat ikerketa-lan egin ditut. Horretaz gain, Bilboko Ingeniaritza Eskolan Kimika Orokorreko irakaslea naiz. Izugarri maite dut zientziaren historia, orokorrean, eta kimikaren historia, bereziki; gai honen apasionatu hutsa naiz.

Euskal kirolarien laneratzea helburu

Mondragon Unibertsitateak, Basque Teamek eta Wats Teamek sortu dute ekimena

Amaia Zabala Tolosa ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak, Enpresagintzako Fakultatearen bitartez, goi mailako euskal kirola sustatzen duen Basque Team fundazioak eta maila profesionalean kirol formakuntzan eta kirolean indarkeriaren prebentzioan erreferentzia den Wats Team-ek ekimen bateratua aurkeztu dute "euskal kirolarien laneratzea" bultzatzeko.

Ekimena goi mailan ari diren euskal kirolariei unibertsitate-formakuntza eskaintzeko beharretik abiatzen da; horren bitartez, behin euren kirol ibilbideak bukatuta, laneratzea errazteko helburua du akordioak.

Kirol lehiaketako garaia bukatu ondoren, lan munduari aurre egiteko kirolariei formakuntza-baliabideak eskaintzeko helburua duen lankidetzaren publiko-pribatuaren lehen urratsa izan dela azaldu dute hiru eragileek aurkezpenean. "Goi mailako kirolean duten ibilbideaz gain, Basque Teameko kirolari askok goi mailako ikasketak dituzte, baina ekimen berri honek euren curriculumak osatzeko eta espezializatzeko eta enpresentzako erakargarriago bihurtzeko aukera ematen du", azaldu dute.

ALKIDEBA

SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU

MAKINERIA ALOKAIRUA
ERAIKUNTZARAKO ETA
INDUSTRIARAKO

administracion@alkideba.net

NILFISK-en
banatzaile
ofiziala



Saskibaloi taldearen babeslea



Máizaga - Sorluze errepidea.
Tel.: 943 75 15 54 • Sorluze (Gipuzkoa)

Goitondo industriagunea, 3. pabillioia
Tel.: 943 17 13 62 • Mallabia (Bizkaia)

Eduardo Zubiaurre, Confebask-eko presidente

Atzo egindako Confebasken ohiko kontseilu orokorrean hartu zion Eduardo Zubiaurrek erreleboa Roberto Larrañagari. Adegik proposatuta, euskal enpresarien konfederakuntzako lehendakari berria Euskadiko ekonomiaren erronkez aritu da

Jone Olabarria DEBAGOIENA

Elgetan bizi den Eduardo Zubiaurre Ariznabarretak (Eibar, 1962) atzo hartu zuen euskal enpresarien konfederakuntzako lehendakari kargua, Confebask-eko Kontseilu Nagusiak aho batez berretsi ostean.

Confebasken lehendakaritza txandaka egitea zehazten dute estatutuek, Gipuzkoa, Araba eta Bizkai artean. Hala, aurren, Gipuzkoaren txanda izanda, Adegiren ardura zen lehendakaria proposatzea, eta, hala, Eduardo Zubiaurre Adegiko buru izandakoa aurkeztu zuen kargurako, Roberto Larrañaga ordezkatuz.



Confebask-eko buruak, Zubiaurre eta Larrañaga erdi-erdian direla. CEBEK

Sei urtez Adegiko lehendakari (2006-2012) izandako Zubiaurre Jaz Zubiaurre familia-enpresako gerentea da, eta, iaz arte, EAJren udalbatzarreko presidentea Eibarren.

"Erritmo onean, baina erne"

Lehendakari gisa egindako lehen prentsurrekoan, hauxe adierazi zuen: "Euskadin susperraldi ekonomikoak erritmo onean jarraitzen du. 2008ko urritik, enplegu mailarik gorenenean gaude une honetan". Era berean, maila ezberdinetan dauden arriskuak gogorarazi ditu: "Euskadin, autogintza, altzairua eta makina-erreminta bezain sektore garrantzitsuak kontu handiz dabilta munduan zer gertatzen den aztertzen. Oraingoz, ez dago alarmarik, baina erne daude".

Erronkei dagokienez, "egonkortasun instituzionala mantentzea, enpresen fiskalitate lehia-korrakoa lortzea, *Euskal Y*-a amaitzea eta lan-harreman modernoak izatea" azpimarratu ditu. Horrez gain, beharrezkotzat jo du "emakumea lan merkatuan erabat sartzea, baina, batez ere, arlo industrialean".

Debagoieneko VI. Txakolin Eguna zapatuan Arrasaten

Bihar, uztailak 20, hileko hiru-garren zapaturu bezala, baserritarrek euren produktuak salduko dituzte Arrasateko Seber Altube plazan. Azokaz gain, Debagoieneko seigarren Txakolin Eguna ere ospatuko dute.

Debagoieneko hiru txakolin-gilek hartuko dute parte –Belaskua, Otxia eta Murgialdai–, bakoitzak bere postuarekin. Eguerdian, gainera, 12:00etan, bailarako txakolina dastatzeko aukera izango da, Arteaga jate-txeko Maider Larrañagarekin. Dastaketan parte hartzeko, aurrez izena ematea komeni da, 943 79 64 63 telefonora deituta edota turismo@debagoiena.eus helbidera mezu bat bidalita. Ordu berean, bailarako produktuekin, hanburgesa eta gazta pintxoak izango dira.

Domekan, uztailak 21, Artazubiaga baserrian bisita gidatua egiteko aukera egongo da, Otxia txakolinaren ekoizpena ezagutzeko. Horretarako ere izena ematea komenigarria da.

Debagoieneko GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzailak, sukakdeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS

ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

Inagarkia jami nahi baduzu,
deitu 943 25 05 05 zentekara.



Udalako Ingurumen Eskolan dauden haurrak, eguaztenean. SAGIRI ELKARTEA

Uda pasatzera etorri direnen testigantzak

Hamalau haur sahararrek eta hamaika ukrainarrek Debagoiengan igaroko dute uda. Batzuk familiarekin daude; saharar gehienek, baina, Udalan pasako dituzte hilabete hauek, "elikadura aberastu eta osasuna hobetzeko" helburu nagusiarekin

Jone Olabarria DEBAGOIENA

Ohikoa den bezala, aurten ere Sahara eta Ukrainatik etorritako hainbat haurrek Debagoiengan igaroko dituzte udako hilabeteak. Guztira, 25 dira: hamaika ukrainiar eta hamalau saharar.

Ukrainatik etorritako umeen kasuan, Txernobyl inguruko herrietan, kutsatutako ingurunean, bizi diren lau haurrekin

eta haien familiarekin egon da GOIENA Oñatin. Harrera familiaritatik kontatu dutenez, "urtean 40 egun, behintzat, kutsatu gabeko guneeetan egotea gomendatzen da, baina denek ez dute aukera hori izaten. Helburu horrekin hartzen ditugu gurean".

Denak bat etorri dira, eta umei "elikadura aberatsa eta osasun egoera hobetzeko aukerak" es-

kaintzen saiatzen direla adierazi dute. Hain zuzen, helburu berbera jarraituz etorri dira Arrasatera Udalan dauden saharar haurrak ere.

Sagiri elkarteak Marta Sanchezek hau adierazi du: "Azken urteetan arazoak izan ditugu umeak hartuko dituzten familiak bilatzen. Ez genuen haurrek hona etortzeko aukera galtzerik

nahi, eta horregatik erabaki genuen Udalako Ingurumen Eskolan egitea egonaldia".

Abuztuaren 23ra arte egongo dira ibarrean, eta hainbat ekin-tza dituzte antolatuta. Atzo, esaterako, Antzuolako jaietan izan ziren, baita bertan lo egin ere. Bihar, Larrabetzura egingo dute irteera, Euskal Herrian uda pasatzen dabiltzan gainerako haur sahararrekin batera.

Lehen egunak, baina, osasun azterketak egiteko eta dentistarenera joateko probestu zituzten elkarteak kideek, lau begirale boluntariorekin batera. Sanchezek azaldu duenez, hori da, hain zuzen, haurrak bertara etortzearen helburu nagusia: "Indarrak hartzen eta osasuntsu bueltatzeko baliabideak ematen saiatzen gara".

Ur jolasekin liluratuta

Igerilekura joatea "berezi" maite dutela azaldu du Sanchezek, eta arratsaldeetan Arrasateko igerilekura jaisten direla kontatu du. Ukrainako haurrentzat ere hondartzara joatea "plan itzela" da, eta, familiekin azaldu dutenez, "une oso bereziak" bizi dituzte: "Guretzat egunerokotasunean ohikoak diren gauzak asko apreziatzen dituzte. Haien ilusioa ikustea oso polita da".

Euskaraz ondo

Lehen egunetan keinuka aritzen zirela azaldu dute Oñatiko familiaritateko kideek, baina denborak aurrera egin ahala "segituan" ikasten dutela kontatu dute: "Haur batzuek ingelesa ikasten dute eskolan, eta, gure alfabetoa ezagutzen dutenez, errazagoa egiten zaie". Aurretik egon diren umeek diotenez, lehen uda igaro eta gero euskaraz hitz egiten bueltatu ziren etxera.



Anna, gustura, Oñatin. Z.G.

Oñatiko familiarekin, seigarrenez

Seigarren aldiz egin du Annak Ukrainatik Oñatirainoko bidea. Duela lau urte etorri zen lehen aldiz, udako hilabeteetan, baina ordutik hona Gabonetan ere etorri izan da, bi urtez. Hasiera-hasieratik etxeko beste kide bat izateko "gogotsu" nabaritu zuten Zorione Galdosek eta familiak. Annak kontatu duenez, euskara ikastearekin batera lagun ugari egin zituen: "Herrian oso gustura egoten naiz, hemengo nire anaiekin, Unax eta Eneko. Arte udalekuetara joaten naiz, eta patinetean ibiltzera". Euskal herrian dagoenean fruta asko jaten duela azaldu du, eta, Ukrainarekin alderatuta, mendira edo hondartzara askotan joaten direla.

Ospitaleko tenperatura "jasanezina" dela salatu du ELAk

Langile eta gaixoen osasunean kalteak eragiten dituela eta, "berehalako neurri integralak" exijitu dizkiote ESri

Jone Olabarria ARRASATE

Arrasateko osasun zentroko eta kanpo kontsultetako langileek eta gaixoei 30 gradutik gorako tenperaturak jasan behar dituztela salatu du ELAk asteon. Urteetako arazoa dela diote, eta,

irtenbide bila, bilera egin zuen Debagoieneko ESiko zuzendaritzak martitzenean, hilak 16.

Bertan adostutakoaren arabera, ESik kanpoko kontsultetako solairuetan arazo honi aurre egiteko neurriak hartzeko kon-

promisoa hartu zuela adierazi du Gorka Gorostegi ELAko ordezkariak: "Kanpo kontsultetako eraikinean eraikitzen ari diren bigarren solairuan, klimatologia neurriak hartuko dituztela eta lehen solairuko beroari aurre egiteko gailu mugikor bat jarriko dutela hitz eman dute".

Legeak zehazten duenaren arabera, halako ekintzetarako, ezin da 27 gradutik gorako tenperaturarik egon, eta, Gorostegiren arabera, "ospitaleko zenbait

gunetan tenperatura hori gainditzen da".

Hala, "irtenbide integralak" eskatu dituzte eta gogorarazi dute 2018an salaketa bat aurkeztu zutela lan ikuskaritzan. Bada, egiaztaketak egin ostean, beroa legeak onartzen zuenaren gainetik zegoela zehaztu zuen ikuskaritzak, eta errekerimendu bat igorri zion Debagoieneko ESri.

ESik orduan "ezer gutxi" egin zuela eta, konponbidea eskatu dute: "Ospitale berriko klimati-

zazioak berak osasun zentroa ere hartzea exijitzen dugu. Era berean kanpo kontsultak kokatzeko, eraikin zaharrean egiten dabiltzan lanetan klimatizazioa aintzat hartzea eskatzen dugu".

ESiko zuzendaritzak, berriaz, dio faltsua dela ezer egin ez dutenik, eta hasieratik hozteko makinak eta ur banagailuak jarri zirela adierazi dute. Era berean, langileei hain beroak ez diren kontsultetara lekualdatzeko aukera eman zitzaiela ere azaldu dute.

GUTUNAK

Gure Alaia jaio da; eskerrik asko!

ASIER AGIRREURRETA ETA LOREA SANDIANES

ARRASATE

Egun batzuk pasa dira gure lehen alaba, Alaia, jaio zenetik.

Gurea diogu, guraso, familia eta maite gaituzten lagun guztiena izateaz gain, badaudelako Alaiaren sorreran erantzukizun zuzena izan duten beste pertsona batzuk.

Donostia Ospitaleko ama-haurren eraikineko Laguntza bidezko Ugalketa Unitateko Departamentuari buruz ari gara. Hara jo genuenean, gure kasuak zituen zailtasunak erronka moduan hartu zenituzten –gaixotasun larri baten ondorioak–, eta helburua lortu arte ez duzue etsi. Helburua lortuta, errazagoa egiten zaigu eskerrak ematea, baina helburua lortu izan ez balitz ere, zuen partetik dena eman zenuten dudarik ez dugu. Enpatia maximoa eskaini diguzue, zuen ekipoaren motibazio gaindiezina. Alaia ere zuena da.

Eta zer esan Debagoiena Ospitaleko jaiotza saileko pertsonetz? Tratu bikaina eman diguzue: haurdunaldian, erditze zail batean eta, batez ere, hurrengo egunetan. Anne, Alaitz, Angela, Itziar, Marisa, Isabel, Edith... espezial sentiarazi gaituzue, bai gu eta baita gure alaba, bere bizitzako lehen egunetan. Zuen ere bada Alaia.

Bukatzeko, bi eskaera Gobernu eta Osakidetza agintariei.

1-Laguntza bidezko ugalketa zerbitzuak handitu eta errekurso gehiago zuzentzea. Zein inbertsiok dauka gure herriko etorkizuna jorratuko duten pertsonak sortzeak baino errentagarritasun handiagorik? Nork daki zein aportazio egingo dioten etorkizuneko gizarteari sail honen lan bikainagatik jaio diren pertsonak? Ez dago etekin hau berdindu dezakeen inbertsiorik; ez Industry 4.0, ez 7.0, ez 14.0!

2-Esan digutenez, Debagoieneko Ospitaleko jaioberrien planta hustu eta hango errekurso eta pazienteak –amak eta jaioberriak– beste planta batera bideratuko dituzte uda erdialdean, errekurso berekin, jaioberriez gain, beste patologia edo gaixotasun batzuk dituztenak artatzeko. Argi eta garbi, zerbitzuen kalitatean eragina izango du, pertsona kopuru berak paziente gehiago zaindu beharko baititu. Jaioberrien 4. planta bere horretan mantentzea eskatzen dugu: hango pertsonalaren eta pazienteen arteko giroa gure bizitza berriko lehen egunetarako beharrezkoa da.

Eskerrik asko guztioi; espero dugu eskutitz honekin gure Alaia eta artatu dituzuen beste jaioberri guztiak zuen parte moduan sentiaraztea, horrela da eta.

Joxe Ramon Elortza, pertsonetik eta kooperatibismoarekiko pasioa

JOSU URRUTIA BERISTAIN

MUNDUKIDEKO ZUZENDARIA
ARRASATE

Joxe Ramon laguntzaile boluntario nekaezina izan dugu Mundukiden. Bera zen printzipio kooperatiboak transmititzeaz arduratzen zena. Gurekin lanean hasten ziren pertsona guztiek nabarmentzen zuten Joxe Ramonekin ordu batzuk partekatuz hartzen zuten gozamina, tarte horretan transmititzen baitzizkien printzipio kooperatiboekiko zeukan pasioa, Arizmendiarrietarekin bizi izandako esperientziak eta kooperatibez zeukan ideia, gizarte eraldaketarako tresna diren aldetik.

Joan zen astean, barne araudi berria onartu zuen Patronatuak. Bertan izan zen Joxe Ramon ere, modu aktiboan kolaboratzen.

Mundukiden izan zen azken aldian, Laboral Kutxaren eta Mundukideren eskutik irailean Ekuadorrera joango diren gazteak elkarrizketatzen ibili zen. Hunkituta zegoen, horrenbesteko prestakuntza eta giza bertuteak zituzten gazteekin topo egitearren.

Eskerrik asko, Joxe Ramon, zugandik jaso duguna munduan zehar zabalduko dugu eta Mundukidea izango zara betirako.

HANDIK ETA HEMENDIK

Adinarekin jolas

ANGEL ERRO

HTTPS://LABUR.EUS/X0019
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Ez dago denborarekin jolastu eta onik atera denik. Aurpegi-argazki bat hartu eta, iragazki sofistikatu baten bidez, eraldatu egiten dizun aplikazioa deskargatu dut. Nire datuekin zer egingen duten beldurrari nagusitu zaio etorkizunari buruzko jakin-min arkanoa. Nire bisaia zaharturik edo gazteturik ikustearen jolasari beste batzuek, arriskutsuagoek, jarraitu diote.

[...] Nire bikotekidearen eta bion argazki bat aukeratu eta gure betirako promesen eremura eramanez ditut geure buruak. Mingarria da zimur eta ile urdinez jositako begitarte horietara iristerako bide malkartsua, balizkoz bete, irudikatzea. Kontrako norabideari ekin diot eta, errealismoa zio, beste argazki bateko gu-ri elkar ezagutu baino lehenagoko gaztetasun distiranta eskaini diot. Are mingarriagoa egin zait inoiz eduki gabekoa galdutzat jotzearen zorabioa.

Maitasunaz gehiago erakutsi dit aurpegi-ezagutzaren goi-teknologia poliziala jendarteratzen duten argazki pare batek John Donneren poema batek baino. Aski ez banu bezala, ama zena ekarri dut gaurkora, zahartzarora. Gero, Euskal Herriko maparekin saiatu naiz; ez diot parte oneko iritzi emaitzarik ez agertzeari.

Txortena

ANDONI EGAÑA

HTTPS://LABUR.EUS/VYCRN
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Badira hitz batzuk gazteleratik datozenak, baina gaztelerak galdu ondoren euskarak gorde dituenak. Gu baino ez gara joaten *komun*-era, etxepeko guztientzat bera zen leku hartara. Erdaldunek *servicio*, *baño*, *váter*... edo dena delakoan egiten dituzte egitekoak. *Mesanotxea*-rekin gertatzen zaigu antzeko zerbait. Guri natural irtengo zaigu, nahiz eta esamodu euskaldunagoak izan. [...] *Txortena* hitzarekin korapilatu ginen atzo. Batzuk piper asko jan zituzten, eta besteek gutxi; txortena ziren plater ertzetan lekuko. Gazteleraz hasi zen bat *rabo* gora eta *rabo* behera. Txortena izendatzeko bestelako modurik behar zuela eta bila hasi ginen. Ez alferrik! Ez genuen asebetetzen gintuenik aurkitu. *Pedúnculo* baino xumeagoko eta *rabito* baino jasoagoko zerbait behar luke gaztelerak, tomateek eta txapelek daukaten zera hori izendatzeko...

Euskara noranahikoa egin nahian eman dugu urte mordoa. Baina bada hitz bat, data jakin bat zehazkiago esanda, premia denean erdaraz esango nukeena. Gaurko data, hain juxtu. Euskaraz ari garela ere *dieciocho de julio* esateari ez genioke utzi behar. Datozen belaunaldiak ahantz ez dezaten.

Post gehiago 8. orrialdean.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA





15. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*



HOSSE DORREKO ZUBITIK EGUNEKO AZKEN JAIDIA | Argazkia: Aneiza Erosa (Aerzabaleta)



GOIENA MAKURTZEN SANTA CRUZ DE CARRIACOSÉN | Argazkia: Jone Urbetxetxe (Aerzabaleta)



GARAZI NEAK PEAN TENPLUAREN SARRERAN | Argazkia: Ibai Martín Fontanet de Laca (Aerzabaleta)



Argazki guztiak kanal berezi honetan: <https://labur.eus/uda>

MARTXAN DA!

Goienaren Udako Argazkien Lehiaketa abian da! Aurten, gainera, berritasunekin dator, eta sariak hiru kategoriatan banatuko dira: **Protagonistak**, **Euskal Herrian** eta **Nazioartean**.

Argazkiak posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07) bidal ditzakezu; uztailaren 19tik irailaren 23ra arte –biak barne–.

Sariak

Zu ikusi nahi zaitugu; nondik nora ibili zara?

Bidali zure argazkiak Goienara eta sari hauetako bat irabazteko aukera izango duzu:

Protagonistak: Arrasateko Eroski hipermerkatuari esker, Redmi A6 smartphonea.

Euskal Herrian: Gure Ametsa jatetxean bi pertsonarentzako afaria edo bazkaria.

Nazioartean: Arrasate Bidaia*k*-i esker, Zumaia*ko Zelai Talasoterapia*n bi pertsonarentzako zirkuitu termala eta Zelai menua.

Gainera, **publikoaren saria** ere izango dugu, **Bergarako Ereindajan**-en eskutik: bertako eta kalitatezko produktuen saski ederra.

Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak.
 - Herremanetarako telefonoa.
 - Argazkia non ateratakoa den.
- Argazkiak eta datu GUZTIAK posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram (688 69 00 07) bidez bidali daitezke.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 19tik irailaren 23ra arte (biak barne).
- Hiru kategoria egongo dira:
 - Protagonistak: pertsonak lehen planoan erakusten dituzten argazkiak, lekua baino garrantzi handiagoa dutenak pertsonak.
 - Euskal Herrian: Euskal Herriko paisaiak, eraikinak edo bakoak izango dira elementu nagusia, pertsonak agertzen direlarik edo gabe.
 - Nazioartean: Euskal Herri*k* kanpoko bakoak, pertsonak agertzen direlarik edo gabe.
- Argazkiak gehienez 5 MB izan beharko dute.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoienean jaso edo bizi den orok parte hartu ahal izango du.
- 16 urtetik gorakoak parte hartu ahal izango dute.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiak.
- Argazkiak koloretan zehar zuri-beltzean izan daitezke.
- Argazkiak originalak izan beharko dute.
- Uda*ko* argazkiak izango dira: berdin da aurten*go* udan ateratakoak izatea edo beste urte*ko* udan.
- Kategoriatik bakoitzeko sari*ku* bana aukeratzeko epaimahaia Goiena Komunikazio Taldeko kideek osatuko dute eta argazkiaren kalitatea eta originaltasuna hartuko dituzte kontuan.
- Irailaren 27tik urriaren 2ra Publikoaren Saria aukeratzeko epea zabalduko da. Lehiaketan parte hartu duten argazki guztien artean aukeratzeko da Publikoaren Saria, bozkatu bidez.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 4an emango da jakitera, Goiena aldizkarian.
- Saria jasotzeko irabazle*ek* eskatuko zuten lehiaketaren babesleekin argazki bat ateratzeko.
- Argazkiak Goienaren hainbat euskarritan argitaratu daitezke: Goiena.eus atarian, Goiena aldizkarian, Puntua aldizkarian, telebistan eta sare sozialetan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaitzkeen irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienaren arboen gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adieraziko da.

Oinarri eta lege oharra osorik: <https://labur.eus/oinarriak2019>

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
Restaurante • Jatetxea

ARRASATE BIDAIAK

BERGARA
**EREIN
DA
JAN**



ZABALIK

XABIER MUGARTZA

2019-2020ko denboraldiko Realak

Zeri buruz idatzi ezin asmauta ibili naiz. Ez gai faltagatik. Badauz mila gai heltzeko modukuak: Trumpek palestinuak *erosteko* esku artian dakon estrategia, Espāñako politikan dauen pakto kulturaren faltia eta horrek dakarren espektakulo lotsagarrixa, monokausalki trataitten dan sexu erasuen gaixa, eta abar, eta abar.

Baina kurtso bukaeran egotia energiak murrizketan dattu eta, beraz, gai relajautxuaua aukeratu dot gaurko artikulorako; relajaua, baina pasionala aldi berian.

Gehixenok kurtsua akaboten gabitzen honetan, pribilegiu egin dittugun futbolistak kurtsua hasi egitten daue, eta kurtso hasi berri honetan nere Real maittiak sortarazten dosten sentimendu kontrajarrixak mahai gainian ipini gura dittut. Kontrajarrixak, aspaldixan egin dittugun fitxaje ilusionantienak egin dittugulako, alde

REALIAN BIDE EGOKIXENA, MOTZENA EZ, AGIAN, ETXEKUEN ALDE BENETAN APOSTU EGITTIA DA

Gorosabel, Guridi edo Merquelanz bezelako jokalarixak lehen taldea osatzeko balixo ez dauen Real bat ez dot entenditten... eta bide horretatik goiazela emuten dau. 22-23ko plantillan 11 kanpotar izatia askotxo dala iruditzen xat. Nik, behintzat, nahixau dot aurretik esan doten harrobiko jokalaria horreikin kontau eta allaitten garien lekura allau.

Egixa da maila gorenian dabitzen futbol taldiendako, ingurunia gero eta zailaua dala, gero eta diru gehixau mobitten baita eta gero eta zailaua da maila altu bat mantentzia. Baina, nere ustez, Realian bide egokixena, motzena ez, agian, etxekuen alde benetan apostu egittia da.

Aurtengo erabaki puntualak dian edota tendentzia berri bat dan denboriak esango dosku.

Hori bai, irakurten eta entzuten dotenaren arabera, gutxienguan iritxixa da hemen azalduakua. Transmisiño falta ote?

batetik, baina, bestetik, fitxaje larrei izan dialako, nere ustetan. Aste pare bat berandua idazia seguruaua izango litzateke, orduan ikusiko baita zeintzuk osatzen dauein aurtengo plantilla. Bautista,

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Heroiak

ONINTZA ENBEITA

[HTTPS://LABUR.EUS/Q7QVI](https://labur.eus/Q7QVI)

'BERRIA'-N ARGITARATUA

Brasilen gertatu da.

50.000 fededunen aurrean ari omen zen apaiza meza ematen.

Gutxiago izatea ere posible da, baina edozelan ere, jende asko ikusten da irudietan.

Mezak agintzen dituen testuetatik kanpo, zer esango abadeak, eta emakume lodiak ez omen direla zerura joango.

Gizonak bai, itxuraz: haientzako malgua da San Pedrok zaintzen duen atea. Emakumeen kasuan gauzak zail, ordea.

Atea estu samarra, eta ipurdiaren tamainaren arabera, ezin barrura sartu.

Pentsatzen dut eliza katolikoko zenbait elementuk ohikoa duten ildoari jarraituz, fisikoki nolakoak izan behar dugun erabakitzen hasi nahiko zuela apaiz horrek.

Horrela, denok izango gara gizonen gustagarri eta atsegin emaile.

Denok hitz gutxikoak, ama onak, maitale finak, otzanak eta gainera argalak.

Zer gehiago nahi du gure patriarkatu misogino unibertsalak?

Jaungoikoari eskerrak emango zizkioten mezatarak sartu zirenean argal zeudenek, eta lodi sartu zirenek milagroa eskatuko zuten argal irteteko.

Eta harrigarria bada ere, milaka haietatik guztietatik emakume bakarrak erreakzionatu zuen: igo agertokira eta abadea airean bota zuen.

Milaka lagunetik bakarrak erreakzionatzea latza da, baina bada zerbait hainbeste zentzugabekeriaren aurrean.

Halako heroi txikiek egiten dute mundua ederrago.

Post gehiago 6. orrialdean.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin.
Administrazioa
Ane Berezibar,
Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Sorosleen lana egonkortzea lortu zen iazko grebarekin"

MADDI AZPIAZU ELA SINDIKATUKO KIDEA

Eneko Azkarate Laspiur BERGARA
Gipuzkoako hondartzetako sorosleen greba hedabideetako lerroburu izan zen iaz. Maddi Azpiazu ELA sindikatuko kidea aritu zen haien baldintzak negoziatzen. **Iaz, sasoi honetan, sorosleak protagonista bihurtu ziren, lan kontuengatik.**

Turismoak geroago eta indar handiagoa hartzen duen honetan, turismoarekin zerikusia duen edozerk hartzen du beste dimentsio bat. Iaz, horixe gertatu zen hondartzetako sorosleen grebarekin ere.

Zer eskatzen zuten sorosleek?

Lana profesionalizatzea. Bainu lekuetan norbaitek portaera desagokia badauka, soroslea da autoritatea, baina, hainbat gertaera direla eta, askok ez diote autoritate hori aitortzen eta ez diote kasurik egiten. Sorosleek egiten duten lana erdigunean jarri eta sorosleak ahaldundu eta lan baldintzak duintzea zen helbidea. Izan ere, sorosle



Maddi Azpiazu, Debagoieneko ELAren egoitzaren aurrean, Bergaran. ENEKO AZKARATE

askok udako lau hilabetez jarduten du lanean eta haien soldatak 1.000 eurotik beherakoak dira. Lanpostuak egonkortzea ere bazen helburua.

Lortu zuten?

Baietz esango nuke. Batez ere, lortu zuten jendeak beste modu batera ikustea sorosleen lana. Askok uste zuen adinez nagusi den gazte batek udan sos batzuk biltzeko modua zela sorosle izatea. Eta

pertzepzio hori aldatu egin dela uste dut. Azken finean, hondartzak edo igerileku zein errekek seguruagoak izatea ere bada helburua.

Zein enpresaren menpeko dira Gipuzkoako sorosleak?

Zerbitzua azpikontratatu egiten dute erakunde publikoek. Iaz, Gurutze Gorriak ematen zuen zerbitzua Gipuzkoako hondartza guztietan. Aurten, argazki hori aldatu egin da.

Badago lan hitzarmenik sektore honetan?

Iaz greba amaieran sinatu zen hitzarmena dago indarrean. Akordio horren baldintzetako bat zen aurreko urtean hondartzetan lanean ziharduten langileek izaera finko-etena edukitzea, antzinatasun bat aitortu ahal izateko.

Profesionalizatze eta egonkortze bidean da sorosleen lana?

Bai, baina egoera askotarikoa da. Azpimarratuko nuke formakuntza etengabekoa dela eta esperientzia oso inportantea dela. Horregatik dira inportanteak beteranoak edo esperientzia handien dutenak. Hondartza batetik bestera aldea dago: ez dira berdinak Kontxa eta Zurriola, bakoitzak beste berezitasuna dauka.

HAU BE BADOGU!

Berri Txarrak, marka guztiak hausten



Domekan, 20.000 pertsona batu ziren Kobetamendin, Berri Txarrak taldearen kontzertu berezia jarraitzeko:

@kikeamonarritz: "Berri Txarrak izena jarri arren, euskal kulturari berri on gehien ekarri dizkiguzuen taldeetako bat izan zarete. Muga asko gainditzea eta eremu berrietara iristea lortu duzue eta utzi duzuen, gure historiaren parte da jada. Biba zuek!! #berritxarrak".

@_tomhagen: "Gau ahaztezina gaur bizi izan duguna; hegan egin dugu".

Mariano Ferrer kazetaria, gogoan

Ehunka eta ehunka txio batu dira Twitterren, Mariano Ferrer kazetariari azken agurra emateko:

@zuribia: "Mariano, maixua, Mariano, laguna. Beti ondoan, beti prest. Euskal herritar unibertsal. Muxu handi bat. #MarianoFerrer".

@EguenInma: "Umetan, eskolara orduko, armosua eta ezkaratzean ama eta #MarianoFerrer. El kiosko de la Rosirekin hazitakoa naiz. Jakinmina piztu zenidan. Eskerrik asko!".

Aurrekari polita sortu dute euskal taldeek

Realak, Athleticak, Eibarrek, Alavesek eta Osasunak derbi guztietarako kanpoko zaleendako sarrerak 25 eurokoak izatea adostu dute:

@imagreto: "Txiolandian erabaki honen aurkako iritziz dezentetara irakurri ditut. Harrituta nago. Kanpoko zalea aberastasun bezala ikusi beharrean, izorratu beharreko norbait bezala ikusten dute. Eta hori, euskal zaleen artean. Derbiak berpizteko aukera da (eta ligako beste taldeak seduzitzeko)".

ITURRI ONETIK

15.000 lagun, 'Humanity at music' ikusteko

Kooperatibek ezarpen handia duten herrietan tokian tokiko moldaketekin aurkeztu ostean, ikuskizun erraldoia irailean izango da: *Humanity at music*. Gasteizko Buesa Arenan, irailaren 14an. 15.000 lagunendako tokia. Sarrerak salgai daude. Arrasateko kooperatiba mugimenduaren 60 urteak, ikuskizun ahaztezinak. Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Euskal Herriko Txistulari Taldea, abesbatza erraldoia, Kukai eta beste hainbat dantza talde; 8 bertsolari... 1.000 lagun eta 360 graduko show-a.

ALBISTE IZAN ZEN

2005-07-17

'Sahara orain' festa Arrasaten, sahararren alde

Sahara orain elkartasun festa egin zuten Arrasaten. 1.000 bat lagun elkartu ziren. Saharar herriaren egoera salatu, hari elkartasuna adierazi, Debagoienara uda pasatzera etorritako saharar umeei ondoetorria eman eta gizarte sentsibilizatzeko jaia izan zen. Jokoak, arropa salmenta eta bazkaria egin zituzten, eta baita ekitaldia ere, musikaz lagunduta – Gorka Knörrek abestu zuen, esaterako-. Fronte Polisarioko kideak ere izan ziren.





Domekan egindako erretiratuen bazkaria. IBAI ZABALA

Kritikak onartu ostean, babes uholdea jaso dute

Santa Marinako jaien harira, herritar batek "lotsagarritzat" jo zituen erretiratuen bazkaria eta baita jaien antolakuntza bera sare sozial batean. Jai batzordekoek 'mea culpa' batekin erantzun zuten, eta ostean, herritar askoren babesa jaso dute

Xabi Gorostidi ARRASATE

Polemika piztu zuen komentario horren aurrean, antolakuntza-koek *mea culpa* batekin erantzun zuten sare sozialetan. "Akatsetatik ikasi egiten da eta ez da berriro pasako". GOIENARI azaldu diotenez, erretiratuei bi aldiz eskatu zieten barkamena momentuan bertan. "Hainbat akats egin genituen, eta ez daukagu arazorik hala izan zela aitortzeko. Ez genuen mantelik jarri, eta ogia eta zapiak berandu heldu ziren. Baina mahairik mahai joan ginen barkamena eskatzera, eta opari banaketa egin ostean ere berriz eskatu genuen barkamena. Erretiratu batzuek esan ziguten bazkaria ez zela ona izan, baina bazkari-ko beste osagaiekin txaranga eta opari banaketa gustura zeudela".

Aipatu beharra dago *catering* enpresa bat kontratatu beharrean jai batzordekoak aritu zirela bazkaria antolatzen. "Bazkaria auzoko jatetxe batean enkarga-

tu genuen, eta beste guztia gure kabuz zen: mahaiak, aulkiak, zapiak, ogia, janaria zerbitzatzeara...". Bazkariari buruzko kexa jarri zuen herritarrek ere aipatzen zuen antolakuntzako kideak "lo" geratu zirela "alkatetzako giltzak gainean edukita". Horri dagokionez, zera adierazi dute antolatzaileek: "Domeka goizean, kideetako bat lokartu egin zen eta txarangako kideek ordubete itxaron behar izan zuten alkatetzara sartu ahal izateko. Horrelako gauzak gertatu egin daitezke, eta momentuan barkamena eskatu genien kaltetuei".

Babesarekin eskertuta

Kexaren post-ak 200dik gora erantzun izan ditu, eta horietan,

**KEXAREN POST-AK
200DIK GORA
ERANTZUN IZAN DITU;
GEHIENAK BABES
MEZUAK IZAN DIRA**

jai batzordeari zuzendutako askotariko babes mezuak irakur daitezke. Babes mezuei dagokionez, zera adierazi dute antolakuntza-koek: "Ikaragarria izan da zenbat jende eman digun babesa. Ez sare sozialetan bakarrik, aurrez aurre jende askok eskertu baitigu egindako lana".

Jaiak, "espero baino hobeto"

Orokorrean, "jaiak espero baino hobeto" atera direla adierazi dute antolatzaileek, batez ere, "Makatzenako jendea asko inplikatzeara" lortu dutelako. "Ahallegindu gara jaiak Makatzenara ere eramaten, eta, adibidez, bertako frontoian jarri ditugu haurrentzako puzgarriak eta auzo-bazkaria. Makatzenako lagun asko gerturatu dira festetako ekintzetara, eta horietako askoren laguntza jaso dugu. Auzo bazkariaren ostean, gauzak batzeko orduan jende ugari aritu zen aulkiak eta antzerakoan jasotzen laguntzen, eta hori eskertzekoa da, benetan".

GORA ETA BEHERA



Latak apaingarri, eta gero, lurrera

Aurreko zapatuan, hiru garagardo lata Besaideko eskultura horren gainean jarrita zeuden. Harekin *selfie* bat egiteko, pertsona batek hiru latak kendu, eta ostean, lurrean botata utzi zituen. Ikusitakoak ikusita, latak batu eta zakarrontzira bota zituen gertaera salatu duenak.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.



GOIENA

Sua itzaltzeko laguntza eman, eta zaurituta amaitu

Martitzen arratsaldean, sua piztu zen Zarugalde kaleko goialdeko txabola batean, bidoi batek su hartuta. Suhiltzaileak eta polizia heldu baino lehen, adineko gizon bat laguntza ematera joan zen, eta, sastraka artean jausi ostean, hainbat zaurirekin eraman zuten ospitalera. Suhiltzaileak bertaratu eta gutxira, sua kontrolpean zuten.



Zauritua artatzen. JOKIN BEREZIARTUA



NIRE USTEZ

HORAZIO ARGARATE

Fan hemendik

Oñatira joan-etortzerakoan, bide bazterrean egindako pintaketek atentzioa ematen zidaten. *Hemendik* hitza ezaguna dugu. Baina *fan* hori zer esan nahi ote zuen denbora luzean jakin-minean utzi zidan. Gerora, *fan* hori Oñatitik, bertako hizkuntzan, soberan daudenak alde egiteko gonbidapena zela jakin nuen. Munillak ez du Oñatiko euskara ezagutzen, baina gonbidapen berbera luzatu dit kasu honetan Arrasatetik Oñatira alde egiteko. Jakina da apaizok menpekoak garela. Hitza eman diogu nire kasuan, orain dela urtebete hil zitzaigun on Jose Maria Setieni berari eta bere ordezkoei obedituko diegula. Eta agindua datorrenean, gustatu asko, gutxi edo ezer ez, emandako hitza betetzea tokatzen da.

Berria herrian jakin denetik, Arrasateko jendeak gutxitan azaltzen diren moduan ikusi ahal izan ditut: hunkitu eta eskertuak. Egunerokoan, sentipen horiek efikaziaren estalduran tapatuta bazeuden, oraingoan guztiz agerian gelditu dira eta ezin dut ukatu era guztietako arrasatearren esker onak txundituta utzi nauela. Bejondeizuela!

Kooperatibismoaren eta euskararen ikur bati agur

Euskaltzalea, kooperatibazalea eta elkartasun proiektuetan laguntzaile izandako Joxe Ramon Elortza Gorosabel arrasatearra astelehenean hil zen. Gizon maitatua eta askok estimu handian zutena, haren heriotzaren berriak pena handia eragin du

Xabi Gorostidi ARRASATE

"Loreen eta eskelen ordez, bide-ratu ekarpenak Mundukidera edo euskalgintzara; halaxe nahiko luke berak", adierazi zuten Elortzaren senitartekoek heriotzaren harira. Keinu txiki horrek, ordea, oso ondo azaltzen du Joxe Ramon Elortza nolakoa izan den. Hone-la definitu dute familiakoek: "Pertsona zuzena, justua, humanista, zintzoa, koherentea, solidarioa, kausa nobleen defendatzailea, langile nekaezina, albokoa laguntzeko beti prest zegoena, Arizmendiarrietarekin batera aritutako kooperatibista amorratua, antolatzailea eta animatzailea zen Joxerra. Baina, batez ere, euskaltzale eta abertzale peto-pettoa, Euskal Herri euskaldun eta independente batekin amets egiten zuena".

Langile "nekaezina"

Aitak lan egiten zuen Elma enpresan hasi zuen lan ibilbidea, 1967an, eta, han zegoela, Jose Maria Arizmendiarrietaren deia jaso zuen Eskola Profesionalerara joateko. Arizmendiarrietarekin izan zuen harremanak asko indartu zuen Elortzak berezko izan zituen balio humanista eta kooperatiboak. Eskola Profesionaleko ikasleen egoitza sortzerakoan, kudeatzailer aritu zen lehen urteetan, eta handik Alecoop-era joan zen, giza baliabideen arduradun.

1980an, kooperatiben mundua utzi eta San Frantzisko Xabier Ikastolaren zuzendari lanetan hasi zen; ostean, Laboral Kutxa-ko Ikasbide arloan laur urtez; eta, amaitzeko, Ikerlan enpresan 15 urtez. Bertan, aitzindari izan zen enpresa mailan euskararen presentzia indartzeko ahaleginean, eta Ikerlanen esperientziatik beste hainbat enpresak edan zuten.

Euskara eta solidaritatea

Euskara zuen maite eta Arrasate Telebistaren bultzatzaileetako bat izan zen. Geroago, Goie-



Joxe Ramon Elortza Gorosabel, *Etorkizuna ikasgai* dokumentalaren une batean. GOIENA

naren errektore kontseiluko kide ere izan zen, eta ohiko kolaboratzailea telebistan zein aldizkarian. "ATB alegala zenean, sinadura bilketa abiarazi zuen, oztopoen aurrean babesa lortzeko", gogoratzen du AEDko Joxemari Muxikak.

Askotariko elkartasun ekin-tzetan hartu zuen parte bizitzan zehar –Mundukiderekin asko, baina baita euskal hedabideen alde, besteak beste–. Horieta-ko azkena uztailaren 8an izan zen. Debagoieneko Berrikun-


tza Plataformako bilera batean parte hartzen zebilen, Goi Eskola Politeknikoan. Une batean, ondoezik sentitu zen, eta, handik astebetera, heriotza eragin dion garun-isuria izan zuen.

"EUSKALTZALE ETA ABERTZALE PETOA ZEN; EUSKAL HERRI EUSKALDUN BATEKIN AMESTEN ZUENA"



JONAN FERNANDEZ
ELKARRIKO PRESIDENTE OHIA

"Gizon parte-hartzailea eta langilea zen. Beti zegoen kritika eraikitzaileak egiteko prest. Autokonplazentziaren antonimoa zen, eta hori zen gehien gustatzen zitzaidana. Bai Arrasateko Elkarriren lekuko tailerrean eta, gerora, Baketik-en ere, lan itzela egin zuen".



URRI URIZAR
MUNDUKIDE

"Mundukideko bulegora ahoan irribarre bat zuela sartzen zen beti. Gurekin lan egitera kanpotik etortzen ziren lagunei harrera-plana egiten genien: Mundukide zer den, nondik datorren, kooperatiben balioak... eta Joxe Ramonek ederki egiten zuen lan hori".



JOXEMARI MUXIKA
AED

"AEDren hastapenetan Euskalan-en aritu zen, lantegietan euskararen erabilera martxan jartzen. ATBren sorreran ere lan handia egin zuen. Poliziak eta Madrilgo agintaritzak trabak jarri zituzten, ATB alegala zelako, eta babesa lortzeko sinadura bilketa abiarazi zuen".

Zerrajerako jaiak gaur, dantza eta musika ukituekin

17:00etan hasiko dute festa, haurrentzako jolasekin, eta 18:00etan, puzgarriak jarriko dituzte. 18:30ean, gorputzak astinduko dituzte Nerea gimnasioaren *street dance* ekitaldian, eta 19:00etan, Konpartsa Txikia eta txistulariak elkarrekin arituko dira. 20:30ean, haurren afaria hasiko da; 21:15ean, nagusia; eta AZ Gaubelak-ek errematatuko du jaia.

Maala kaleko jaiak astelehenean, eta meza domekan

Errebalean hil direnen omenezko meza egingo dute domekan San Juan Bataiatzailea parrokian, 12:30ean. Astelehenean, festaren txanda izango da: 08:00etan, etxafuego jaurtiketa; 17:00etan, haurrentzako jolasak eta txokolate-jana; 19:00etan, txikiteoa; 20:00etan, kontzertua Montenean; 21:00etan, afaria; 22:30ean, musika; 23:00etan, suzko errubarak.

Mila esker Munduko Arrozen Festa babestu duzuen guztioi!

Goiena komunitatea

Ekin Emakumeak / ARRASATE

Jaia antolatzen aritu garen el-karte guztien izenean: mila esker! Zuek euro baten truk erositako txartelek 95 euro batu genituen eta gehiengoek bozkaturako Salvamento Marítimo Humanitario (SMH) gobernuz kanpoko erakundera bideratuko ditugu. Segi dezagun bizikidetzak sustatzen!

OHARRAK

'EkainArrasaten'

Hilaren 23an, batzarra: 18:00etan, Kulturaten.

Sinadura bilketa

Ahal Dugu Podemosek liberatuen soldata igoeraren aurkako sinadura bilketa jarri du martxan *Change.org*-en.

Ferreriasako jaiak

Bazkarirako txartelak, hilaren 23a baino lehen, Tamayon.

Xabi Gorostidi ARRASATE

Herriko hiru taldek indarrak batu dituzte, denek partekatzen duten helburu baten alde lan egiteko: herriko ondare historikoa balioan jartzea.

Intxorta 1937 Elkarte eta Arrasate Zientzia Elkarte dira hiru elkarte horietako bi, herrian aski ezagunak biak ala biak. Baina Oroimen detekzio taldea da aulkiaren hirugarren hanka. Gerrarekin eta historiarekin lotutako lurpeko objektuak bilatzeko zaletasuna duten hiru gazte arrasatearrek osatu zuten hasieran –orain, gehiago dira–, eta, gauzak aurkitzen hasi ahal, herriko beste bi elkarteekin harremanetan jarri ziren. "Guretzat, aurkikuntza aparta izan da Aitzol, David eta Hodei ezagutzea. Urte asko daramatzagu memoria eta ondarea berreskuratze lanetan, eta lanerako gogo biziz dauden gazteak daudela jakiteak asko poztu gaitu; bene-benetan", adierazi du Intxorta 1937 Elkarte Juan Ramon Garaik.

Oroimen taldekoen eta Intxorta 1937 Elkartearen arteko lehen hartu-emana kasualitatez gertatu zen. "Aitzol eta biok Anporreta inguruan genbiltzan bilaketa lanak egiten, bakoitza bere aldetik. Ordurako bageneukan elkarteren bati gure aurkikuntzen berri emateko gogo, egia esan, baina kasualitatez elkar topo egin genuen", azaldu du Oroimen taldeko David Gilek.

Intxortako Juan Ramon Garai ere Anporretan zebilen, eta, gazte batzuk metal detektatzailerekin zebiltzala ikusita, segituan gerturatu zitzairen: "Zertan ari zarete, ba? esan nien. Eta gazteak erantzun zidan: 'Zu ez zara Intxortako Juan Ramon Garai izango?'".

Lubakien mapa

David Gilek dio kasualitatez egin zutela topo, baina Juan Ramon Garai ez zegoen Anporretan kasualitatez. *Memoria partekatu baterantz. Arrasate 1936-1956. Gerra, erresistentzia eta frankismoa* liburuaren edizioa bukatu eta gero, ale guztiak segituan agortu ziren, eta Udalak bigarren edizio bat argitaratzeko konpromisoa helarazi zien Intxortakoei. "Bigarren edizioa ez genuen kopia bat izaterik nahi, eta Intxorta 1937 Elkartearen ekarpen berri bat egitea erabaki genuen: Arrasateko lubakiak



David Gil eta Aitzol Azkarraga bunkerra garbitzeko lanean, jo eta su. ARRASATE ZIENTZIA ELKARTEA, INTXORTA 1937 ETA OROIMEN TALDEA

Gerra arrastoak, denontzat ondare

Oroimen detekzio taldeak, Intxorta 1937k eta Arrasate Zientzia Elkarteak 1936an Dragonas batailoioek erabilitako bunker bat atondu dute auzolanean. Udalako Larratxu baserrian dago, eta berreraiki egin dute ondarea historikoa balioan jartzeko

aztertzea eta aurkitutakoen mapa bat osatzea. Intxorta inguruko lubakiak ondo ezagutzen ditugu, baina faxisten artxibo militarrei esker bagenekien Murugain inguruan aurkitu gabeko asko daudela oraindik. Horretan genbiltzala ezagutu genituen Aitzol, David eta Hodei arrasatearrek, Oroimen detekzio taldekoak, eta erabaki genuen elkarrekin auzolanean lan hori egitea", azaldu du Garaik. "Gure baso eta mendietan agertzen diren tresnak ez dira 1936ko gerra ingurukoak bakarrik, baita ere karlistaldienak edo zaharragoak, eta, horregatik, auzolanera gehitu zen Arrasate Zientzia Elkarte".

Lurberriko bunkerra, AZEri esker Arrasate Zientzia Elkartearen atea jo bezain pronto, baiezkobatekin erantzun zieten. "AZEn

ondarearen alde borrokatzen gara. Beti egongo gara ondarearen defentsa helburu duten ekimenen alde, eta, Juan Ramonek zertan ari ziren kontatu zigunean, ez genuen bi aldiz pentsatu. Gerrarekin lotutako objektuak, lubakiak edo bunkerrak ondare historiko bezala ulertzen ditugu, eta guretzat ere oso pozgarria izan zen gazte talde bat horretan lanean ari zela jakitea", azaldu du AZEko kide Jose Angel Barutiabengoak.

Hark eman zien bunkerraren berri. "Juan Ramoni galdetu nion ea ezagutzen zuen Udalara bidean dagoen Larratxu baserriko bunkerra, eta ezetz esan zidan. Beraz, autoa hartu eta segituan bertaratu ginen".

Bunkerreko lanak, auzolanean

Malvinetako azken etxe ilaratik badago mojen komenturantz doan bidezidor bat, eta haren hasieran dago aipatutako bunkerra. "Baserriko jabearen baimenarekin hasi ginen zaborrez betetako bunkerra garbitzen. Halako batean agertu zen bunkerraren aurreko hormaren zati handi bat barruan –1.000 kilotik gora duena–. Forma ikusita, segituan konturatu ginen paretak falta duen zatia hura zela; puzzle bateko pieza bat balitz bezala. Eta haren ondoan 50 milimetroko Valero mortero baten isatsa ere aurkitu genuen", azaldu du Garaik.

Bigarren lana makina baten laguntzarekin horma jasotzea eta hasierarako lekuan jartzea izan zen. Horma jasotzean, haren azpian agertu ziren bunkerreko sabaia-zen zatiak, eta bala-zorroak ere bai. "Bunkerraren kanpoaldean arte handi bat dago, kamuflajerako baliagarria zena. Haren alboan 30 bala-zorro eta bala-orraki aurkitu genituen", azaldu du Oroimen taldeko Aitzol Azkarragak.

Hirugarren eta azken lana izan da aurreko horman falta zen zatia berreraikitzea. "Oroimen taldekoak gazte eta sasoitsu daude, eta eurek egin dute bunkerreko lan gehiena. Horma altxatzeko garabi txiki bat alokatu genuen, eta, ostean, igeltsero profesional batzuek lagundu digute jausitako horma zatia jatorrizkoan birrokatzen. Bunkerra atontzen aritu gara azken bizpahiru asteetan, eta nabarmendu nahiko nuke auzolanean egin dugula", azaldu du Garaik.



Muruko lubakien mapa, Avilako artxibo militarretik hartutakoa. INTXORTA 1937

Lubakiak txukuntzeko gogoarekin

Irudiko mapan ikus daiteke Muru mendia lubakiz beteta egon zela. Orain arte Arrasate inguruan aurkitutako lubakiak balioan jartzeko auzolan batzuk antolatu nahiko lituzkete: "Lubaki garrantzitsuenak pixka bat atondu, eta panel informatibo batzuk jarri nahi ditugu".

"Lehertu gabeko obus bat aurkitzean esan genuen: 'Laguntza behar dugu'"

DAVID GIL ETA AITZOL AZKARRAGA
OROIMEN DETEKZIO TALDEA

Oroimen detekzio taldeak ez darama denbora luzea lanean, baina tarte txikian gauza asko aurkitu dituzte.

Nolatan hasi zinen gerra arrastoen bila?

A.A: Metal detektagailuekin aritzeko gogoz geunden. Hala, duela urtebete, detektagailu merke-merke batzuekin hasi ginen; baina kaosa zen, edozer gauzarekin zarata ateratzen hasten zirelako. Lan asko, eta emaitza gutxi. Handik gutxira, nire lehengusu Hodei batu zitzaigun, aparatu sofistikatuago batekin, eta, gutxika, emaitzak azaltzen hasi ziren.

Ondo bilatzeko, historia ondo ezagutzea lagungarri izango da, ezta?

D.G: Bai, noski. Bilaketa emankorrak egiteko gogoz, gure kabuz hasi ginen informazio



X.G.

historikoa bilatzen eta irakurtzen. Gauza historiko asko aurkitzen genituen, eta, behin aurkituta, beti duzu gogoa horri buruzko ahalik eta informazio gehien edukitzeko. Hori da zaletasun honen alde politena.

Hastapen horietan, gauza xelebreak ere aurkituko zenituzten?

A.A: Aluminio-paper asko aurkitzen genuen. Intxortakoen lubakietan duela 80 urteko pote

asko aurkitzen genituen. Baina irakurtzeaz bat leku hobeagoetara joaten hasi ginen.

Noiz pentsatu zenuten: "Uf! Aurkitu dugun hau potoloa da; goazen laguntza bila"?

D.G: Kurtzetxikin, adibidez, karlisten botoi bat topatu genuen. Handik gutxira, esplotatu gabeko obus bat, badaezpada udaltzainei eraman geniena. Hauek Ertzaintzari deitu zioten eta leherrarazi egin zuten. Orduan esan genuen: "Hobe dugu norbaiti laguntza eskatu". Arduragabe samarrak izan ginen hasieran.

Aurkitu duzuen altxorrik handiena ?

A.A: Niretzako, gudarien gerriko baten belarria, ezin hobeto kontserbatuta baitago. Intxortakoen errekreazioa ikustera joan nintzen behin, eta erreplikak saltzen zituzten. Ia-ia bat erosi nuen, eta, handik gutxira, benetako batekin egin nuen topo.

Zenbat zarete taldean?

D.G: Hiru hasi ginen, eta orain, beste bost batu zaizkigu.



Azkarragak aurkitutako gudarien gerriko belarria, bikain kontserbatuta. X.G.



Karlisten botoi bat eta gerriko belarria, Kurtzetxikin Azkarragak aurkitutakoak. X.G.



Garai, 7'5 obus metralleroarekin X.G.



1801eko txanpon bat. X.G.

Kokapen historikoa

Aurkitutako bunkerra errepublikanoek erabili zuten, eta handik 150 metro beherago zeuden Arrasateko Tertzio Zumalakarregiko kolpistak. "Kurtzetxikin azken erresistentzia handiarekin, faxistak sartu ziren Arrasaten 1936ko irailaren 26an. Hurrengo zazpi hilabeteetan gerra frontea egonkortu egin zen. Faxistek lubakien lerro bat eraiki zuten Loo ton-torretik hasita Anporretaraino, Olandixo inguruetan, eta, gero, Maitena, Olan, Larratxu eta Grandena baserrietan. Kolpearen aurkako erresistenteek, berriz, Kanpanzar, Udala, Karaskain eta Murugain inguruak lubakiz bete zituzten. Kanpanzarko bidearen ezkerrean, Larragain, Maitena eta Olan baserrien gainetik, Udalara igotzen zen bidearen goiko aldetik Arrixan [Arriaran] baserriaraino", azaldu du Garaik.

Arrasatearrak, bi bandoetan

"1936ko urrian, Tertzio Zumalakarregiko arrasatearrak Maitena eta Olan baserrietan zeuden. Eta goiko aldetik 150 metrora, egindako lubakietan



Berreraikitako bunkerraren bista. AZE

BUNKERRA DRAGONES BATAILOIAK ERABILI ZUELA USTE DUTE

150 METROKO DISTANTZIARA KOLPISTAK ZEUDEN

BI BANDOETAKOEK BERTSOAK ABESTEN ZIZKIOTEN ELKARRI

eta bunker honetan Dragones batailoiko arrasatearrak".

Bunkerrean lanean aritu direnek diote bi bandoetakoek elkar ezagutzen zutela, eta horren berri Larratxu baserrikoen bitartez jakin dutela: "Larratxu baserriko Santiago Arana horren lekuko izan zen 13 urte zituela. Baserriko senideei kontatzen zien: 'Baserrixen euzen matxinatuek, eta aurrien erresistentiek, onduen. Baserrixe txikitu auien, eta gabien izenez deiketan eutzien alkarri. Alkar ezauketan auien, eta gabien bertsotan be ibiltten zien".

Bisitak eta erakusketa

"Hasieran, liburuendako ekarpena izatekotan hasi ginen, baina, oraintxe bertan zer aurkitzen ari garen kontuan izanda, uste dugu ukitu historikoa duten bisita gidatu batzuk egin daitezkeela lubakien inguruan. Horretarako, ondo legoke tokian-tokian panel informatiboak jartzea. Aurrerago begira, 2021. urtean, adibidez, gure asmoa da herriko lubakietan gertatutako berri eman eta jasotako gerra material guztiarekin erakusketak bat egitea".



Bunkerreko 50 milimetroko Valero morteroaren atzealdea. AZE, INTXORTA ETA OROIMEN



Aurrealdean, esplotatu gabeko balak; atzean, esplotatutakoak. X.G.

"Mondrateren erronka motibazioari eustea da"

JONATAN RASO MONDRATE ARETO FUTBOL TALDEKO KIDEA

Euskal Ligan egin duten bigarren urtean, taldea egonkortu egin da kategorian; bestalde, harrobia lantzeko ahaleginetan dabilta, beste hiru talde dituzte eta

Xabier Urzelai ARRASATE

Mondrate areto futbol taldeak dagoeneko sei urte egin ditu. Kluba bi gaztek sortu zuten, 2013an, Kevin Barrancak eta Jonatan Rasok: "Federatutako areto futboleant jokatu gura genuen, ez genuen bestelako asmorik", eta, konturatu orduko, talde nagusia Euskal Ligara igotzearekin batera kadete mailako talde bat, gazte mailako beste bat, senior mailako bigarren taldea, futbol eskola eta campusa sortu dituzte.

Ikustekoa da kuadrillan areto futboleant jokatzeko zeneukaten gogoak zenbateraino eman duen.

Bai; ez genuen uste honaino iritsiko ginenik. Maila federatuan jokatu gura genuen, modu serioan. Lehenago futboleant jokatutakoak ginen, baita areto futboleant Eskoriatzan ere, Zaldibarko txapelketan... Kluba sortu genuen, modu bakarraz zelako areto futboleant jokatu ahal izateko, eta Arrasate ordezkatu gura genuen.

Euskal Ligan bigarren denboraldia egin duzue, kluba sortu eta berehala mailaz birritan igo eta gero. Hau da Mondrateren lekua?

Nik uste dut baietz, Euskal Ligan egoteko taldea dugu. Jokalariak banan-banan aztertzen badituzu, jabetuko zara maila oneko jo-



Jonatan Raso. J.A

kalariak ditugula taldean, baina talde moduan jokatzeko bidea egin behar dugu oraindik, hor hobetu behar dugu.

Hainbat urtean mailaz igo zineten jarraian.

Mondrate lehenengo hiru urteetan birritan igo zen mailaz, eta Gipuzkoako lehenengo mailan bi urte egin eta gero Euskal Ligara igo ginen. Egia esan, ez genuen uste horren azkar iritsiko ginenik hona.

Sailkapenaren erdian amaitu duzue urtea. Zein da datorren denboraldira begira duzuen erronka?

Taldearen bizkarrezurrak jarraitu egingo du, ez ditugu talde nagusian aldaketa handiak izango. Baina garbi daukat Mondrateren erronka hasieran geuekan ilusioari eustea dela, lehenengo urteetan izan dugun seriotasunarekin jarraitzea. Izan ere, uste dut arlo horretan azken urtean behera egin dugula apur bat. Taldea sortu genuenean, entrenamenduak, partiduak... oso serio ibiltzen ginen denok. Eta kanpotik datozen jokalariei ere zorrotasun maila hori eskatu behar diegu, lanerako gogoz



Mondrateko campusean esku hartu duen gazte talde bat. MONDRATE

Campusa amaituko dute gaur

"Hiru astez antolatu dugu campusa eta oso balorazio positiboa egiten dugu, gazteak gustura ibili dira. Berez, astebeteko txandak antolatu ditugu, eta lehenengo txanda egin eta gero errepikatu gura izan duenik ere egon da".

etor daitezela; bestela, taldeak beherakada izan dezake.

Mondrateko talde nagusiak jokatzeko estilo propioa duela diozu.

Bai, gure estiloa dugu, eta horretan jarraitu behar dugu lanean. Mondrateren oinarria atzealdean hasten da, defentsako lan on batekin. Hori garbi ez duen jokalaria bat kantxarutzen denean, talde osoak igartzen du. **Eskoriatza eta Aretxabaleta izan dituzue liga berean. Horrek saltza jarri du txapelketan.**

Zalantza barik. Eskoriatza mailaz igo da, eta ondo merezitako saria da hori, lan galanta egin dutelako. Euren kontra ez dugu partidurik irabazi, bai etxean eta bai Eskoriatzan galdu egin dugu euren kontra. Aretxabaletarekin, berriz, indarrak parean izan ditugu. Norgehiagoka bat irabazi egin genuen, bestea galdu... Derbi politak eta intentsi-

tate handikoak izan dira, asko gozatu dugu.

Talde nagusiarekin batera harrobia ere lantzen ari zarete. Bestela, erreleborik ez badago, arriskua dago orain arteko lana desagertzeko.

Hori da. Kadeteen taldea, gazte mailakoa, seniorren bigarren taldea... LEKeoekin batera futbol eskolarekin ere hasi gara lanean. Jokalarien joan-etorriak normalak dira, eta gazteen lehenengo aukera futbola izaten da; gero etortzen dira areto futbolera. Guretako, zailena, baina, entrenatzaileak formatzea da; hor hutsune handia dugu.

"ENTRENATZAILEAK FORMATZEKO ZAILTASUN HANDIAK DITUGU; HOR DUGU HUTSUNE HANDIENA"

Carrascalek marka pertsonala ondu du; Ruiz de Azuak ere urrea

Asteburuan Avilan salto hirukoitzean lehiatzeko gonbidapena jaso dute Uribarrenek eta Carrascalek


X.U. ARRASATE

Asteburuan Durangon egin duten Euskadiko Txapelketan, etxeko atleten artean Eneko Carrascal nabarmendu da. Salto hirukoitzean urrea jantzi zuen, baina garrantzitsuagoa dena,

marka pertsonala onduta lortu zuen hori. Orain arte, Arrasatekoak 15,80ko marka zeukan, 2017an Grosseton (Italia) lortutakoa, eta asteburuan marka hori bi zentimetro hobetu du (15,82). Iñigo Uribarrenek, 15,43ko

saltoa eginda, zilarra jantzi zuen. Pista estalian 15,50 egin du aurtan, ez da 2016-17ko denboraldiko marka ikusgarrietara iritsi -16,05 aire librean; 16,17 pista estalian-, baina iaz lesioek baldintzatutako urte txarra atzean utzi du, eta hori albiste ona da.

Emakumezkoetan, berriz, Malen Ruiz de Azuarendako izan zen urrezko domina. Arrasatekoak pista estalian egindako 4,38tik gertu egon gura zuen; gertu izan zuen 4,36ko marka, baina ez zuen lortu (4,25).



Salto hirukoitzeko podiuma. REAL SOCIEDAD

Besaidek mendi irteera antolatu du domekarako

Oraingo domekan, hilak 21, Bizkai aldera joango dira Besaideko lagunak, Gorbeia ondoan dagoen Itxinara, hain zuzen. Mendi ibilaldia 14 kilometrokoa da -07:30ean irtengo dira, Gariatik-, eta antolatzaileek gomendatzen dute frontal bat edo linterna bat eramatea. Ibarran (Orozko) hasiko dute mendi ibilaldia.

Senegaleraino iritsiko diren txalaparta doinuak

Ndank Ndank elkartearekin batera, Senegalgo Dionewar herrian hezkuntza proiektua garatuko dute 25 lagunek. Tartean da Antton Martinez Gorosmendi, txalaparta bertara eramane eta ezagutzera emango duen Ttakun taldeko kidea

Jone Olabarria ARRASATE

Hezkuntzan fokua jarrita abiatuko dira Debagoienetik 25 lagun, abuztuaren 4an, Senegaleraino. Bi astetik gora emango dituzte Dionewar herrian hainbat proiektu garatzen –eskolaren handitzen lanak, esaterako–, baita "kultur elkartrukea eta herrien arteko lankidetzak" sustatzen ere.

Helburu horrekin, hain zuzen, eramango du Antton Martinez Gorosmendik, Ttakun elkarteari esker, txalaparta Dionewarrreraino: "Proiektuan parte hartzeko asmoa nuen hasieratik, baina, bilera batean, txalaparta bat hara eramatea ideia polita izan zitekeela iruditu zitzaidan, eta bota egin nuen. Bertan zeudenek proiektu aberasgarria garatzeko bide bezala ikusi zuten. Ttakun-eko kideei zer iruditu zitzaizen oraindik jakin gabe esan nuen", azaldu du.

Txalaparta taldetik azkar eman zuten baiezkua, eta, hala, Senegaldik bueltatzean instrumentua

han utziko zutela erabaki zuten. "Oinarri txiki batzuk erakustea da asmoa, jolasean bezala. Ikastaro labur bat eskainiko dugu", dio Ttakuneko kideak.

Hantxe egingo dutenaz galdetuta, hauke dio: "Goizak proiektu ezberdinak garatzeko erabiliko ditugu eta arratsaldeetan, berriz, hango kultura eta bizimodua barrutik ezagutu nahiko genuke".

Fusioaren bila

Proposamena egin zutenetik "jarrera positiboa" nabaritu zutela kontatu du; Ndank Ndank elkartetik txalapartarekiko "interesa berezia" sumatu zuten: "Senegalgo musikan perkusioak garrantzi handia du, yembe eta danborrek indar handia dute. Txalaparta ere perkusiozko instrumentua izanik, ezagutaraztea soilik ez, fusio antzeko bat lortzea polita litzateke. Txalaparta han utzita, ziur gaude senegaldarrek lan polita egingo dutela".



Antton Martinez Gorosmendi, eguaztenean, Monterronen. JONE OLABARRIA

Kalakan-en musika minimalista, Siberiako kantuetan barna

Udazabal-en barruan, hilaren 25ean eskainiko dute kontzertua Kalakan taldeak eta Alexandre Buriatiakok

Jone Olabarria ARRASATE

Monterronen batuta, elkarlanean arituko dira datorren egunean, uztailak 25, Kalakan taldeko kideak eta Siberiatik datorren Alexandre Buriatiako kantari difonikoa.

Kantu herrikoiak birmoldatuz sortzen ditu bere konposizioak Buriatiakok, eta, hain zuzen ere, doinu tradizionalei gaurkotasuna ematea izan da Kalakan hirukotearen erronketako bat azkeneko urteetan. Horretarako, kantu zaharreri erritmoa eman, eta pop edo rock-

and-rollarekin nahastu izan dituzte.

Madonnarekin lanean

Ipar Euskal Herrian sortutako Kalakan taldea 2012an eman zen bereziki ezagutzera, baita mundu mailan ere. Izan ere, Madonna abeslariaren MDNA mundu biran parte hartu zuen hirukoak.

Hala, abeslariaren kantu eza-gun batzuen moldaketak egin zituzten, eta taldearen *Sagarra jo!* kantuarien kopia bat euskaraz kantatzea erabaki zuen Madonnak.

ARRASATE BLUES

Uztailak 19-20-21





Libe Ramila gidaria azalpenak ematen, bisita mitologiko batean. GOIENA

Bisita programaren balorazio baikorra

Aramaioren ondarea ezagutarazteko Amillena elkarteak eta Udalak elkarlanean aurrera eramandako egitarauaren emaitzarekin pozik geratu dira batzuk zein bestek. Azken hilabeteetan hamar bisita egin dituzte, 195 lagunren parte-hartzearekin

Julen Iriondo ARAMAIO

Askotariko bisitak eta ekintzak egin ditu Amillena iazko urrian egitaraua estreinatu zutenetik: herriaren historia orokorra errepasatzea helburu izan duen *Aramaio ezagutu* izenekoak –bat berezia, gainera, eguneko zentroko erabiltzaileentzat egindakoa–; naturaren interpretaziorako Errez kooperatibarekin egindakoa; pertsonaia mitologikoez jardunez eta Aramaioko kondairak kontatuz egindako bisita mitologikoa; Erdi Aroari buruzko bisita; eta eskolan zein familientzat egindako *Betaurreko berdeak* izeneko tailerra, kontsumo ohituren gaineko gogoeta egitea helburu izan duena.

Amillena elkarteak ez da elkarre berria, baina, aurrez zenbait ekintza egindakoa izanda ere, hainbat denboraz lozorroan egon ostean indartsu berrartu du aktibitatea, bisita programa honekin. *Aramaio ezagutu* izeneko bisita eta bisita mitologikoa

aurrez ere bazituen Amillena bere eskaintzan –lau saio izan dira, denera–; oraingoan, baina, Udalarekin batera osatu eta antolatu dituzte. Natura interpretazioarenak izan dira bisita berriak, eta baita *Betaurreko berdeak* eta Erdi Aroa gaitzat izan duen bisita ere.

Amillena adierazi dute, oro har, "oso pozik" daudela parte-hartzearekin: "19,5 pertsona etorri da bisitako. Bisita askotan, hasieran jarri genuen parte-hartzaile muga gainditu egin dugu pixka bat. Ikasteko gogoz etorri da jendea, baita parte-hartzeko eta beraiek dakitena, betiere, errespetuz, kontatzeko gogoz ere. Helduentzako bisitetan 20 urtetik hasi eta 70 urte-

ra arteko parte-hartzaileak izan ditugu".

Generoari dagokionez, bisita gidatueta ohikoa den bezala, emakumezkoak gehiengoa izan dira, nabarmen. Bestalde, parte-hartzaile gehien-gehienak Aramaiokoak bertakoak izan dira, baina izan dira Debagoieneko beste herri batzuetako banaka batzuk ere, eta baita Gasteiztik etorritakoak.

Udala ere gustura

Aramaioko ondarea jaso eta ezagutarazteko Udalak martxan dituen ekimenen artean beste bat da bisita gidatuona. Amillenaekin elkarlanean gauzatutako programaren lehen aldi hau amaituta, balorazio baikorra egin du Udalak ere: "Balorazio oso ona egin dugu; herriarren parte-hartzea polita izan da, eta bisitak oso interesgarriak izan dira. Amillenaekin harremanean jarraituko dugu, eta asmoa da elkarlanean jarraitzea", adierazi dute Udaletik.

UDALAK DIO BISITAK OSO INTERESGARRIAK IZAN DIRELA ETA ELKARLANEAN SEGITUKO DUTELA



ARAMAIKO UDALA

Argindarraren kableak, lurpera

Auzoetako azpiegiturak hobetzeko asmoen barruan, Etxaguenen zenbait lan egiten jardun dute azkenaldian.

Honela, behin urbanizazio lanak eginda, argindarraren kableak lur azpian sartu dituzte oraintsu, eta, gainera, transformazio zentro berria eraiki dute auzoan bertan.

Eskolako arrapalaren bigarren faseko lanak, hil amaieran

Uztail amaieran hasiko dituzte eskolako arrapalaren bigarren faseko lanak. Iaz egin zuten eskolako sarrera irisgarria beheko bideko espaloiarekin lotuko dute orain, kiroldegiko aparkalekutik. Obra honetarako beharko den diru guztia dirulaguntza bidez jasoko du Udalak; 25.880,10 eurotan esleitu dituzte lanak.



Lanak egiten. ARAMAIOKO UDALA

Zirkulazioan aldaketak, lasterketetatik

Leintz Gatzagako Dorletako Ama txirrindulari lasterketa jokatu-ko da domekan, eta Aramaiotik ere pasako da. Hori dela eta, Nardeaga kalea itxita egongo da 10:15etik 11:00etara. Horrez gain, kale horretan mugatuta dauden aparkalekueetatik kanpo ezin dela aparkatu gogorarazi du Udalak. Anbulatorio ondoan esprint berezia izango da.

OHARRAK

Anbulatorioa udan

Aramaioko anbulatorioak ordutegi berezia izango du udan. Honela, abuztuaren 5etik 16ra, 08:00etatik 11:00etara izango da ordutegia –gaur eta gaur zortzi ere bai–.

Liburutegia udan

Uztailaren 31ra bitartean, goizez egongo da zabalik udal liburutegia, 10:30etik 13:00etara. Abuztuaren, itxita.



Asier del Campo, beheko ilaran, ezkerretik hasita bigarrena. A.C.

Lau eta erdiko txapela jantzi du Del Campok

Gasteizen jokaturako finalean 22-3 nagusitu zen aramaioarra Markel Aranberriren aurka. Txapela aitaren eskutik jaso zuen Asier del Campok. Denboraldia lesio batekin hasi zuen arren, buelta eman dio egoerari: Añorgako txapelketan ere aurrera egin du

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO "Pozik" dago Asier del Campo pilotaria. Ez da gutxiagorako. Denboraldia gaizki hasi arren, egoerari buelta eman eta Arabako lau eta erdian nagusitu da. Joan zen aste bukaeran izan zuen finala, Gasteizen, Lakua taldeko Markel Aranberriren aurka. Samur nagusitu zen aramaioarra: 22-3: "Oso ondo joan zen partidua. Sakearekin ondo hasi nintzen eta 12-1 jarri nintzen aurretik. Ondoren etorri ziren gainontzeko tantoak", azaldu du Del Campok. Gakoa sakea izan zela nabarmendu du.

Txapela, aitaren eskutik

Txapela, gainera, aitaren eskutik jaso zuen: "Aramaioko klubeko presidentea denez, sari banaketa ekitaldian egon zen". Izan ere, Del Campok Lakua elkartearekin jokatzen duen arren, Aramaioko fitxa dauka; horregatik, lau eta erdiko txapelketa Aramaioko kamisetarekin jokatu du.

Ez da lehenengo aldia Del Campok lau eta erdiko txapela jantzen duena. "Iaz, kadete mailan irabazi nuen. Bigarren urteko kadete nintzen. Baina aurretik, lehen mailako gaztea naiz, nagusiagoen aurka jokatzen dut".

Txapelketan zehar izan duen partidua zailena finalaurrekoa izan zela dio: "Alonsoren aurka 22-3 irabazi nuen; partidua garrantzitsua izan zen finala irabazteko. Izan ere, Aranberri taldekidea dut, eta ondo ezagutzen dut, berarekin entrenatzen naiz eta".

Denboraldi hasieran, lesioa

Denboraldia txarto hasi zuela gogoratzen du Del Campok. Urrian buruz buruko partidua

AÑORGAKO TXAPELKETAN FINAL-LAURDENETARA IRITSI DIRA DEL CAMPO ETA LARRIETA

batean eskuan min hartu zuen eta otsailera arte jokatu barik egon zen: "Ondoren, Iruñean, Lizarran, lau eta erdian... ondo sentitu naiz".

Gasteizko Lakua taldeko pilotaria da Del Campo: astean bi entrenamendu egiten ditu, martitzenetan eta eguenetan, Lakuan. "Astelehenetan Aramaion entrenatzen naiz, Oihan Bideburu entrenatzaile ohiarekin; pilota goxoarekin ibiltzen gara", gaineratu du. Lakua elkarteko entrenatzailea Gorka Gonzalez du.

Añorga eta Andramari Zuria

Beste txapelketa batzuetan burubelarri sartuta dabil Del Campo: "Añorgako txapelketa jokatzen nabil Jokin Larrietarekin bikotea osatuz. Final-laurdenetara iritsi gara; eta uztailaren 24an Andramari Zuriaren txapelketa hasiko da Gasteizen. Endika Altube izango dut atzelari lanean". Arabako txapelketa guztietan bikotekide bera izaten du -rankingaren arabera osatua-.



Aitor Arana helmugara sartzen. A.A.

Aranak bere markarik onena egin du Ehun Miliak proban

Beasainen jokatzen den distantzia luzeko mendi lasterketa 10. postuan bukatu zuen aramaioarrak

A.E. ARAMAIO

168 kilometroko lasterketa egin, eta 10. bukatu. Ez da marka makala Aitor Aranak Ehun Miliak proban egin duena: "Lau garren aldiz egin dut; hortaz, esperientzia banuen, banekien zer zen", dio. Baina aurreikuspenak gainditu eta inoiz egin duen markarik onena egin du Aranak: 27.00.53 -orain arteko marka hiru ordu eta erdi ondu du-. Horrelako lasterketa luze bat egiteko sekretua zera dela dio. "Hasi eta joan eta joan... nork bere buruari animoak eman, lasterketa amaieran pentsatu beharrean, hurrengo datorren puntu baten pentsatzea da onena. Etapaka egitea moduan", azaldu du Aranak.

Lo egin barik

Egubakoitzean 18:00etan hasi zuten lasterketa: "Gaua garbi-garbia zegoen, ilargiaren argia-

rekin. Oso gustura ibili nintzen gauez... izan ere, ohituta nago, lan ere gauez egiten dut eta". Ehun Miliak proban bi anoa-postu garrantzitsu egoten dira: jan, lo, dutxa bat hartu... "Jan eta dutxa bat hartu nuen. Garrantzitsua da jatea". Makalal-dirik ez zuela izan gaineratu du. Dutxa hartzeaz gain, arropak eta oinetakoak aldatu zituela dio: "Garrantzitsua da oinetakoak aldatzea; bestela, hankak..." Helmugara zapatuan iritsi zen, 21:00etan. Han zituen emaztea eta bi alabak: "Lasterketa guztian zehar ere animoak ematen egon ziren, nire laguntzaileak dira". Etxera itzuli eta lo egin zuela dio: "Lo bapo egin nuen, hurrengo eguneko 13:00ak arte".

Hurrengo lasterketa Alpeetan jokatuko du, abuztuaren 26an: Mont-Blanc-eko ultramaratoia. Lasterketa "teknikoagoa" dela dio Aranak.

Domekara bitartean Santa Marina jaiak ospatuko dituzte

Santa Marina jaiak ospatuko dituzte Arriola eta Arexola auzoetan gaur hasi eta domekara bitartean. 20:00etan hasiko dituzte, etxafuego eta kanpai errepikarekin. 21:00etan, auzo afaria izango dute, Aitor Mendiluzek eta Alaia Martinek girotuta.

Bihar, zapatua, 12:00etan, meza izango dute. Ondoren, Ibarrik Arexolara bizikleta lasterketa

egin dute. Arratsaldean, kanpai jotzea, mus eta briska txapelketak, kalejira eta *berbapasia* izango dituzte.

23:00etan, Izer eta Narbaiza trikitilarietara erromeria izango dute, Arriolan, eta goizaldean, txokolate beroa eskainiko dute bizkotxoarekin.

Domekan, 12:00etan, meza nagusia izango dute, Aramaioko abesbatzak girotuta, eta ondoren, Arriolako plazan kantu saioa egingo dute. 18:00etan, ume jolasekin amaituko dira jaiak.



Jai batzordeko hainbat kide jaietarako atera dituzten karteekin. MIRARI ALTUBE



Araba ibilbidea asfaltatzen, martitzenean. M.A.

Portasol, jaiak eta gehiago

Gaurtik domekara bitartean ospatuko dituzte auzoko jaiak. Bizilagunek osatutako talde batek jardun du horiek antolatzen eta herritar guztiak gonbidatu gura dituzte; erdigunetik kanpo dauden inguruetara gerturatzea merezi duela erakutsiko dute

Mirari Altube ARETXABALETA

Iritsi dira, beste urte batez, Portasolgo jaiak, San Lorentzoren omenezkoak, gaur egun izena galduta badute ere. 50 urte baino gehiagoko tradizioa dute, nahiz eta gorabeherak izan eta urte batzuetan antolatu barik egon. Auzokideek hartu dute horien ardura aurten, tabernarien laguntzarekin, eta indartuta datoz.

Anduaga taberna alboan, kamioi txiki baten gainean musika taldetxo bat eta jendea inguruan dantzan geratu barik; batek baino gehiagok du hori gogoan. Geroago, Eguzki Alde elkartearen alboan kokatu zuten oholtza eta tabernatxo bat jarri ere bai, eta jendetza gerturatzen zen, Eskoriatzatik, Arrasatetik... Sasoi hartan, herriko hainbat ka-

letan ospatzen zituzten jaiak; Lausittan eta Kalebarrenen, besteak beste. Baina desagertzen joan ziren, batez ere, horiek antolatze lanetan jarduteko jende faltagatik. Portasolen ere urte batzuetan ez zituzten ospatu, baina, 1990aren bueltan, gazte talde batek hartu zuen ardura eta hamabi bat urtez lan handia egiten ere bai.

Hamar urteko hutsunearen ostean, jaiok 2012an berreskuratzen zituzten merkatariek eta ostalariek. "Iaz, desagertzeaz egon ziren berriro, eta orduan elkar-tu ginen hainbat bizilagun. Talde polita sortu dugu eta gogotsu gabiltza lanean aurten", adierazi du Iurgi Etxebarriak, eta gaineratu: "Auzotarrek erantzungo duten zalantzarik ez dugu; ea erdigunetik ere jendea gerturatzen den egubakoitzean ohi legez eta zapatuan ere bai". Antolatzaileek eskerrak eman gura dizkiote Udalari jaiok babestearren.

Etxeek gora, zerbitzuek behera

Araba ibilbidea da Portasol auzoaren bizkarrezurra, eta hori osatzera dator Loramendi kalea. Izena bera, Portasol, ez dago inon jaso, baina herriaren hegoaldea batzen du; hain zuzen ere, han kokatutako bainuetxe-tara XIX. mendean etortzen ziren madrildarregatik jarritakoa da izen hori, Puerta del Sol-etik eratorria.

Ordutik hona, asko hazi da inguru hori guztia; etxe gehiago eta enpresendako eraikin berriak, besteak beste. Zerbitzuek, ostera, ez dute egin gora, eta gero eta merkataritza gutxiago dago, batzuek itxi egin dituztelako ateak –Atai-k, adibidez– eta beste batzuek erdigunera lekualdatzea erabaki dutelako –Jon harategia azkena–. "Bertan jarraitzen duten dendei eskerrak eman behar dizkiegu, besteak beste, harategiari, supermerkatuari, arrandegiari, edadeko bizilagunendako oso garrantzitsuak direlako", dio Juani Fabianek.

Ostalaritzak, ostera, eutsi egin dio, baita asmatu ere tabernari- erdigunetik jendea errotzen: "Aste bukaeran mugimendu polita egoten da, afaltzera jende asko gerturatzen da eta", adierazi du Fabianek. Eguenetan antolatzen duten pintxo-poteak gora egin duela dio Eguzki tabernako Aitor Zabalak, eta jendetza elkartzen dela: "Gustura gaude izaten duen erantzunarekin".

Jai egitaraua egunez egun:

Uztailak 19, egubakoitza

- **17:30** Buruhandiak eta erraldoiak, kaleetan.
- **18:00** Patata-tortilla txapelketa, Zariaiko aparkalekuan.
- **19:30** Txapelketako sari banaketa eta dastaketa. *Shuffle* dantza urbanoen erakustaldia, Comp taldearen eskutik.
- **22:30** Zinema familiendako – *Un puente hacia Terabithia* –, Txarapeako eskaileren alboan.

- **22:30** Kontzertua: Bixentak eta The Tacata's. Eguzki Alde elkarte aurrean.

Uztailak 20, zapatua

- **11:30** VII. Atletismo txapelketa, 100 metro takarran, Bizkaia kalean. Izen-ematea, aurretik.
- **12:00** Puzgarriak, euskaltegi aurrean.
- **13:00** Paella dastatzea, Eguzki tabernan.

- **14:30** Auzokoan bazkaria, autobus geltoki alboan.
- **16:00** Mus txapelketa, Eguzki Alde elkarte arkupetan.
- **16:00** Margumission, BRGS Gorka, Azkena tabernan.
- **17:00** Umeendako jolasak, euskaltegi aurrean.
- **17:30** Kalejira auzoan, goitik beheraino.
- **18:30** Pintxo-potea auzoko tabernetan.

- **20:00** Sambamaña batukada, behetik goraino.
- **22:30** Maikel Night auzoko DJa Eguzki Alde elkarte aurrean.
- **23:00** Suzko erruberrak kiroldegiko zelaian.

Uztailak 21, domeka

- **11:00** III. Feria, Bizkaia kalean (08:00etarako autoak kenduta).
- **12:00** Ur puzgarria Dorleta tabernaren atzealdean.
- **12:30** Emakumeentzat defentsa pertsonal ikastaroa

- Aikidoku kirol elkartearen eskutik, autobus geltokiko plazan (euriarekin, kiroldegian).
- **13:00** Paella txapelketa, Aretzeko aparkaleku aurrean.
- **17:00** Skate erakustaldia, skate pistan eta 4x4 erakustaldia zelaian.
- **18:00** Dantzaldia Basotxoren eskutik, Zariaiko aparkalekuan.
- **19:30** Auzoko nagusienari eta gazteenari omenaldia, Zariaiko aparkalekuan, eta zozketa.
- **20:00** Jaien amaiera.

Zelakoa da Portasol ingurua?



AITOR ZABALA
TABERNARIA

"Pintxo-poteak jende asko ekartzen du eguenetan"

"Azken urteetan asko hazi da eta bizitza duen auzunea da; era berean, ahaztuta egon da, Udaletik hasita. Azken hilabeteetako lanak direla-eta kaleak berritu egin dira, behintzat. Eguenetan egiten den pintxo-potera jende asko agertzen da; erdigunetik ere asko datoz. Gainerakoetan, andramaixetan, adibidez, erdigunean egiten da guztia eta ingurukook ahaztuta gaude. Horregatik, auzoko jaiei eutsi gura izan diegu; ahalegin handia egin da horretan. Lan handia egiten dabilta aurten ere".



ANTON DIEZ URMENETA
MERKATARIA

"Edukiontzien kokapena zaintzeko eskatuko nuke"

"40 urtetik gora daramatzat dendan, eta igartzen dut behera doala komertzioa; orokorra da, baina hemen are nabarmenagoa. Egia da pintxo-poteak jendea ekartzen duela, baina tabernetara. Nik eskatuko nioke Udalari kasu egiteko guri, adibidez, edukiontzien kokapenak zainduta, usaina sortzen delako eta lekuz kanpo utzitako poltsak agertu; aldatzeko eskaera egin dut baina... Dirua ateratzeko kutxazain bat ere aspaldi eskatu nuen, dendako txoko bat uzteko eskaintza ere egin nien, baina bai zera!".



JUANI FABIAN
BIZILAGUNA

"Auzune lasaia da eta jende benetan atsegina bizi da"

"Hamalau bat urte daramatzat hemen, eta gustura bizi naiz. Oso auzune lasaia da, eta jende benetan jatorra eta atsegina dago. Hirigintzari dagokionez, kaleak utzita egon dira, baina azken hilabeteotan berritu egin dituzte eta elbarriendako egokitu; hortaz, eskerrak emateko moduan gaude. Zerbitzuek behera egin dute, baina ostalariak saiatu dira horri eusten eta jendea ekartzen. Bestetik, kosta egiten da auzorako ekimenak antolatzea. Laburbilduz, Portasol oso gustura bizi gara!".

Urteetan egin duten beste eskaeretako bat dirua ateratzeko kutxazaina da: "Banketxe guztiak daude erdigunean, zergatik ez jarri kutxazain bat hemen? Eda-detuendako, baserrietatik jaisten direnendako eta edonorendako", dio Etxebarriak. Unai Elkoro alkateak adierazi du eskaera hori eginda dutela Udaletik, baina ez dagoela zereginik: "Bulegoak kentzen dihardute banketxeek eta diru fisikoa gutxitza doa poliki-poliki; hortaz, guk lokala ere eskaini arren, ez

dute horren aldeko apusturik egingo".

Hainbat kale berrituta

Azken hiru hilabeteotan kaleak konpontzen jardun dute; Araba ibilbidea –orain dela bi urte ere zati bat berritu zen–, Loramendi eta Bizkaia kalea izan dira konpondutakoak. Batetik, zebra-bideak egokitu dituzte irisgarritasuna bermatze aldera, eta, bestetik, asfaltatu egin dira. "40 urte baino gehiagoan ez dute inolako konponketarik egin ka-

leetan, bazen ordua!", dio Arenaza altzari dendako Anton Diez Urmenetak. Alkateak ere onartu du hori: "Derrigorrez berritu behar ziren hainbat, zuloz beteta zeuden eta. Loramendiko biribilguneak, esaterako, bazuen berritu beharra; izan ere, autobus asko pasatzen dira hortik, eta, astunak izanik, hondoratu egiten dute zorua". Jaietarako lan guztiak bukatu dituzte, eta itxura dotorearekin egingo diete harrera auzotarrei zein kanpotik doazenei.



NIRE USTEZ

MIKEL ARROIA

Zaindu maite duzun hori

NASako STEREO zundak ateratako bideo bat ikusi dut Twitterren. Bertan, Lurra txiki txikia ikusten da suzko bola erraldoi baten inguruan biraka. Ufada gorien artean egiten du bidea, hain hauskor, hain babesgabe...

Gure kultura eta hizkuntza ere horrela irudikatzen ditut. Hizkuntza zaharrena dela harro esaten dugu, zibilizazio ugariak menperatu gaituzten arren gurea dena zaintzen asmatu dugula. Globalizazioak kulturak irensten jarraitzen du, baina beldur naiz orain ez ote gabiltzan zainketa horretan huts egiten. Instituzioek ez dute egoera serio hartzen eta herritarrok ere ez. Kalean belarria zorroztea nahikoa da gazte euskaldunak elkarrekin gazteleraz ari direla konturatzeko, eta gurasoak ere haien artean gazteleraz entzuteko. Euskaraldian eta Korrikan parte hartzen dugu, baina ez dugu euskal kultur ekoizpenik kontsumitzen.


Eta bat-batean *Euskalonski* programan errusiarrak, musulmanak, amerikarrak eta japoniarrak azaldu zaizkigu egongelako pantailan, gure hizkuntzaz eta kulturaz maiteminduta. Erroman Luka ezagutzeko zortea izan genuen. Ikasgai ederra eman zigun.



JONE OJEA

Jai giroan agur udaleku irekiei

Urkulun izan dira, auzoetan eta igerilekuan; Galartzan eta Leixargaraten gau pasatu dute eta Lekaixoka bertso eskolakoekin eta Mendibitzu baserrikoekin mordo ikasi. Eskulanak egin dituzte, jolasean jardun dute eta zaborra batu ere bai; horiek eta gehiago egin dituzte udaleku irekietan hiru astez, eta gaur, agur esango diete horiei, jolasean eta dantzan eginda.



Odontologia estetikoa
Endodontzia
Inplantologia

Ortodontzia
PADI zerbitzua
Hortz protesiak

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00
Ostiralean: 08:30-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaeta • Tel.: 943 79 93 55
www.duranahortzklinika.eus

Lanean jarraitzeko gertu, kirol jardunak indartuta

Datorren denboraldirako dituen asmoen berri eman die UDAk bazkideei; besteak beste, kirol elkartearen kudeatzailea hartzea eta kirol instalakuntzak indartzea. Kirolari kopurua haztea ere bada erronka, iaz inoizko kopururik altuena izan arren

Mirari Altube ARETXABALETA

Zuzendaritza batzordea osatu du UDAk beste lau urtetarako, eta zaharrak berri dira han: Agurtzane Elkorok jarraituko du presidente, eta alboan izango ditu orain artekoak; hona hemen: Adrian Merino, Julen Ezeiza, Iñaki Ibarrondo, Oihana Mata, Nerea Olmedo, Jose Ramon Saez de Gordo, Mario Unanue, Nerea Zubillaga, Roberto Etxeandia, Ibai Zangitu, Eñaut Kortabarria, Ramon Perez de Labeaga, Jon Ander Larrinaga, Gorka Etxabe eta Jose Luis Uribarren. Hain zuzen ere, pozik agertu ziren horiek joan den egubakoitzeko batzar orokorrean. "Diruz ondo gabilta, baina dirua ez da izan behar oztopo proiektuetarako, topatuko dugu. Aurrekontua zenbat eta handiagoa izan, orduan eta kontu gehiagori helduko diogu", zioen Elkorok. Hala, 288.043 euroko aurrekontua aurkeztu zieten bazkideei – iazkoa baino 6.000 euro baxuagoa –, eta onartua izan zen.

Kirol jardunari dagokionez ere harro ziren: "UDArekin historian inoizko kirolari kopururik altuena izan dugu aurten: 601 kirolari", eta ildo horretatik jarraitzeko asmoa agertu zuten; hau da, ahalik eta kirolari gehien batzea elkartera "baldintza beretan eta egokienetan".

Kirol instalazioak berritzen

Datorren denboraldian kirol elkartearen kudeatzailea hartzeko asmoa agertu zuten. Era berean, kirol instalazioek duten garrantzia nabarmendu zieten bazkideei, "kirolaren kantitatea instalazioen kalitatearekin bat" datorrela iritzita. Hori horrela, gustura daude kiroldegi aurrean egingo den futbol zelai berriarekin: "Irailerako gertu egotea espero dugu".

Bestetik, Iturrigorri pilotalekua ere berritu gurako lukete: "Estali egin gura dugu, txukundu



Zuzendaritza batzordeko kideak, egubakoitzeko batzarraren ostean. JOKIN BEREZIARTUA



Saria jaso zutenetako batzuk. J.B.

Denboraldiari eta ibilbideari sariak

Denboraldian egindako lanagatik talde bakoitzeko kirolari bana saritu zuen UDAk, urtero legez. Bestetik, pilota saileko arduradun Juan Mari Errastiri aitortza egin zioten, eta ohorezko bazkide izendatu zuten. Lanean jarraitzeko "gogotsu" agertu zen hura.

obra txiki batekin", zioen Elkorok, eta hori baino gehiago eskatu zuen pilota saileko arduradun Juan Mari Errastik: "Konponketak egitea ondo dago, baina, nire ustean, pilotaleku berria egin beharko litzateke".

Hain zuzen, Errastik jaso zuen ohorezko bazkideari egiten zaion aitortza. 40 urtetik gora daromatza hark pilota sustatzen eta zabaltzen herriko gaztetxoaren artean, baina erretiroa hartzeko asmorik ez zuen agertu.



Unai Elkorok, Simon Diouf, Aminata Sene, Souleymane Sarr eta Karmele Uribarri. I. BELOKI

Senegalgo Mbam herriarekin elkarlanean jarduteko gertu

Udalerri hartako Simon Diouf alkatea etorri da bisitan, Aretxabaletan bizi diren hango herrikideek gonbidatuta

Mirari Altube ARETXABALETA

Senegalgo Mbam herriko bi familia bizi dira Aretxabaletan, zazpi bat lagun, eta Souleymane Sarr-ek eta Aminata Sene-k gonbidatuta etorri da hango alkate Simon Diouf: "Euskadiren berri eman gura dugu Senegalen, guztiz ezezaguna delako. Era berean, Mbami lagundu gura diogu; orain dela bost bat urte izendatu zuten udalerri, eta egiteko asko dago oraindik; azpiegiturak hobetu, esaterako", dio Souleymanek.

Simon Diouf lehenengoz etorri da Euskal Herrira eta eskertuta dago egindako harrerarekin:

"Eskerrik asko guztioi, eta, bereziki, alkateari, bisita erraztearen. Herri atsegina dela ikusi dut hemen daramatzadan egun gutxian. Ea elkarrekin lan egiteko modurik dugun".

Unai Elkorok alkatearekin eta Karmele Uribarri zinegotziarekin batzartu da. "Elkarlanean jarduteko gertu etorri da, eta aztertu dugu zelan zehaztu daitekeen hori", dio Elkorok. Helburua izango litzateke hainbat proiektu aurrera erotea, bereziki, osasun arloan, hezkuntzan eta emakumei eskaintzen zaizkien errekursoetan jarrita indarrak.

Degurixara joango dira bihar eta etzi toponimia taldekoak

Loramendi elkarteko toponimia taldeko kideek Degurixako bazterrak eta kontuak ezagutzeko irteera egingo dute bihar, zapatua, eta etzi, domeka. Elkartek antolatutako hamaikagarren ibilbide historikoa izango da, eta herritarrei eskainitakoa.

Bihar, Irabango aparkalekutik (Urkulu) abiatuko dira (10:00), eta, Degurixara iritsitakoan, Urzabalgo txabolan bazkalduko dute (13:00); bazkalostean, sei bat orduko ibilaldia egingo dute (15:00), eta gero, han afaldu (21:30).

Domekan, osteran, Oñatiko AMET espeleologia taldekoek gidatutako ibilaldia izango dute (09:30), eta han bazkaldu ostean (14:30) itzuliko dira etxera.

OHARRAK

Markeliñe eguaztenean

Kale antzerki zikloa bukatzeko, *Chef nature* lana eskainiko du Markeliñe konpainia ezagunak hilaren 24an, Herriko Plazan (19:00).

Bolo txapelketa

Muru Alde elkartek antolatuta, bolo txapelketa jokatu da uztailearen 28an (12:30). Bolatokia 11:00etan zabalduko dute eta izen-ematea 5 euro da.

Futbol campusa

Teknikazio campusa antolatu du UDAk irailerako (2tik 6ra), 2005 eta 2007 artean jaiotakoendako. Izena emateko: udakefutboleskola@gmail.com.



'GazteKonkis' zazpigarren edizioa hasi aurretik, hezitzaileak talde argazkian. IRATXE ARRESE

Irteera ugariren ostean, agur Udaero programari

Aretxabaletako eta Eskoriatzako gaztelekuetako nerabeak irteera eta ekintza ugari egiten izan dira, Udaero programaren baitan. Udako aisialdi eskaintza gaur amaituko dute, martitzenean hasitako 'Gaztekonkis' abenturaren azken egunarekin

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako eta Aretxabaletako gaztelekuak elkarlanean antolatuta, eta Arrasateko gazte txokoko kideekin batera, Udaero aisialdi programaren baitan aritu dira nerabeak uztailaren. Ekintza ugari egin dituzte, hainbat irteera, eta kirola izan dute ardatz. Besteak beste, surf ikastaroa Zarautzen, parrilada, inguru abentura Garaionen, hockey partida erraldoia, Urkulun ginkana... Denetarik izan dute uztailaren 4tik 12ra bitartean. Horrekin batera, *Gaztekonkis* abentura martitzenean hasi zuten, eta gaur emango diote bukaera.

Leire San Vicente eta Jone Ojea koordinatzaileen eta Iratxe Arrese, Jon Errasti, Amaia Isasmendi, Ainhoa Azarola eta Ainhoa Gallastegi hezitzaileen gidaritzapean, 30 nerabe inguru izan dira, Udaero programaren baitan, ekintzetan ondo pasatzen. Hasieratik gaztetxoaren parte-hartzea aktiboa izan dela eta

gustura aritu direla adierazi du Leire San Vicente koordinatzaileak: "Nerabeekin batera, asanbladak egin genituen hezitzaileok, denon artean Udaero programa osatzeko. Bi bloketan banatu genuen: gazte udalekuak, bate-tik, eta *Gaztekonkis* abentura, bestetik. Gazte udalekuetan 30 lagun inguru izan ditugu eta *Gaztekonkis*-en, berriz, 50 nerabe. Gaur amaituko dugu *Gaztekonkis*, eta aurtengoa zazpigarren edizioa izan da".

'Gaztekonkis' abentura

Gaztekonkis abentura lehiaketa Lexargaraten egin dute, beste urte batez. Murruxikoko eta Besaideko txaboletan izan dute kanpaleku nagusia, eta bertatik

ZAZPIGARREN URTEZ, 'GAZTEKONKIS' ABENTURA LEHIAKETA EGIN DUTE LEXARGARATEN

zenbait lekutara mugitu dira probak egitera. Martitzena ez-kero daude han, eta ederto pasatu dutela adierazi du Leire San Vicentek: "Taldeetan banatu ditugu, eta, talde bakoitzean kapitain bat izanda, erronka ugari pasa behar izan dituzte nerabeek pribilegioak lortzeko". *El conquistador del fin del mundo* ETB2ko saioan oinarrituta egon arren, helburua ez dela lehiatzea izan nabarmendu du San Vicentek: "Naturarekin konektatzea, euskaraz harre-mantzea eta deskonexioa izan ditugu ardatz, eta, helburuak beteta, balorazio positiboa egin dugu".

Feedback positiboa

"Beraien partetik jaso dugun feedbacka oso ona izan da hasiera-hasieratik. Programa prestatzeko garaian eta egin ditugun ekintza guztietan. Eguraldia ere lagun izan dugu, eta, orokorrean, Udaero programaren balorazio positiboa egiten dugu.



Olazar erretiratu elkartekoak Dorleta elkartearen afaltzen. PEDRO HERNANDO

80 urtetik gorakoek afaria egin dute Dorleta elkartearen

Abuztuan, urtero moduan, Donostiako Aste Nagusira joango dira Olazar elkarteko erretiratuak

I.B. ESKORIATZA

Eskoriatzako Olazar elkarteko kideek lasai hartuko dituzte uztaila eta abuztua. Izan ere, bi ekintza nagusi bakarrik prestatu dituzte. Pasa den egunean, esaterako, 80 urtetik gorako eskoriatzarren afaria izan zen Dorleta elkartearen.

Urtero egiten duten hitzordur, Olazar erretiratu elkarteko 49 kide joan ziren, eta, bapo afaltzeaz batera, sorpresak ere izan zituzten bertan batu ziren nagusienek. Izan ere, 101 urteko Pablo Gamboak eta Elena San Vicentek opari bana jaso zuten.

Donostiara jaietara

Abuztuan, berriz, irteera izango dute. Hain zuzen ere, Donostiako Aste Nagusira joango dira egun-pasa, eta, egunari amaiera emateko, hain gogoko dituzten su artifizialak ikusteko aprobe-txatuko dute.

Honekin batera, irailera begira, euskara ikasteko ikastaroa ireki dute. Bi mailatan banatuta, 180 orduko ikastaroa izango da; bi egun astean, eta bi ordu eguneko. Hala, interesdunek elkarteko bulegotik pasatu beharko dute informazioa jasotzera.



TXIRIKILA AISIALDI ELKARTEA

Martitzena heltzeko gogo gutxi

Martitzenean, hilaren 23an, amaituko dituzte Eskoriatzako Udalak eta Txirikila Aisialdi Elkartek elkarlanean antolatutako udaleku irekiak. Egun-pasak, jolasak, sukaldaritza tailerrak, uraren egunak, zikinen jolasak... denetik izan dira egiten herriko txikienak, herriko zenbait txokotan. Irteerak ere egin dituzte, eta ederto aritu direla adierazi dute hezitzaileek.

"Fisikoki prestatuta egotea ezinbestekoa da"

IOSU URZELAI SURVIVOR RACE LASTERKETAKO PARTE-HARTZAILEA

20 oztopo gogor zituen sei kilometroko ibilbidea egin zuten Eskoriatzako Urzelai anaiak, uztailaren 6an, Gasteizen jokaturako 'Survivor Race' lasterketan

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako Iosu, Asier eta Haritz Urzelai anaiak Gasteizen jokaturako Survivor Race lasterketan hartu zuten parte uztailaren 6an. Anai zaharrenak, Iosuk, beste biak animatuta. Kirol honetan, oztopoz jositako ibilbidea egin behar izaten dute parte-hartzaileek, eta lehenengoz hartu zuten parte hiru eskoriatzar gazteek. Lasterketan, guztira, 1.300 pertsonak hartu zuten parte, maila ezberdinetan banatuta. Eskoriatzarrek 20 oztopo zituen sei kilometroko bidea egin zuten.

Zer da Survivor Race?

Oztopo lasterketa bat da. Entrenamendu militarretan egiten dituzten bezalakoa. Survivor Race halako lasterketak egitera dedikatzen den enpresa bat da, baina beste hainbat ere badaude; Spartan Race delakoa da halakoetan ezagunena. Taldeka edo banaka egin daiteke lasterketa, eta, fisikoki prestatuta egotea exijitzen duen arren, festa giroa izaten da bertan nagusi.

Nolatan animatu zineten halako lasterketa batean parte hartzera?

Eskoriatzan San Pedro auzoko goiko parkean ariketa fisikoa egiteko gunea jarri zuten, Survivor Race moduko lasterketa bat egin nahi duenarentzat prestatzeko egokia den makineria duena. Hirurok aritzen gara bertan entrenatzen, eta hortik abiatuta otu zitzaigun lasterketan izen ematearen ideia. *El conquistador del fin del mundo* programa ere oso gustuko dugu: erronkak, sufritzea... eta hirurok, gainera, kirolariak izanda, taldean izena ematea pentsatu genuen.

Nolako probak gainditu behar izan zenituzten?

Eraztun batetik bestera, altueran, leku batetik bestera pasatzea, soka igotzea eta jaistea, edukiontzi handi batzuk igo eta



Iosu, Asier eta Haritz Urzelai anaiak Gasteizko Survivor Race-n. IOSU URZELAI

"OZTOPOZ BETETA DAGOEN LASTERKETA BAKARRIK EDO TALDEAN EGITEKO AUKERA DAGO"

lokatzetara jauzi egitea, arantadun alanbre azpitik pasatzea, gurpil pisutsuak mugitzea... Horiek ez badiuzu pasatzen, proba bat egin beharra daukazu -30 burpee, esaterako-. Gure kasuan, hiru partaide ginen. Hiruretako batek ez bazuen oztopoa gaintitzen, proba bat egin behar zuen, eta berak bakarrik edo guk lagunduta egin behar zuen. Hautazkoa da hori. Askotan, oztopoak baino gogorragoak izaten ziren probak.

Ekitaldirako ondo prestatuta egotea komeni, hainbeste oztopo jarrita, ezta?

Anoa-postuak oso ondo zeuden, jateko eta edateko askorekin, eta animazioa ezin hobea zen. Beroketa lanak egiterakoan, esaterako, musika jartzen zuten, eta baita partaideak urez busti ere, parte hartzeko prest zeuden urduritasunak kentzeko

aproposa izan zena. Horrekin batera, lokatzak ere protagonismo handia dauka halako lasterketan. Zikindu barik ezin da bukatu.

Halakoak ez dira ohikoak gurean, ezta?

AEBetan geroz eta gehiago ari dira egiten, eta Espainian ere indarra hartzen ari da. *Crossfit*-ak indarra hartu zuenetik, halako txapelketetan izen-emateek ere gora egin dute. Bertan egiten diren ariketa antzekoak egiten baitira halako txapelketetan eta. Guk lehen aldiz egin genuen, eta bailarako gutxi batzuk ikusi genituen bertan: Aretxabale-takoak, Arrasatekoak eta baita Oñatikoak ere, baina bakar batzuk soilik.

Emaitza ona lortu zenuten?

Disfrutatzen bakarrik joan ginen, zer zen ikustera, eta asko gustatu zitzaigun. Errepikatuko dugu, seguru. Horrekin batera, txandaka iritelen ginen, eta, gure multzoan 100 pertsona inguru baziren, 20. postuan geratu ginen, gutxi gorabehera. Sei kilometro egin genituen arteko sailkapen orokorrean, berriz, 800 partaide baziren, 120. postua-edo lortu genuen.

Balorazio onak jasota, datorren urterako jaiei begira

Datorren urtekoak hobetzeko, San Pedro jaiak baloratzeko bilera irekia izan zen martitzenean

I.B ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak San Pedro jaien gaineko balorazioa jasotzeko bilera irekia antolatu zuen, eta, martitzenean hainbat herritar batu ziren kultura etxean, egindako ekintzak komentatu eta datorren urtera begira zer hobetu daitekeen jasotzeko. Horrekin batera, udal webgunearen bitartez formulario bat betetzeko esteka zabaldu dute bilerara joan ezin izan zirenentzat. Guztira, 45 lagunek bete dute inkesta, eta, orokorrean, egitarauko ekintzak ondo baloratuak izan dira.

Puntu positibo moduan, jaiak asteburuan izanda jende asko gerturatu zela adierazi zuten, bandaren kontzertua ere oso ondo egon zela aipatu zuten... Hobetzekoen artean, berriz, herri eguneko bazkariari buelta bat eman beharra adierazi zuten, giro handiagoa egoteko, kuadrillen eguna indartzea ere aipatu zen...

Asteburuan egitea aztergai

Datorren urtean, domekan hasiko dira jaiak, eta sanpedroak asteburuan antolatzearen gaia ere irten zen mahai gainera.

Aire akrobazia ikastaroa izango da zapatuan

Zapatu honetan, aire akrobazia ikastaroa izango da Joseba Iñurategi frontoian dagoen gimnasioan. 11:00etan hasi eta 13:00etan amaituko da, eta prezioa 25 euro da.

Ikastaroa, Agurtzane Telleriak eskainiko du, eta hastapenekoak izango da. Hau da, huts-hutsetik hasiko dira bertaratzen direnak aire akrobazia egiten ikasten.

Hala ere, aurretik esperientzia duenarentzat ere badagoela aukera adierazi du Agurtzane Telleria irakasleak: "Hastapeneko ikastaroa izango da, baina, esperientziadunen bat badago, moldatuko dugu saioa. Elementu ezberdinak landuko ditugu goiz osoan: aroa, trapezioa, oihalak... eta behin oinarritzkoa ikasi ostean, saioa amaitzen dugunean koreografia bat ateratzea izango da asmoa, ikasitakoa praktikan jartzeko helburuarekin".

Madalenak ospatuko dituzte asteburuan Marin auzoan

Zapatuan auzo-afaria eta erromeria eta domekan meza eta luntxa izango dituzte, besteak beste

I.B ESKORIATZA

Marin auzoko bizilagunek Madalenak ospatuko dituzte asteburu honetan. Horretarako, zapatuak eta domekarako egitaraua prestatu dute, urteroko egitaraua jarraituz.

Zapatuan, 18:00etan, jaiei hasiera emateko, etxafuegoak jaurtiko dituzte, eta festa kanpaiak joko dituzte Arientza kanpai-jotzaile eskolakoek. 21:00etan, berriz, auzo-afaria izango dute Leixarrape elkartean. 20 lagun inguru batuko dira afaltzeko, eta menua honako hau izango

da: txistorra, urdaiazpikoa eta onddoz-kroketak hasteko, legatza gulekin ondoren, eta postre-rako, ijito-besoa esne-gain eta izozkiarekin. Honen ostean, afalostea girotzeko, 23:00etan, AZ Gaubelakoak izango dira musika jartzen. Erromerietako kantuak jarriko dituzte, auzotarrak dantzan jartzeko asmoz.

Domekan, berriz, meza izango da, urtero moduan, Santa Magdalena elizan. 11:30ean hasiko da, eta, amaitzean, luntxa izango da bertaratzen diren guztientzat.



Eskean Kristo taldeko musikariak emanaldi baten amaieran ikus-entzuleak agurtzen. ESKEAN KRISTO

Euskal rock-and-rolla, Eskean Kristoren eskutik

Arratiako musikariek kontzertua eskainiko dute gaur, 22:30ean, Gernika plazan. 2019ko Errekan Gora jaialdiko hirugarren ikuskizuna izango da, uztaileko azkena, eta irailean Pettik eskainiko duen emanaldiarekin itxiko dute aurtengo egitaraua

Imanol Beloki ESKORIATZA

Errekan Goraren 2019ko edizioaren barruan, bi ikuskizun izan dira dagoeneko: uztailaren 7an izandako Travelling Brothers taldea, batetik, eta Haatik Dantza Konpainiaren *Lau eme* izeneko dantza saioa, pasa den egubakoitzean, bestetik. Hori-ekin batera, uztaileko egitaraua ixteko, gaur, egubakoitza, Eskean Kristo taldearen kontzertua izango da Gernika plazan, 22:30ean.

Eskean Kristo 2011n Arratian sortutako rock-and-roll taldea da, eta, orduetik, osatzen duten musikarien artean zenbait joan-etorri eta aldaketa izan dituzten arren, gaur egun, Pello Artabe abeslariak, Alex Harillo eta Aritz Ontalvilla gitarra-joleak, Peio Artale baxu-joleak eta Manu Forte bateriak osatzen dute taldea. Bost disko dituzte, eta azkena 2018ko azaroan kaleratu zuten: *Beste Belaze Batzuen Gozoan* diskoa, hain zuzen ere. Hori horrela, azken laneko *Zal-*

diak Negarrez, *Zer Dabixu?* eta halako kantuak zein aurreko lanetako *Deabrua*, *Hona Gona Gori* eta *Madarikazioa* entzun ahal izango dituzte bertaratzen direnek. Oholtza gainean espektakulua eskaintzen dute, gainera, eta 70eko hamarkadako euskal rock estilo kutsua duten kantuez gozatu ahal izango dute ikus-entzuleek.

Niko Etxart erreferente

Niko Etxart musikaria erreferente ez ezik, maisu eta lagun dute Eskean Kristoek, eta harengatik jarri zioten *Azote kalduz* izeneko diskoari izen hori. Horrez gain, kantari zuberotarrari Altxurükün, bere jaioterrian, egindako etxekoan

eta lagunaren omenaldian, Eskean Kristoek Etxartekin batera oholtza konpartitu ahal izan zuten.

Inpresio onak antolakuntzatik

Orain arte izandako saioen balorazio positiboa egin dute antolatzaileek, eta herritarren erantzuna "oso ona" izaten ari dela adierazi du Atxorrotx Kultura Elkarteko Edorta Barandiaran kideak: "Eguraldia lagun izaten ari gara, beste urte batzuetan ez bezala. Gainera, izan ditugun ikuskizunen kalitatea izugarria izaten ari da. Inpresio oso onak jaso ditugu. Honekin batera, Goxo Txiki eta Urrestilla tabernei eta Iratzarri logopediari eskerrak eman nahi dizkiegu. Gaur, berriz, rock taldea izango dugu, eta ea bikain irteten den, gu gogoz gaude ikus-teko...".

Oporren ostean, irailaren 14an, azken saioa izango da: 22:30ean, Petti musikari beratarra izango da Emakumeen plazan.

ERREKAN GORA JAIALDIAREN BARRUAN, UZTAILEKO AZKEN SAIOA GAUR, GERNIKA PLAZAN

LEINTZ GATZAGA 23



Bakarrizketa saioaren ostean, bertaratutakoen talde argazkia. AINHOA BARANDIARAN

Sexualitatea hizpide eta umorea nagusi, kultura etxeko saioan

Pasa den egunean izandako 'Alu-Ulu' antzerki forora Leintz Gatzagako 19 emakume gerturatu ziren

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Pasa den egunean, hilaren 11n, Arremanitz kooperatibak eskainita, emakumeei zuzendutako *Alu-Ulu* antzerki foroa izan zen Gatzagako kultura etxean. Harrera oso ona izan zuen, eta ikuskizunean 19 emakume izan ziren.

Bakarrizketa izan zuten lehenbizi. Emakumeen sexualitatea umoretik kontatu zuten, onarpenetik, plazeretik, bertaratzen direnei plazaratuz. Hala, sexualitatearen gaia ardatz izan bazuten ere, parekidetasuna, hezikidetzeta eta tratatu onak ere izan

zituzten hizpide. Horren ostean, bertaratu zirenek bakarrizketan entzundakoez hausnartzeko aukera ere izan zuten.

Balorazio positiboa

"Bertan izan ginen guztiok oso ondo pasatu genuen. Saioa eskaini zutenek ekintza batzuz zituzten antolatuta, baina naturaltasunez irteten zuten gure arteko elkarbizketa. Borobilean elkartuta, konfiantzazko giroa izan zen. Denetik hitz egin genuen, adin ezberdineko jendea geunden han eta...", adierazi du Ainhoa Barandiaran herritarrak.



MIREN ZUBILLAGA

Bukatu dituzte udalekuak

Irteeren astea izan dute aste honetan udaleku irekietan izan diren haurrek. Atzo, Dorleta santutegian pasa zuten gaua, eta bikain ibili dira. Azkeneko egunak ondo aprobetxatu dituzte, baina agur esateko unea iritsi zaie. Izan ere, gaur eguerdian amaituko dituzte Gatzagako txikienek bertako udalekuak.



EH Bilduko Aitor Arantzabal, Gorka Artola, Ainhoa Lete eta Ekaitz Aranberri, udaletxean, eguazteneko agerraldian. GOIATZ ARANA

Herritarrek nola mugitzen diren zehatz jakin artean, aparkaleku berririk ez

Gobernuak zirriborro fasean dagoen mugikortasun diagnostikoa Miguel Altuna berriak irailaren 1etik aurrera eragingo duen aldaketekin osatu nahi du; negurako Mugikortasun Plana gertu izatea espero dute, eta horren arabera parking beharrari irtenbidea eman

Jokin Bereziartua BERGARA

Udal Gobernu berriak ez du aparkalekurik eraikiko seminarioko patioan, Mugikortasun Plana eginda izan arte. Aukera ezberdinak aztertuko dira ezer eraikitzen hasi aurretik. "2017ko aurrekontuetan, aparkalekuen inguruko azterketaren emaitzak izan gabe eta mugikortasun plana esku artean izan gabe hartu zen seminarioko lur azpiko aparkalekuarekin aurrera egiteko erabakia. Bestelako aukerak ere ez ziren aztertu", esan zuen Gorka Artola alkateak erabakiaren berri emateko eguaztenean egindako prentsa agerraldian.

Gaineratu zuen aparkalekuen azterketaren eta mugikortasun planaren emaitzak jasotzen dituen dokumentuak izan gabe ezin dutela halako erabakirik hartu: "Tamaina horretako proiektuetan ziurtasun maila

osoa behar da, eta bi dokumentu horiek esku artean izatea ezinbesteko baldintza".

Miguel Altuna berriaren eragina

Hori horrela, martxan zegoen esleipen prozesua etetea erabaki du Gobernuak: "Horrek ez du esan nahi aparkaleku beharrei irtenbidea emateko pausoak bertan behera gelditzen direnik". Bide horretan, datozen hilabeteetan jarraituko duten plangintzaren berri eman zuten. Batetik, aparkaleku beharraren errealtate berrira egokituko dute; izan ere, irailaren 1etik aurrera mar-

txan egongo den Miguel Altuna Lanbide Heziketaren egoitza berriak aldaketak eragingo ditu herri barruko mugimenduetan. Horrez gain, aparkaleku aukerak aztertuko dituzte, mugikortasun diagnostikoa osatuko dute eta mugikortasun plan berria garatzen hasi. "Hain zuzen, gure asmoa da etorkizuneko pausoak herritarrekin eta oposizioarekin batera ematea".

Aurreko Gobernuaren proiektua

Eguaztenean publiko egindako erabakiarekin, aurreko Gobernuaren "proiektu izarra" zena eten egingo da. EH Bilduk EAJ-ri esan izan zion agintaldian zehar proiektuak azterketa sakonagoa behar zuela; hauteskunde ostean Elena Lete alkate ohiak esan zuenez, parkinga lehenbailehen ez egitea galera izango litzateke Bergararentzat.


ARTOLA: "TAMAINA HORRETAKO PROIEKTUETAN ZIURTASUN MAILA OSOA BEHAR DA"

"Merkatarion artean ez dago iritzi bakarra"

MAITANE AZKARATE
BEDELKAR-EKO PRESIDENTEA

Nola ikusten duzue oraingoz proiektua eten izana?

Atzo [astelehena] egon ginen alkatearekin eta esan zigun ez daudela proiektuaren kontra, baina uste dutela azterketa sakonagoa behar duela. Aparkaleku beharra oso nabarmena da eta komeni zaigu aparkaleku berri bat, horretan denok gaude ados. Baina parkinga non eta nola? Gure artean ez dago iritzi bakarra, baina denbora aurrera doa...



M.A.

Denbora kontra duzue, ala?

Urteak aurrera doaz eta arazoa handitzen doa, dendak ixten ari dira. Uda honetan bertan bi denda itxiko dituzte lbargarain. Internet, alokairu garestiak... Egoera oso zaila da guretzat. **Zer esan zenuten bileran?** Esan genuen halako proiektuak ezin direla egon Gobernuaren kolorearen menpe. Hori ekiditeko, alkateak esan zuen epe luzerako plan estrategikoa garatzea nahi dutela.

"Ea azterketak ze emaitza ematen dituen"

LARRAITZ URIBESALGO
'PATIXUAN APARKALEKURIK EZI'

Seminarioan parkingik ez egiteko aritu zarete lanean. Nola hartu duzue oraingo Gobernuaren erabakia?

Erabakia ez da berria guretzat, baina pozik hartu dugu. Hori zen gure eskaera nagusia, ezer eraiki aurretik azterketa sakonagoa egitea. Esleipena eten izana eskertu genuen, eta orain ikusi egin beharko da mugikortasun plan hori noiz eta nola garatzen den, eta, bereziki, ze emaitza ematen dituen.



A.T.

Mugikortasun plan horretan parte hartzea gustatuko litzazueke?

Gobernuaren partetik jaso dugu parte hartzeko gonbidapena. Aurreratu digute euren asmoa dela saio irekia egitea eta esan digute bertan gu ere egotea gustatuko litzazuekeela. Esleipena eteteko lanean aritu ginen; tartean, sinadurak ere batu genituen [1.703 sinadura, hain zuzen], baina ordutik ez dugu ezer berririk egin.

Kolektore berrirako lan batzuk, egiteke

Aste Santu aurretik hasitako ur kanalizaziorako lanak ez dira erabat bukatu oraindik. Uztailean eta abuztu hasieran lanean jarraituko dute, baina obra guztia ez dute opor sasoian amaituko. Alkatearen arabera, irailean lan batzuk egin beharko dira Telefonikaren eraikinaren inguruan, Herrilagunak kalean. "Lanik zailenak abuztuan egiten saiatuko gara, ahalik eta afekzio gutxien eragiteko ikasturte hasieran". Mugikortasun diagnostikoari dagokionez, zirriborroa eginda dago, baina Miguel Altuna berriak izango duen eragina islatuta geratzea nahiko lukete, aparkalekuen beharra zenbatekoa den berrikusteko. "Diagnostikoa irailean ixtea espero dugu; urrirako, beranduenez, mugikortasun planerako kontratazioa egin; eta negurako plana bukatuta izatea", gaineratu zuen Artolak.



Ekain Zubizarreta auzipetu arrasatearra eta Aiert Larrarte abokatua –auzipetua hori ere–, Irizarren emandako hitzaldian. A. A.

"Lan publiko eta gardena egitea epaituko dute"

Irailaren 16an hasi eta azaroaren 23an amaituko den 11/13 epaiketa salatzen diharduen '47ak Herrian' dinamika dio "kalte handia" eragingo duela auziak: "Gastu ekonomikoaz gain, zigor eskaerek norberarengan eta ingurukoengan sortzen duten kezka dago"

Jokin Bereziartua BERGARA

2012tik 2015era arte euskal preso eskubideen defentsan lanean aritutako 47 euskal herritarren aurkako epaiketaren nondik norakoak azaltzeko, hitzaldia izan zen martitzen arratsaldean Irizar jauregian. Ekain Zubizarreta auzipetu arrasatearra eta Aiert Larrarte abokatua –auziperatueto bat da azken hau ere– izan ziren hitzaldia ematen; 20 bat lagun elkartu ziren. Herriko Gure Artera-Sare elkarte-kideek antolatu zuten saioa, 47ak Herrian dinamika berruan kokatzen dena.

Martitzeneko hitzaldiko antolatzaileek salatu dute "lan publiko eta gardena" egiteagatik

epaituko dituztela 47 euskal herritarrek: "Guztiak ere preso eskubideen defentsan aritutako pertsonak dira, lan publiko eta gardena egin dutenak: manifestazioak, agerraldiak, elkartasun dinamika eta alderdiekin eta eragileekin bilerak, besteak beste". Hitzaldiaren antolatzaileek aditzera eman dutenez, gatazkaren konponbideari eta bakeari atea ireki nahi zitzaion tesuinguru batean izan ziren atxilotutako pertsonak prozesu hori bultzatzeko lanean ari ziren. Euskal preso eta iheslarien oinarritzko eskubideen aldeko lana eginez, guztien etxeratzearen aldeko indarrak biltzea zen euren helburua.

28 adin txikikoren kargu

11/13 auzia Madrilén izango da, irailaren 16tik azaroaren 28ra, eta epaiketak iraun bitartean auzipetu guztiek han egon beharko dute. Abokatuak, bidaiak, Madrilgo egonaldia, lekukoen gastuak eta bestelakoak kalkulatu, epaiketak 350.000 euroko gastua ekarriko duela kalkulatu dute 47ak Herrian dinamika. "Horrez gain, ondorio pertsonalak daude; hau da, epaiketak eta espetxe zigor eskaerek eragiten duten kezka eta estresa norberarengan zein ingurukoengan. Adibidez, hainbat familiaren egunerokoan etenaldi nabarmena eragingo du eta lanarekin konziliatzeko arazoak ere egongo

Akusazioak eta eskariak

11/13 auzian epaituko dituzten euskal herritarrei erakunde terroristan parte hartzea, terrorismoa goratzea –hiru laguni– eta terrorismoa finantzatzea leporatzen diete. 47 euskal herritar horientzat fiskaltzak eskatu duen espetxe-zigor eskaerak batuta, 601 urte dira, guztira; eta isunak, 4.000 eta 10.000 euro artekoak. Horrez gain, Madrilén izango den epaiketaren gastu totala 350.000 euro ingurukoa dela kalkulatu dute 47ak Herrian ekimenekoek.

dira". Izan ere, epaituko dituzten 47 herritarrek 38 adin txikiko dituzte euren kargura, eta honako hau diote komunikabideetara bidalitako oharrean: "Gu espetxeratzeak esan nahiko luke beste 38 ume sartzea dispartzioaren gorpulean. Epaiketak eta bere ondorioek haurrengan sortu dezaketen estresa eta ezinegonak asko kezkatzen gaitu, are gehiago espetxera joango bagina".

Elkartzeko eta jarduteko deia

Bestalde, martitzeneko hitzaldian azpimarratu zuten, "ezinbestekoa" izango da herritar bezala elkartzea: "Ez da 47 herritarren askatasuna bakarrik, preso eskubideen defentsaren eta elkartasunaren zilegitasuna ere badago jokoan. Antolatzeko, jarduteko eta askatasunez adierazteko eskubidea dugu".

OHARRAK

Biztanleen arreta

Uztailaren 1etik irailaren 13ra ordutegia izango da 07:30etik 14:30era artekoa. Udalak herritarrei gomendatu die ez joateko 10:00etatik 13:00etara, jende pilaketa dela eta.

Udako postal lehiaketa

Postalak euskaraz idatzita entregatu behar dira irailaren 16a baino lehen. Saria izango da 100 euroko bonua: 943 76 36 61 / 605 71 24 69.

Udalaren egutegia

Irailaren 25a baino lehen entregatu beharko dira 2020ko egutegirako argazkiak, Euskara Zerbitzuan: euskara@bergara.eus.

Irakurketa feminista

Martxantere gomendatu dute udako irakurketarako liburua izatea Bell Hooks-en *El feminismo es para todo el mundo*. Irailaren 11n izango da foro feminista, gaztetxean, 18:30etik 20:00etara.

Udal Gida berri dute eta eskuragarri dago hainbat lekutan

Udal Gida berrituan jasota daude herriko planoa, elkarte eta negozioen kontaktuak, eta herritarrek zein bisitariek udalerrian ikusi beharrekoak, besteak beste; eskuragarri dago udal-txetan, liburutegian, Laboratoriumen, Agorrosinen eta Labe-garaietan. Gida eguneratu egin dute, eta bisitariei begirako ekarpen gehiago txertatu.

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

TELEIXA
BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegarieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

Udalaz eta publizitateaz gain, itsulapiko komunak

Atzo hasi eta domekara bitartean, jaiak izango dira Santa Marinaran eta aurreten nobedade nagusia ez dago egitarauan, festak antolatzeke finantzaketa lortzeko moduan baizik; lehen aldiz, itsulapikoak jarri dituzte tabernetan, bizilagunen ohiko ekarpenei begira

Jokin Bereziartua BERGARA

Atzo hasi zituzten Santa Marinako jaiak eta domekara bitartean ez da aspertzeko astirik izango. Aurreten, nobedade aipagarri bat izan da jaiak finantzatzeko orduan. Udalaren ohiko dirulaguntzaz eta komertzioen publizitatetik lortutako diruaz gain, bizilagunei ekarpenak eskatu izan zaizkie Santa Marinako jaiak antolatzeke. Orain arte, etxez etxe gutun-azalak banatzen ziren, eta gero, jai batzordeko kide bat joaten zen etxe horietara gutun-azalak jasotzera; hori lan nekagarria zenez, aurreten, itsulapikoak jarri dituzte auzoko tabernetan.



Zapatuko urdaiazpiko dastatzeak ziur erakarriko duela jendea aurreten ere. GOIENA

Santa Marinako jaietako egitaraua

Atzo ospatu zuten jaietako lehen eguna; ekitaldien artean, besteak beste, Aritzeta abesbatzak kontzertua eskaini zuen elizan.

Egubakoitza, uztailak 19

- **19:00** Trikitilariak alaitutako pintxo-potea tabernetan.
- **20:00** DJ Alkate Matxiategi tabernetan.
- **23:00** Dominguez Mariatxien eskutik, kantaldia Etxalar tabernetan.

Zapatua, uztailak 20

- **10:00** Ezkonduen eta ezkongabeen arteko futbol partidua. Ondoren, luntxa egingo dute erretiratuen egoitzan.
- **13:00** Hotel Ruido taldearen kontzertua, urdaiazpiko ebakitzaila eta Soraluzeko Egotza baserriko gazta dastatzea Etxalar tabernetan. Ondoren, Matxiategi tabernetan sagardotegi-menua bazkaltzeko aukera egongo da, enkarguz: 943 76 11 86.
- **16:00** Poker txapelketa Kayak tabernetan eta mus txapelketa Matxiategi tabernetan.
- **17:30** Boloak, toka, igela eta billar txapelketak erretiratuen egoitzan. Izena eman behar da ordu erdi lehenago.
- **18:00** Umeendako jolasak Etxalar tabernetan.
- **20:00** DJ Pop Kayak eta K2 tabernetan.
- **20:30** Autumn kantautorearen kontzertua Matxiategi tabernetan.
- **23:00** Sukar taldearekin dantzaldia Matxiategin.

Domeka, uztailak 21

- **13:00** Nazioarteko mariatxien kantaldia Matxiategin; Mexikoko musika tradizionala eskainiko dute.
- **13:00** Musikaz girotutako parillada Etxalar tabernetan.
- **16:30** Umeendako jolasak: apar festa eta piñata.

'MILA ESKEK ETA GERO ARTE ALFREDO' KONTZERTUA

GOIENA TELEBISTA

UZTAILAREN 20AN, ZAPATUAN, 16:00ETAN ETA 21:15EAN
UZTAILAREN 21EAN, DOMEKAN, 12:00ETAN ETA 22:00ETAN
BERGARAKO ORKESTRA SINFONIKOA, BERGARAKO MUSIKA BANDA,
BERGARAKO ORFEOIA, ARITZETA ABESBATZA, ORFEOI GAZTEA ETA
BERGARAKO MUSIKA ESKOLAKO HAURREN ABESBATZA

goiena[™]
Zu hemen zaude.



Lakuan eta Iruñean, bietan irabazi Bergarak

PILOTA Gasteizko eta sanferminetako torneoak irabazi ditu asteburuan Arrate Bergarak: "Labriteko finala sekulakoa izan zen; urduri hasi genuen norgehiagoka baina buelta eman genion. Gainera, gutxiatik ez ginen finaletik kanpo geratu"

Xabier Urzelai BERGARA

Joan den egubakoitzean Lakuan irabazitako txapelak ez zion Arrate Bergarari (Bergara, 2001) domekako sanferminetako torneoak final handirako indarrik xahutu: "Banuen ardura hori, egubakoitzeko finala buruz burukoa izan zelako, eta, norma-lean, partidu horiek fisikoki oso gogorak izaten dira. Horretan larregi ez pentsatzen saiatu nintzen".

Hitzordu handia, baina, domekakoa zen: "Zalantza barik, sanferminetako torneoak da oihartzun mediatiko handiena duena, eta oso pozik nago txapelketa irabazi izanagatik, asteburu boro-bila izan da". Txapelketan, Bergarak Agorretarekin batera osatu du bikotea, eta 18 urtez azpiko finalean 15-22 nagusitu ziren Salbideren eta Ruiz de Larramendiren aurka. Partida 7-0 galtzen joan arren, markagailua irauli eta txapela jantzi zuen jatorri tuterarra duen Arrate Bergarak: "Ez zen norgehiagoka batere erraza izan, urduri hasi ginelako eta markagailuan aurrera egin zutelako. Baina, zorionez, egoerari buelta emateko gauza izan ginen. Egia esan, pentsatzen hasita, finalera ere txiripaz iritsi ginen, finalerdietako norgehiagoka ere



Arrate Bergara –ezkerrean– eta Agorreta bikotekidea txapelarekin. E.M.C

"LAKUAKO FINALAK IZAN ZEZAKEEN ORDAINEAN EZ PENTSATZEN SAIATU NINTZEN"

justu-justu irabazi genuelako. Zaila izan da torneoak, bai".

Debagoienekoak protagonista Emakumezkoen pilotaren iraultza, neurri handian, Emakume Master Cup txapelketaren esku-

tik etorri da. Bergarak promozio txapelketa irabazi ostean azken urteak lehenengo mailakoekin jokatu du: "Eta hor zailagoa da nabarmentzea, pilotari onenak daudelako". Hala, aurtun Oñatiko bi gazte izan dira protagonistak, promozio mailan txapelketa irabazi duten Uxue Osés eta Maddalen Etxegarai: "Eta oso harro gaude oñatiarrek egin dutenarekin, sekulakoa izan da".

Datozen bi asteetan bergararrak atsedean hartuko du: "Eta ondoren, Garfeko txapelketan hartuko dut esku".

Ipintzako udako torneoko finalak jokatuko dituzte gaur

FUTBOLA Bestalde, hilaren 27an seminarioan jokatuko duten SemiCup-en izena emateko azken eguna da gaur

X.U. BERGARA

Martitzenean jokatu zituzten Udako Ipintzako futbol txapelketako finalerdiak. Poteo Izarrak taldeak 2-0 irabazi zion Langostasi eta Txinpartak taldeak 1-0 hartu zuen mendean Ezdakiu. Hala, gaur, egubakoitza, 19:30ean, bi talde horiek izango dira Ipintzako berdegunean zein baino zein gehiago. Kopari dagokionez, ligako finalaren aurretik, 18:30ean, MFK eta Bilbo FT taldeak izango dira Ipintzako berdegunean, kopako finala jokatuko gertu.

SemiCup, abian

Bestalde, antolatzaileek dagoneko gertu dute SemiCup txapelketaren 6. edizioa. Uztailaren 27an jokatuko dute eta gaur da izena emateko azken eguna. Ohi bezala, torneoak egun osokoa izango da. Izena emateko, derri-gorrezkoa da 16 urtetik gorakoa izatea –2003an jaiotakoak barne– eta jokalaria bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu –kamiseta oparituko diete denei–. Taldearen izenean egin behar da diru-sarrera, hemen: ES90 3035 0009 18 0090099506.

Maddi Barrocal, Portugalera

Uztailaren 22tik 26ra, Portugalen junior mailako pilotarien txapelketa egingo dute, eta BKEko ordezkari Maddi Barrocal pilotaria 15 urtez azpikoaren kategorian lehiatuko da.

Bergarako pilotariak hainbat txapelketa irabazi ditu aurtun, baina sari handienetako bat Portugalen euskal selekzioa ordezkatzeko izango da, seguru.



BKE

Geroago eta zale gehiagoren aurrean

"Ez zen lehenengo aldia halako final bat jokatzen nuena: duela bi urte, Emakume Master Cup irabazi nuen, bigarren mailan, eta orduan ere jende asko egon zen Zornotzako frontoian. Eta iaz, sanferminetako torneoan hirugarren eta laugarren postuagatik lehiatu nintzen, baina aurtengoa finala izan da. Bistan dago zerbait badabilela aldatzen, eta hori ona da".



Bergarako kuadrillakoen babesa izan du Arrate Bergarak Iruñean.



POL-POL

Pol-Polekoak, Iparraldean

Pol-Poleko beteranoek Iparraldean egindako mendi zeharkaldiko tarte batean egindako argazkia. Bankatik Baigorriarainoko mendi buelta egin zuten, eta, tartean, Autzatik pasa ziren. Abuztuan, mendi elkarteko lagunek atsedean hartuko dute, baina irailean etorriko dira beste proposamen batekin, irailaren 7an eta 8an Jacara joango dira eta.

Liburuak "askatu", irakurri eta oparitu

Kartzela zaharreko Angiolillo liburutegiak hainbat liburu jarri ditu kalean, jendearen esku; izan ere, euren helburua da jendeak emandakoa herriari itzultzea. Esperimentuak harrera ona izan du eta irailean ekimenarekin jarraitu nahi dute

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA
Angiolillo liburutegiak kalera atera ditu liburuak, herriak emandakoa herriari itzultzeko filosofia oinarri hartuta. Joan zen aste bukaeran utzi zituzten hainbat liburu herriko hiru toki ezberdinetan: Irala kalean, Espoloian eta igerilekuan. Hala, esperientzia "positibotzat" jo dute kartzela zaharreko liburutegiko lagunek.

"Lagun baten ideia izan zen; hainbat liburu ditugu errepikatuta liburutegian, eta erabaki genuen kalera ateratzea. Kaxa batean utzi, leku batean, jendeak har ditzan", azaldu du Aser Polvorosak. Denetarikoa liburuak dituztela dio, baina egun hauek kalera atera dituztenak irakurketa errazekoak izan direla, garaia kontuan hartuta jendeak samur irakur dezan. Bestalde, deskatalogatuta dauden liburuak ere badituztela gaineratu du.

Irakurri eta oparitu

Esperimentu moduko bat izan dela dio. Jarritako baldintza bakarra izan da: "Jendeak liburua har dezala, eta irakurri ondoren beste norbaiti oparitzea". 50 bat liburu "askatu" dituztela dio: "*Zalacaín el aventurero*, Pio Barojarena, *La Celestina* -bost bat liburu genituen-... esperimientua izateko, nahiko ondo atera da. Egia da leku batzuetan gehiago kosta dela jendeak liburuak hartzea; baina igerilekuan, adibidez, oso harrera ona izan zuten. 11:00etan jarri genituen eta 18:00etan ez zegoen libururik", dio. Liburutegian jarri zituzten liburuak, gainera, euskarazkoak izan ziren: 25 liburu jarri zituzten eta lau bakarrik ziren gazteleraazkoak.

Irailean ekimena berriro ere errepikatzeko asmoa dute.

Liburuak, irakurtzeko dira

Angiolillo liburutegian liburu asko dituzte; horietako batzuk,



Liburuak, Agorrosingo atean. ANGIOLILLO LIBURUTEGIA

IRAILEAN HASIKO DEN IKASTURTEAN, LIBURUTEGIAREN 10. URTEURRENA OSPATUKO DUTE

espezializatutako liburuak, eta, Polvorosak azaldu duen moduan, liburu "oso onak" dituzte. Horren harira, zera dio: "Batzuendako oso liburu onak ditugu; baina nik diot, hemen geldi egonez gero, hautsa hartzen dute. Liburu on batek ez du ezertarako balio inork irakurtzen ez baldin badu". Liburutegian dituzten liburu gehienak jendeak emandakoak dira: "Angiolillo liburutegia egin zenetik, guk oso liburu gutxi erosi ditugu, politika arlokoak, espezializatuak bakarrik". Dituzten liburuen %15 dela dio eurek erositakoak. "Beste guztiak jendeak emandakoak dira, eta hori bueltatu egin behar da". Horregatik, ekimenarekin jarraitzeko asmoa azaldu dute arduradunek, eta ideietako bat da PESAn uztea liburuak, noraino bidaia dezaketen ikusteko.

10. urteurrena

Gainera, irailean hasiko den ikasturte berriarekin batera, liburutegiaren 10. urteurrena ospatuko dute; horregatik, ekin-tza ezberdinak egin gura dituzte: "Batez ere, auzoetara joateko asmoa dugu, ez dugu zentralitatean jausi gura. Auzoetan liburu aurkezpenak edo hitzaldiak eskaini ditzakegu". Gaineratu du 10 urte hauetan 60 bat liburu aurkezpen egin dituztela.

Hala, urteurren hori ospatzeko, hainbat hitzaldi antolatu gura dituzte. Horietako bat idazle eta Madrilgo Unibertsitate Autonomoko irakasle Carlos Taiborekin izango da -M15eko mugimendukoa; eta Iglesiasen eta Echeniqueren irakasle izandakoa-.

Ateak zabalik dituen liburutegia

Angiolillo liburutegia zabalik egoten da gaztetxea zabalik da goen ordutegian. Edonork du aukera hara joan eta liburu bat hartzeko: paper batean norberaren izena, hartutako liburua-ren titulua eta noiz hartu den idatzi besterik ez da egin behar. Liburuak noiz itzultzen den ere apuntatu behar da.

Europa mailan erreferente den A Contrablues taldea Espoloian

Berumuga zikloaren barruan, emanaldia eskainiko dute gaur, 22:00etan; 'Heart and guts' lana aurkeztuko dute

A.E. BERGARA

A Contrablues taldea Europa mailako banda onenetakoa da; blues musikari dagokionez, behintzat. Horren erakusle da 2014ko *European Blues Challenge*-n lortu zuten garaikurra. Hala, euren musikaz gozatzeko aukera egongo da, Berumuga zikloaren barruan, gaur, barikua, 22:00etan.

Orain dela 12 urte hasi zuten musika ibilbidea, eta, ordutik, zazpiehundik gora emanaldi egin eta sei lan diskografiko argitaratu dituzte. Bartzelonako

kaleetan hasi ziren jotzen, eta handik beste hainbat agertokitar egin dute salto. Europako jaialdi handienetan izan dira.

Heart and guts euren seigarren lana aurkeztera etorriko dira Espoloira. Bizitasuna, ausardia eta konpromisoa erakutsi dute, beste behin ere, lan berriarekin. Hamabi kantu jasotzen ditu diskoak: beldurrik eta lotura estilistikorik gabe sortuak. Taula gainean izango dira Alberto Noel, Hector Martin, Joan Vigo, Nuria Perich eta Jonathan Herrero taldekideak.



AMAJA ZABALA

Luxuzko entsegu irekia

Euskadiko Orkestrako, Bilboko Orkestrako eta beste orkestra batzuetako kidez osatutako Euskadi Brass taldeak Bergarako Bandako entsegu gelan entseatu zuen astelehenean. Andoni Moñux tuba jole bergararra eta Alberto Urretxo tronboi jole arrasatearra taldeko kide dira, eta, hain zuzen, Moñuxen bitartez izan ziren Bergaran. Entsegu irekia izan zen.

Musika Bandak kontzertua eskainiko du domekan

Santa Marinako jaien barruan, kontzertua eskainiko du Musika Bandak domekan, pilotalekuan. *Clarín de fiestas*, *Discovery Fantasy*, *Los Euskaros*, *Caribbean Concerto* eta *Elkartasuna* obrak eskainiko dituzte. Nabarmendu behar da Enrike Txurruka zuzendari moduan estreinatuko dela asteburuan. Emanaldiaren aurretik, kalejira egingo dute.

Arantza Baskaranen margolanak ikusgai egongo dira Aroztegin

Abuztuaren 2tik irailaren 8ra bitartean izango ditu Arantza Baskaran arrasatearrak margolanak Aroztegin. *Pintura abstractua* du izena erakusketak; bat-bateko pintura da, zirriborrerik eta alde zurreko planik gabea. "Koloreak eta formak laguntzen didate nire buruan sentitzen eta ikusten dudana adierazten", dio Baskaranek.



11 BIDER 1.000 ESKER!

GOIENA TELEBISTAK 11.000 IKUS-ENTZULE DITU GIPUZKOAN ETA 6.000 DEBAGOIENEAN, EGUNERO, CIES AUDIENTZIEN NEURKETA-ETXEA EMANDAKO DATUEN ARABERA.

ESKUALDEKO HIRUGARREN TELEBISTARIK IKUSIENA DA, ETB2REN (17.000) ETA ETB1EN (8.000) ONDOREN.

GAINERA, DEBAGOIENEAN, HAMAR HEDABIDE JARRAITUENEN ARTEAN DAGO GOIENA:

1: GOIENA ALDIZKARIA: 30.000 IRAKURLE ASTERO.

8: GOIENA.EUS: 7.000 BISITARI BAKAR EGUNERO.

9: GOIENA TELEBISTA: 11.000 IKUS-ENTZULE EGUNERO.

HORREGATIK GUZTIAGATIK, 11 BIDER 1.000 ESKER!

goiena

Zu hemen zaude.



Lehen autobusetako bat, marmitak gainean dituela. OLABARRIA SENDIA



Victor eta Eugenio Olabarria —buzoak soinean— lagun artean. OLABARRIA SENDIA



Elgetako autobusa, duela 62 urte, Eibarko futbol taldearendako lanean. O. SENDIA

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

"Beste bizimodu bat zen", diote Leon Olabarriak abiarazitako autobus zerbitzua gogoan duten elgetarrek. Dena den, Leon baino gehiago gogoratzen dituzte Candido, Eugenio eta Victor. Aitaren ogibidea hartu zuten hirurek, eta makina bat zerbitzu emandakoak dira.

"Kamioi bat hartu eta autobus bihurtu zuen Leonek", azaltzen du Roberto Basauri *Lapurdi-k*. "Zati bat merkantziak eta pake-teak sartzeko utzi zuen eta beste zatian bidaiariendako eserlekuak ipini zituen". Gipuzkoako lehenetarikoa izan zela uste dute familiakoek.

Bizimodua ateratzeko modua ikusi zuen, nonbait, Olabarriak, eta autorik ez zegoen garai batean garraiolaria lanak egiten hasi zen. "Autobus bakoitzak bere izena zuen", gogoratzen du Basaurik. "Gogoan dut bati *Amama* esaten geniola. Ume guztioi atzeko aldean joatea gustatzen zitzaigun, haren magalean joatea bezala zen. Gogoan dut, baita ere, beste autobus bati *Pájaro blanco* esaten geniola. Ez dakit zergatik. Urdina zela uste dut, marra zuri batekin".

Esne-marmitak autobus gainean

35 bat urte dira Elgeta eta Eibar lotzen zituen Olabarria autobus zerbitzua desagertu zela. Garraio modu bakarrenetarikoa izan zen urteetan, eta premiazkoa herritar askorendako. Bidaiariak, botikak, esneak eta Correosko paketeak garraiatzen zituen

Leon Olabarriak martxan jarritako zeregina seme-alaben esku gelditu zen gerora. Eugeniok hartu zuen Elgeta-Eibar linearen segida, eta erretiroa hartzeko unera arte eman zuen zerbitzua. Candido eta Victor, berriz, irteerak eta bestelako lanak egiten hasi ziren.

Gaur egun, oraindik ere, autobus gidari lanetan jarraitzen du Josean Olabarriak. Leon Olabarriaren biloba eta Eugenio Olabarriaren semea da. Hirugarren belaunaldia, beraz. Laster omen dator kio erretiroa hartze-

ko unea. Eibar futbol taldearen autobus gidaria da, oraindik ere, besteak beste.

Egunero bi joan-etorri, gutxienez Elgeta-Eibar zerbitzuak bi joan-etorri egiten zituen egunean; goizez bidaia bat eta arratsalde bestea bat. Eibarrerako joera handia zegoen orduan Elgetan. Lanera, ikastera edo salerosketak egitera jaisten ziren, batez ere, herritarrek. Autobusa Artekaleko garajearen egoten zen eta familiak San Roke kalean zuen etxea zen zerbitzuaren

abialekua. "Baserritarrek bertara ekartzen zituzten marmitak goizean goiz. Autobusaren gainean joaten ziren Eibarrera esnez beteta", dio Josean Olabarriak. "Hutsik bueltatzen ziren, edo, enkargurik bazegoen, eskatutakoarekin beteta".

Urtean bi jaiegun besterik ez omen zuen hartzen Eugenio Olabarriak, eta biak Gabonetan. "Gabon eguna eta Urteberri eguna izaten ziren", gogoratzen du Josean Olabarriak.

Maria Irene Olabarriak ere ondo gogoan ditu urte haiek.

Eugenio Olabarriaren alaba eta Joseanen arreba da. "Linearen azken geralekua Eibarko tren geltokia zen. Igotzeko ordua heldu bitartean, han egoten zen gure autobusa. Aitak, bitartean, jasotako enkarguak egiten zituen: farmaziako enkarguak, Correoskoak... Gure aita bizi guztian egon da han: autobusa bere aparkalekuan, eta aita inguruan". Gaur egun, oraindik ere, lekuak oroitzapen handiak ekartzen dizkiola aitortzen du.

Enkarguak egunero

Egin beharreko enkarguen artean, sarri egoten ziren botikak; izan ere, Elgetan ez zen farmaziarik orduan. "Herritarrek emandako zerrendarekin joaten zen aita farmaziara, eta arratsalderako igotzen zituen botikak", azaltzen du alabak. Nola baiteko postari zerbitzua ere egiten zuen. "Elgetako banatzaileria Julio Agirreazaldegia zen, baina posta igo eta jaitsi egin behar izaten zen, eta aitak egiten zuen lan hori", dio semeak.

"Autobusa familia handi bat bezala zen. Eskolara eta lanera zihoan jendea zen, jende berdina egunero. Bateren bat falta bazen, konturatu egiten ginen eta itxaron egiten zen", azaltzen du Maria Irene Olabarriak. Berandu ere beti berdinak ibiltzen zirela dio, irribarrez.

"Ederrak errietak edukitzen genituen!", baieztatzen du Roberto Basaurik. Beti berdinei itxaroten! Eta guk ordurako ailegatu behar eskolara! Beti antxintxiketan!". Korrikalari onak ere bazeudela dio, barrezka. "Alberto Agirreazaldegia eta Patxi Basauri esprinter onak ziren!", azaltzen du.

Idi pareia elurra kentzeko

Bideak ez ziren gaur egungoak, eta neguak ere ez. "Errepidea gaur dagoenaren erdia izango zen zabaleran, eta, elur arriskua bazen, palak, gupilendako kateak eta, zegoenean, motozerra ere eramaten genuen autobusean", gogoratzen du Josean Olabarriak. "Egunero egiten zen Eibarrera jaisteko saiakera. Posta, botikako enkarguak... beti egoten zen premiazko konpromisoren bat!".

Arrebak gogoan du autobusa gurutzatuta gelditu zenekoa. "Arraizko buelta gaur egun txarra bada, pentsa orduan! Ez dut aita sekula horrela ikusi. Kateak ipintzen hasi eta ezin zuen ten-

te egon izotzagatik. Ez dakit zelan, baina ipini zituen kateak eta atera ginen handik alde batean pareta zegoela eta bestean arbola". Roberto Basaurik ere gogoan ditu antzerako egoerak. "Inoiz gertatu zaigu autobusean jarri, poliki-poliki Karabietara hartu eta elurragatik autobusetik jaitsi eta palarekin hastea. Edo autobusari bultza egin beharra izatea halakoren batean ailegatzeko. Elurragatik izebaren etxean ere egonda nago astebetean Eibarren. Hura Elgetara igotzeko gosea!".

Jose Antonio Irazabalek elurra kentzeko eskuz egindako tresna du gogoan. "Elurra kentzeko makinarik ez zegoen, baina egurrarekin egindako puntadun tresna bat bazuten bidea garbitzeko. Idi pareta jartzen zuten tresna horretatik tiraka, eta modu horretan zabaltzen zuten bidea. Estructura hori kalean egoten zen, gure etxe inguruan. Bazterren batean edo zintzilik egoten zen beharra zegoenean erabiltzeko".

Matxuraren bat zenean, berriz, nork bere ibilgailua konpondu behar izaten zuen. "Ez zegoen mekanikarik ez Elgetan ez Eibarren. Gogoan dut autobus bat oso-oso eskasa atera zela. Urtero desmuntatu behar izaten zuten motorra konpontzeko. Beraiek egiten zuten dena", dio Josean Olabarriak.

Halako batean, bizimodua aldatu egin zen. Bakoitza bere autoa erosten hasi zen, esnea saltzen zuten baserritarrek gutxitzen joan ziren, farmazia zabaldu zuten Elgetan. Correos zerbitzuak beste bide bat hartu zuen... eta txikitzen joan zen erabiltzaile kopurua. Hala, kendu egin zuten Elgetan eta Elgetarako propio sortutako autobus zerbitzua.

"AUTOBUSA FAMILIA HANDI BAT ZEN; BATEREN BAT FALTA BAZEN, ITXARON EGITEN ZEN"

"ELURRA ZENEAN, IDIEKIN ETA ESUZ EGINDAKO TRESNA BATEKIN ZABALTZEN ZUTEN BIDEA"



Olabarria anai-arrebak, aitaren argazkiarekin, geroalekua zegoen tokian. L.Z.L.

San Roke kalean zegoen geroalekua

Josean Olabarriak bizitza osoa darama autobus gidari. Aurrekoei lekukoa hartu, eta 31 urte daramatza Eibarko futbol taldearen autobus gidari, besteak beste. "Gu guztiok ibili gara autobus-txartelak saltzen. Larruzko gerriko poltsa bat genuen, eta akordatzan naiz bidaia bakoitza pezeta eta erdi zela". Maria Irene Olabarriak ere gogoan ditu autobus-txartelak saltzen ibiltzen zeneko garaiak. "Nire sasoiaren, bost pezeta eta erdi ziren, eta akordatzan naiz txakurrek ere ordaindu egiten zutela".

Olabarriarrek izan dituzten autobusak Irizarrik ekarri izan dituzte. "Harreman estua izan dugu. Garajearen artean egondako autobus zahar bat genuen, eta eskatu egin ziguten konpontzeko eta erakusketa batean jartzeko. Aita ere eraman genuen ikustera. Seguruenik, Irizarren egongo da ikusgai oraindik ere".

"Autobusa inportantea zen, zerbitzu asko ematen zituen"

ROBERTO BASAURI 'LAPURDI' ERABILTZAILEA

Erabiltzaile asko izan zituen Elgeta-Eibar autobus zerbitzuak. Gehienak egunerokoak, gainera.

Nola gogoratzen duzu olabarriarren autobusa?

Bizitza guztia ibili naiz ni autobusean Eibarrera. 11 urte izango nituen La Sallera ikastera jaisten hasi nintzenean. Jende mardoa ibiltzen ginen orduan.

Autobusa inportantea zen. Ez zegoen besterik, eta zerbitzu asko ematen zituen.

Gidabaimena atera eta gero ere nahiago nuen autobusa! Kendu zuten arte ibili nintzen.

Eta nolakoak ziren autobusak?

Bina eserlekuko bi errenkada izaten zituzten eta erdiko pasillokoak jaitsi egiten ziren. Hala, bost joaten ginen ilaran. Sasoi batean, tente joan behar izaten genuen ia egunero,



L.Z.L.

bidaiari asko zegoelako. Mutikook, berriz, kantuan etortzen ginen nagusiagoak ernegatzeko.

Eta amaiera nola gogoratzen duzu?

Jenderik ez zebilen, eta, bost baino gutxiago baginen, autobusa atera beharrean autoan jaisten gintuzten. Seat 124 bat zuten, eta, hura izorratu zenean, Citroen Dian 6 bat erabili zuten. Auto horrekin eman zuten azken zerbitzua. Akordatzan naiz bidaia harekin!



JOSE ANTONIO OJANGUREN

'Downhill'-ean emaitza onak

Lehen eta bosgarren postua lortu zuten Txomin de la Vega eta Eneko Ormaetxea elgetarrek, hurrenez hurren, Antzuolako *downhill* lasterketan. Biak ala biak master 30 mailan lehiatu ziren, emaitza politak lortuta. Zapatuan, hilak 13, egin zuten proba Euskadiko openerako puntuagarria zen, eta, giro ederrean, bailarako ikusle ugari bildu zituen.

Aukera ugarirekin, irakurketa bultzatzea helburu liburutegian

Goiena komunitatea

Udal liburutegia / ELGETA

Udan ere irakurketari bai! Handiak eta txikiak, hangoak eta hemengoak, hiltzaileenak eta maitaleenak, lehengoak eta oraingoak, lodiak eta meheak, paperezkoak edo digitalak, irudidunak... Irakurketa aukera ugari dituzu liburutegian zure zain, etorri eta aukeratu!

OHARRAK

Plastiko bilketa

Baserriko plastiko bilketa martitzenean egingo dute. Aurretik, 943 76 25 47 telefono zenbakira deitu behar da eta plastikoa adostutako lekuan utzi, arratsaldean.

Intxortara bisitak

Uztailaren zehar, barikuetan, 16:30ean, eta zapatuetan, 11:00etan, egingo dira bisitak. Izena emateko: 943 79 64 63.



JOSE ANTONIO OJANGUREN

80 urtetik gorakoen bazkaria

Goiena komunitatea / Xalbadorpe elkarteak / ELGETA

Bi urtean behin egin ohi du Xalbadorpe erretiratuen elkarteak 80 urtetik gorakoendako bazkaria. Aurtun, urteetan zehar elkartearen presidente izandako Pedro Mari Ubera omendu dute ekitaldian. Era berean, herriko bi nagusienek ere omenaldia egin zieten ekitaldian.

Lau batzorde izango dira agintaldi berrian

Agintaldi berriak batzorde gutxiago izango ditu, eta lautan antolatua egongo da; Beñardo Kortabarria alkateak azaldu du helburua dela bilera eraginkorrak egitea. Ohiko osoko bilkurak hilabeteko azken eguenetan egingo dira, 19:00etan

MAIDER ARREGI ANTZUOLA

Datozen lau urteetarako batzorde informatzaileen antolaketa aldatzea onartu du aho batez Antzuolako udalbatzak agintaldi berriko lehen osoko bilkuran. Hala, lau multzotan banatuta geratu dira batzordeak. Beñardo Kortabarria alkateak azaldu du helburua dela batzar gutxiago egitea, baina eraginkorrak. "Bilera kopurua jaitasi dugun arren, helburua da hobeto antolatzea eta bilerak eraginkorrak izatea", argitu du Kortabarria.

Lau batzorde

Ogasuna eta Pertsonala: Beñardo Kortabarria eta Mikel Bargiela (EH Bildu); Basilio Ormazabal (EAJ); eta Miren Gallastegi (PSE-EE). Hirigintza, Zerbitzuak, Ingurumena eta Lehen Sektorea: Beñardo Kortabarria eta Jon Aranguren (EH Bildu); Basilio Ormazabal (EAJ); eta Miren Gallastegi (PSE-EE). Kultura, Gazteria, Hezkuntza eta Euskara: Garazi Larrea eta Hodei Aranguren (EH Bildu); Aitor Urrutia (EAJ); eta Miren Gallastegi (PSE-EE). Gizarte Ongizatea: Josune Martinez eta Purita Arregi (EH Bildu); Miren Elgarresta (EAJ); eta Miren Gallastegi (PSE-EE).



Udalbatza, agintaldiko lehen osoko bilkuran. MAIDER ARREGI

OHIKO OSOKO BILKURAK HILEKO AZKEN EGUNETAN EGINGO DIRA, 19:00ETAN

Kanpo erakunde eta elkarreetako ordezkariak gehienak ere Beñardo Kortabarria hartuko ditu bere gain. Esan behar da agintaldi honetan ere liberatua dagoen udalbatzako kide bakarra dela alkatea.

Alkatearen soldata

Antzuolako alkatearen soldata zein izango den ere onartu dute. Hala, urteko soldata gordina 42.000 eurokoa izango da -hilean 2.300 euro garbi-. Azken lau urteetan ez da alkatearen soldata igo, eta Kortabarria berak aitortu du datozen lau urteetarako ere ez duela igoko.

Irailean jarriko da martxan egitura berria. Ohiko osoko bilkurak hileko azken eguenetan egingo dira, 19:00etan, eta herritarrei irekiak egongo direla azpimarratu du alkatea.



ANTZUOLAKO EGUNEKO ZENTROA

Antzinako jolasak berreskuratuz

Goiena komunitatea

Antzuolako Eguneko Zentroa / ANTZUOLA

Legazpin egon gara aitona-amonen eskola bisitatzen. Antzinako heziketari buruzko kontu asko gogoratu ditugu eta lehengo jolasetan aritzeko aukera ere izan dugu. Oso esperientzia polita izan da!

Autobus zerbitzu berezia jarriko du Pesak jaietarako

Antzuolako jaietan, gaueko autobusak izango dira, egubakoitz eta zapatu gauean, Antzuola, Bergara eta Zumarraga artean. Udalak garraio publikoa erabiltzera animatu ditu herritarrek. Hala, uztailearen 19ko eta 20ko gauerako ordutegia ikusgai dago *Goiena.eus*-en.

Era berean, gogoratu behar da aldaketak egongo direla zir-

kulazioan. Hala, uztailearen 21era bitartean, zirkulazioa itxita egongo da Kalebarren 17tik Buztinzuri 15era, baita Sagasti letik frontoi osteraino ere. Hilaren 23ra arte, debekatuta dago plaza eta eskola aurrean aparkatzea. Bestalde, hondakinen bilketa zerbitzuak ere aldaketak ditu -ikusitakoak *Goiena.eus*-en. San Josepeko gunean ontzi arinendako eta organikorendako edukiontzia jarri ditu Udalak eta Ondarrera bidean, aldiz, beira batzekoa.



ARROLA TALDEA

Itxinako paisaia karstikoak

Arrolako mendizaleak Itxinako paisaia karstikoan barrena ibili dira, Gorbeia magalean. "Inguru ederra eta ezagutu beharrekoa da. Bost orduko ibilbidea izan zen, 900 bat metroko desnibelarekin. Irailean bueltatuko gara, eta ordurako Europako mendietara joatea pentsatu dugu, irailaren 28-29ko asteburuan", aurreratu dute Arrolako kideek.



Marilina mertzeria

Jai zoriontsuak antzuolar guztiei!!!

Herriko plaza 4
ANTZUOLA
Tel.: 677 46 63 21

Kanpo erakunde eta elkarreak

Debagoieneko Mankomunitatea eta Suradesa erakundeak

• Titularra: Beñardo Kortabarria. Ordezkoa: Garazi Larrea.

Mizpirualde Zaharren Egoitza

• Titularra: Purita Arregi. Ordezkoa: Beñardo Kortabarria.

Uema

• Titularra: Beñardo Kortabarria. Ordezkoa: Purita Arregi.

Bideberri mankomunitatea

• Titularrak: Beñardo Kortabarria, Josune Martinez, Hodei Aranguren eta Purita Arregi.

Haur sahararrek eman diete jaiei hasiera

Aurtengo Antzuolako jaiei Saharatik etorritako haurrek eman diete hasiera. Atzo iluntzean txupina bota ostean, ofizialki hasi dira jaiak. Ondorengo egunetan, baina, ekintzaz beteriko egitarau zabalaz gozatzeko aukera dute antzuolarrek

Maidar Arregi ANTZUOLA

Atzo eguerdian, Saharatik bialarara bi hilabeterako egonaldia egitera etorri diren hamaika haurrek eta udaleku irekietan parte hartu duten haur antzuolarrek eman zieten jaiei hasiera. Guztien artean batukada eta askotariko dantzak egin zituzten herriko kaleetan barrena.

Arratsaldean, baina, haur sahararrek txupina bota zuten eta jaiei hasiera ofiziala eman zieten. Oinarin dantza taldearen dantzekin eta Antzuolako bandera eta ikurrina jasotzeko unearekin gozatzeko, Herriko Plaza bete egin zen. Zinegotzi batzuek, gainera, jaietako dantza-estreinaldia izan zen.

Berrikuntza ugari aurtun

Adin tarte guztiei zuzendutako ekintzak antolatu dituztela azaldu du Kultura teknikari Jone Larrañagak. Berrikuntzak ere izango direla gaineratu du: "Aurtun, haurrendako parkea bi egunetan jarriko da: gaur, egubakoitza, eta etzi, domeka". Berritasun nabarmenena, baina,



Saharatik etorritako haurren dantza emanaldia, plazan. AITOR AGIRIANO

Antzuolako Mairuaren Alardeak izango du: Edurne Iturbe izango da kapitain berria eta Mikel Bargiela, aldiz, mairuaren estandartearen duena. Alardea bihar 19:00etan egingo da eta Irungo alardeko ordezkariak ere bertan izango dira.

Bestalde, Bergarako Bandak zapatuan eskaini behar duen

kontzertuan, Enrike Txurruka zuzendari moduan estreinatuko da.

Era berean, jaietan ondo pasatu baina pasatu barik ibiltzeko dei egin nahi dute antolatzaileek; Andramanuela emakume taldeak, adibidez, denondako jaiak aldarrikatu ditu, errespertuan oinarritutako jaiak.

Antzuolako jaiak 2019 Egitaraua

UZTAILAK 19

10:00 Alborada txistulari taldearekin goiz-eresia.

11:00 Gastronomía lehiaketa, Kalebarrenen. Aurtengo jai nagusia pasta izango da eta Udalak jarriko du. Nahi den erara egingo da.

11:00-13:30 Haurren jolas parkea, eskolako patioan.

12:00 Meza nagusia.

13:00 Gastronomía lehiaketako sari banaketa.

13:15 Pasta dastaketa, Kalebarrenen.

14:30 Herri bazkaria, Kalebarrenen.

16:30-18:30 Haurrendako jolas parkea, eskolako patioan.

18:00 Kuadrillen arteko jokoak, Zurrategin, Gesaltza txarangarekin.

19:00 Pilota partiduak Udala Pilotalekuan. Lehen partidua: Sagastume-Jauregi; bigarren partidua: Murua-I. Elizegi vs Uribe-Balardi; eta hirugarren partidua: Elordi-Erostarbe vs Mendizabal-O. Etxebarria. Sarrerak: behean 10 €; goian 5 €.

23:00 Obaneuke, plazan.

23:00 Kontzertuak txosnetan: Kobrazulo, Mugi Panderoa eta Virgin Mary.

UZTAILAK 20

09:55 Kanoiak sutzea, plazan.

10:00 Alborada txistulari taldearekin goiz-eresia.

11:00 Haurrendako eta helduendako mahai jolas berriak probatzeko eta ikasteko aukera, Jolasenea elkartearen eskutik. Herriko Plazan.

11:30 Bergarako bandaren kalejira.

12:00 Haurrendako pailazoak, Herriko Plazan.

12:30 Bergarako bandaren kontzertua, Enrike Txurrukaren zuzendaritzapean. Zurrategi auzoan.

17:00-19:00 Goitibeherak egiteko tailerra, 5 urtetik gorako haurrendako, Ondarren.

19:00 Antzuolako alardea. Desfilea herrian zehar; ekitaldi nagusia, plazan.

20:30 Elektrotxaranga herriko kaleetan zehar.

22:30 Zenezuzkoa, Herriko Plazan.

22:45 Joselu Anaiak taldearekin erromeria, Herriko Plazan.

23:00 Kontzertuak txosnetan: Kilimak, Sustraja Band eta DJ Javi Laz.

UZTAILAK 21

07:00 Elektropapo, txosnetatik gora.

11:00-13:30 Haurren jolas parkea, eskolako patioan.

12:00 Salda eta txorizoa, Landatxope erretiratu elkartearen eskutik, elkarteko egoitzan.

12:30 Arantza, Pantxo eta Nikaren musika saioa Herriko Plazan izango da. Rantxerak, korridoak, boleroak, cumbia eta euskal abestiak.

14:30 Herri bazkaria, Ez Dot Mostuko Bizarra! taldeak antolatuta, Herriko Plazan.

16:00 Kantaldia, Herriko Plazan.

16:30-18:30 Haurren jolas parkea, eskolako patioan.

18:30 *Festamentua* ikuskizuna, Tio Teronen Semeak taldearen eskutik, Herriko Plazan.

20:00 Larraín dantza Oinarin dantza



taldearekin.

20:45-22:00 Erromeria Ostolaza eta Narbaizarekin, Plazan.

23:00 Ostolaza eta Narbaiza, Herriko Plazan.

00:00 Ontzaren igoera, Herriko Plazan.

00:15-01:00 Ostolaza eta Narbaiza, Herriko Plazan.

ANTZUOLAKO JAIK 2019

GOIENA TELEBISTA

UZTAILAREN 23AN, MARTITZENEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN
AITOR AGIRIANOK GIDATUTAKO SAIOA

goiena
Zu hemen zaude.





Turista ingeles bat San Martingo autokarabana gunean eguazten iluntzean. O.E.

Europatik heldu dira udako lehen turistak

Italia, Frantzia, Ingalaterra, Katalunia, Madril eta AEBetatik etorritako turistak izan dira dagoeneko Oñatin eta udako oporrak bukatu bitartean helduko direnak hartzeko zain daude Turismo Bulegoan eta herriko ostatueta. Hiztegiak ere prestatu dizkiete

Oihana Elortza OÑATI

Turismoari begira, zazpi hizkuntzatan dagoen hiztegia atera dute Oñatin. *Ongi Etorri Euskararen Herrira* du izena. Euskaraz, katalanez, galegoz, gaztelerez, ingelesez, frantsesez eta alemanez dago eta egunerokotasunarekin lotutako hitzak agertzen dira bertan, gaika banatuta. Uema udalerrri euskaldunen mankomunitatearen baitan, turismoaren eta euskararen inguruan hainbat herrik egindako lanaketaren fruitua da hiztegia. "Hiztegi honekin gonbidatu gura dugu bisitaria bere hizkuntza oinarri hartuta gurea erabiltzera. Ordua, jateak, garraioa... bisitariak normalean erabiltzen dituen zerbitzuen inguruan", dio Ikerne Altubek, Oñatiko Turismo eta Garapen Agentziako arduradunak.

Hiztegiaren 3.000 ale atera dituzte Oñatin. Turismoarekin lotura duten herriko guneetan eta ostatueta egongo da esku-

ragarri, eta Interneten ere deskargatu daiteke.

Bikoteka

Uda ondo hasi da Oñatin turistei dagokienez. Hilabete honetan ere kanpotik etorritako asko pasa dira dagoeneko Turismo Bulegotik. Aste honetan, eguazten goizean, esaterako, AEBetako, Frantziako, Italiako eta Herbehereetako bisitariak sartu ziren Turismo Bulegora herria ezagutzeko informazioa eskatzera. Kataluniatik eta Madrildik etorritako hainbat turista ere izan dira herrian hilabete honetan. Gehienak bikoteka etorri dira, gazteak zein nagusiak dira, eta Oñati ez ezik Arrikrutzeko kobak ere bisitatu dituzte.

'ONGI ETORRI EUSKARAREN HERRIRA' LIBURUA EGIN DUTE TURISTENDAKO

Eskaintza

Turismo eskaintza zabala dago Oñatin aurtengo udan ere: herria bera -bi bisita uztailera jai egunetan eta abuztuaren egunero-, Arantzazu eta ingurune naturalak, Pottokalekura bisitak eta Gandiaga Topagunean ikusgai dagoen Oteiza eta Arantzazu erakusketa, adibidez. Turismo Bulegoan bertan, Orbelaun elkarteko Oñatiko artistek egindako lanen erakusketa dago. *Ezusteak* du izena eta Anjel Mari Milikua, Imanol Artola, Iñaki Jauregiartzo eta Esteban Kerexeta artistek eskuz egindako lanak ikus daitezke.

Kalitatea

Oñatiko ostatu eta zerbitzu turistikoei, bestalde, kalitatearekiko konpromisoa berretsi dute. Praktika egokien eta IKTen erabilera egokien aitortza jaso dute, turismoarekiko eta kalitatearekiko duten konpromisoari eutsita.

Irailean hasiko dituzte Araozko ostatua egiteko lanak

Aretxabaletako Eco-Silma enpresak egingo ditu lehen faseko obrak. Astelehenean sinatuko dute akordioa

O.E. OÑATI

Irailaren lehen hamabostaldian hasiko dituzte Araozko nesken eskola zaharra ostatu bihurtzeko lanak. Lan horiek egiteko lehen deialdian ez zen enpresarik aurkeztu, eta bigarrenetik bik bidali duten euren proposamena. Kontratazio mahaiaik Eco-Silma enpresarena lehene- tsi du eta astelehenean dira sinatzekoak akordioa enpresa eta Udala.

Proiektuaren lehen faseko lanak egingo ditu enpresa horrek: eraikinaren kanpoko ur-

banizazioa, eraikina isolatu, tarteko solairu berria eraiki, eskailerak egin, barruko banaketak egin eta beheko solairua eraiki eta birgaitu. Betiere, Koldo Etxegarai arkitektoak idatzitako exekuzio proiektua oinarri dela.

Obra horiek egiteko, Udalak zehaztutako aurrekontua eta epeak murriztu egin ditu Eco-Silma enpresak bere eskaintzan. 1.700 euro merkatuta, 245.000 euroren truke egingo ditu hasierako lanak, bost hilabete eta erdiko epean.

Txanda eta Sabadell elkartu egin dira akordioa eginda

Dendari batek bere egunerokotasunean behar dituen zerbitzuak "baldintza onean" eskainiko dizkie aurrerantzean Sabadell banketxeak Txanda dendari elkarteko kideei. Hiru urteko iraupena izango du akordioak eta negozioarendako ez ezik, langileendako eta euren senideendako ere izango dira laguntza horiek.



Akordioa sinatzen. O.E.



NIRE USTEZ

AINHOA NEGERUELA

Maleta biraka

Aireportuan ahaztu duten maleta biraka dabil zintan. Agertu, ibilbidea egin eta desagertu.

Nor itzuli ote da etxera oparirik gabe? Nor ote dabil, azken egunetan, arropa berdinak jantzita? Ba, horietariko batena izan liteke maleta. Edo ez. Zabaldu egingo dugu.

Blusa urdinen, gonon eta barruko arropa beixen artean idazteko makina bat ageri da. Eta barruko poltsikoan Cabot Coveko etxeko giltzak. Jessica Fletcher-ena da, zalantzarik gabe. Edozein herritara iritsi, beti hilketa baten lekuko izan eta azkenean hiltzailea nor zen argitzen zuen idazlearena.

Zer gertatu ote zaio, ordea? Zergatik utzi ote du maleta aireportuan ahaztuta? Ez zuen, ba, gabardinako gerrikoa estutu eta, korrika alde egin beharra izango? Agian, bai. Agian, konturatu gara, azkenean ere, dena ez zela kasualitatea izan; ez zela kasualitatea bera iritsi orduko norbait hilda agertzea. Azkenean, konturatu gara hiltzailea Jessica bera izan dela, hasiera-hasieratik. Serie bateko lehen serieko hiltzailea.

Sormena eta ideiak ere egon dira udalekuetan

Gazteku osteko kale estuan murala egiten arituko dira hurrengo astean arte udalekuetako gaztetxoak, eta irekietakoak, berriz, azken jairako ideiak prestatzen. Inoizko udaleku jendetsuenak izan dira, baina "oso ondo" moldatu dira guztiak

Oihana Elortza OÑATI

Aurtengo udalekuak, artekoak zein irekiak, inoizko jendetsuenak izan dira, eta horrek ekintza batzuk antolatzerakoan buruko min pixka bat eman dien arren hezitzaileei, udaleku irekietakoei, batez ere, "oso ondo" moldatu direla diote. "Batez ere, ekintza bateratuetan igarri dugu aurrekoetan baino ume gehiago zeudela; sanferminak ospatzerakoan, esaterako. Ez da erraza 651 ume elkarrekin daudela ekintza bat egitea, eta horrelakoetan bat txandak antolatuz edo taldeka jolastuz moldatu gara. Erronka izan da guretako ere, baina lortu dugu gainditzea", dio Alazne Agirrek, udaleku irekietako koordinatzaileetako batek.

Arte udalekuetan 70 gaztetxo ibili dira lau taldetan banatua, eta "oso ondo" moldatu dira, Maddi Guridi hezitzaileetako baten esanetan: "Eltzian ez ezik, San Martinen eta Ugarkalden, esaterako, egin ditugu tailerrak. Henna, adibidez, eurek eskutatkoa izan da. Egia esan, sormen handia dute gaztetxoek. Polita da gauzak zelan ulertzen dituzten ikustea".

Umeen proposamenak

Udalekuetako egitaraua lotuta izaten dute antolatzaileek au-




Arte udalekuetako gaztetxoak Ugarkaldeko parkean eguen goizean. O.E.

rretik, baina beti uzten dute tokia umeen proposamenak jasotzeko. Aurtun, esaterako, Gamarrara joateko eskaera jaso dute udaleku irekietako hezitzaileek umeengandik, eta, gazte teknikariarekin hitz egin ondoren, Gamarrara egun-pasa joateko plana txertatu dute egitarauan. "Beste irteera batzuk ere egin ditugu; tartean, Garaioa eta Oriora gau bat edo bi pasatzera. Orioko Zingira auzoko irteera, esaterako, berria izan da", dio Amaia Goitiak, udaleku irekietako kide batek.

Astebete falta


Hilaren 26an bukatuko dira udaleku irekiak zein arte udalekuak, eta egun horretarako ekintza bereziak prestatuko dituzte batean eta bestean. Arte udalekuetan, hamarretako berezia egingo dute eta erakusketa bat muntatuko dute Eltzian egun hauek egindako lanekin. Udaleku irekietakoei, berriz, umeen proposamenak jasotzen ari dira eta datorren aste hasieran erabakiko dute 26an zer egin. Uztailaren 25a jaieguna izango da eta ez da udalekurik egongo.

Zer moduz zabilta udalekuetan?




XABAT ARAMENDI
UDALEKU IREKIAK. 6 URTE

"Urtero etortzen naiz, eta aurtun ere oso ondo ari naiz pasatzen. Jolas asko egin ditugu; adibidez, armiarma jolasa. Eta ur jolasak ere bai. Frontoian igerileku txikiak jartzen ditugu. Ur txorrotetan eta parke gorrian ere egongo gara; eskutik helduta joaten gara. Kiroldegiko igerileku handian ere ibili gara".




NAROA LEGAZPIA
UDALEKU IREKIAK. 11 URTE

"Oso-oso gustura nabil. Gauza asko egin ditugu eta, egia esan, denak gustatu zaizkit. Batez ere, ginkana; mundiala izan da. Zingirara joan da nire taldea bi egunerako. Ni, justu, eskubaloiko udalekuetan nengoen egun haietan, Altsasun, eta pena hartu dut. Primeran ibili direla kontatu didate lagunek".



IRAIA MUGARTZA
ARTE UDALEKUAK. 10 URTE

"Joan den urtean oso ondo pasa nuen eta aurtun berriz eman dut izena. Eta oso ondo nabil aurtun ere. Asteazkenean Tabakaleran egon ginen eta lore bat hartu, fotokopiatu, eta likido batekin igurtzita beste paper batera pasa genuen irudia. Asko gustatu zitzaidan esperimendu hori. Henna egitea ere gustatu zait".



ARNAITZ KORTAJARENA
ARTE UDALEKUAK. 10 URTE

"Arte udalekuetara lehen aldiz etorri naiz aurtun. Tenperekin margotzen ikasi gura nuen, eta hori ez ezik beste gauza asko egin ere ikasi dut. Egund baten, maskarak egin genituen, igeltsuarekin edo paperarekin. Nik koloretako paperekin azeri txiki bat egin nuen. Lan batzuk Eltzian egin ditugu eta beste batzuk, kanpoan".

Argia kenduko dute herri osoan abuztuaren 8an

Bustinzuloko instalaziotik ateratzen dira herriko argindar linea guztiak, eta estazio horretan urteroko azterketa lanak egin behar ditu Oñargik abuztuaren 8an. Herri osoari eragingo dio argi-etenak; 15:00etatik 19:00etara. Aurrez abisatu gabe emango dute berriz argia. Aparailu elektronikoak deskonektatzea gomendatu du Oñargik.

Umeen danborradako zozketa martitzenean da Santa Anan

Umeen danborradan parte hartzeko izena eman dutenen artean zozketa egingo da, bakoitza zein postutan aterako den jakiteko. Santa Anan izango da, martitzenean, hilak 23, 18:00etan. Haurrak bakarrik sartuko dira aretora, guraso gabe, eta joan ezin direnei posta elektronikoz jakinaraziko zaizkie emaitzak. Entseguak irailean izango dira.

Hastapen mailako akrobazia ikastaroa egingo dute bihar

6 urtetik gorakoendako akrobazia tailerra egingo dute bihar, zapatua, gaztelekuan. Hastapen mailakoa izango da eta elementu ezberdinak erabiliko dituzte: aroa, trapezioa eta oihalak, esaterako. Ikastaro amaieran ko-reografia bat egitea da asmoa. Tailerra 11:00etatik 13:00etara izango da eta prezioa, 25 euro. Agurtzane Telleria: 609 55 62 10.

Lizargarate eguneko txartelak 22 eurotan daude salgai

Abuztuaren azken domekan egin ohi da, urtero, Lizargarate eguna, eta aurtun ere horrela izango da; abuztuaren 25ean ospatuko da. Herri kirol erakustaldia, bazkaria, afari merienda eta Laja eta Lutxurdixorekin erromeria egongo dira, besteak beste. Txartelak salgai jarri dituzte dagoeneko. Bizipoz tabernan eros daitezke, 22 eurotan.

Abuztuko oporren aurretik egingo den azken odol ateratzea

Gaur, egubakoitza, egingo dute uztaileko odol ateratzea. Abuztuaren unitate ibiltaria etorri ohi izan da herrira, baina urteko egutegitik kanpo eskaintzen den zerbitzua izaten da hori. Udako oporren aurretiko azkena gaur egingo dute, Euskaldun Berria gelan, 17:00etatik 19:00etara. Hurrengo odol ateratzea irailaren 20an izango da.



2017ko kaligrafiari buruzko erakusketa, Gandiaga Topagunean. ARANTZAZU GAUR FUNDATZIOA

Idazkera ederraren artea bosgarrenez Arantzazun

Kaligrafia jardunaldiak hasiera emango zaie gaur arratsaldean, Arantzazuko Gandiaga Topagunean. 'Karolina' eta 'humanista' letra motak aztertuko dituzte bosgarren edizio honetan, eta Ivan Castro diseinatzaile grafiko kataluniarrek gidatuko ditu saioak

Maialen Regueiro OÑATI

Arantzazuko Gandiaga Topagunean kaligrafia jardunaldien agertoki izango da gaur eta bihar, dagoeneko bosgarren edizioa izango dena. Jardunaldi hauei gaur arratsaldean emango zaie hasiera eta bihar arratsaldean amaituko dira; hogeitortsona taldeak parte hartuko du. Ivan Castro kaligrafo kataluniarra izango da saioen gidaria eta *karolina* eta *humanista* letra moten lanketa egingo du.

Leire Fernandez oñatiarra jardunaldi hauek antolatzen ariren da, eta Ivan Castrori helarazitako gonbidapenaren arrazoia azaldu ditu: "Urtero, kaligrafo izendunak gonbidatzen ditugu jardunaldi hauek gidatzeko. Castrorekin aurretik gure hainbat lan jaso ondoren, bera gonbidatzea erabaki genuen". Aurreko edizioetan, Oriol Miro, Joan Quiros eta Bego Viñuela kaligrafoen parte-hartzea izan da. Izan ere, Fernandezek aipa-

tu bezala, hemen inguruan ez dago gai honi buruzko tailer eta hitzaldirik, horiek, normalean, hiri handietan izaten direlako, Bilbon eta Bartzelonan, besteak beste. Azken batean, jardunaldi hauen helburua honako hau da: "Oñati eta inguruko herritakoek tematika hau lantzeko aukera izatea, aditu baten eskutik".

Ivan Castro kaligrafoa

Ivan Castro kaligrafian, letretan eta tipografian espezializatutako diseinatzaile grafiko kataluniarra da. Gaur egun, Bartzelonatik gertu bere estudioa du eta nazioarteko proiektuetan dihardu lanean. Hainbat liburu ere idatzi ditu.

'Karolina' eta 'humanista'

Aurtengo jardunaldietan bi letra mota landuko dituzte: *karolina* eta *humanista*. Honela deskribatu ditu Fernandezek: "Letra mota hauek uniformeak dira idazkeran, bariazio formala dute eta erritmo handia. Azken batean, ordenagailuan idazteko erabiltzen diren letra motek oinarritat dituzte bi hauek".

2015az geroztik

Aurtengoa bosgarren edizioa izango da, 2015an hasi baitzen Arantzazu Gaur Fundazioaren eta EHUKo Letraz Diseinu Grafikoko eta Tipografiako ikerketa taldearen arteko lankidetzan. Horren harira, Fernandezek honako balorazio hau egin du: "Parte hartzeko plazak zein azkar betetzen diren ikustea pozgarria da. Horrek erakusten digu, baita ere, gai honi geroz eta garrantzi handiagoa ematen ari zaiola. Gainera, partaideek errepikatu egiten dute urtetik urtera".

Goizeko zerbitzuarekin, abuztuan liburutegia zabalik

Abuztuan 09:30etik 13:30etara egongo da zabalik liburutegia. Umeentzat txoko bat egokitu dute

M.R. OÑATI

Oñatiko Udal Liburutegiaren ateak ez dira itxiko abuztuan, goizeko zerbitzua soilik eskainiko bada ere. Modu horretan, abuztuan, 09:30etik 13:30etara bitartean egongo da zabalik liburutegia. Haur liburutegia itxita egongo da, baina dagoeneko egokitu dute bigarren solairuan txoko bat umeendako –uztailetik dago erabilgarri–.

Maileguen araua

Maileguen araua Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duela adierazi du, Arantzazu Ibarrondo Udal Liburutegiko arduradunak. Horren harira, honako hau adierazi du Ibarrondok: "Liburutegi bakoitzak aukera dauka arau horiek aldatzeko. Udan, esate baterako, erabiltzaileekin hitz egiten dugu eta beraiekin zehazten dugu liburua, pelikula edo



Oñatiko Udal Liburutegia. M.R.

diskoa entregatzeko data, garrantzitsua da eta horiek liburutegitik kanpo egotea".

Oihalezko poltsak

Oihalezko poltsak ere eskuragarri daude, erabiltzaileek loteak egin ditzaten.

Musika eta ikuskizun kutsua, Parvathy Baul artistaren eskutik

Kalean egitasmoaren baitan, hainbat emanaldi izan dira uztailean zehar, eta hilaren 24an izango da egitarauan zehaztutako azken aurreko ikuskizuna. Parvathy Baul artista indiarak Lazarragako lorategian kontzertua eta ikuskizuna eskainiko du, 19:00etan hasita.

1976an jaioetako artista honek 1995an hasi zuen ibilbide musikala. Izan ere, 1997an Keralan izan zen, tradizio espiritualak ezagutzeko eta esperientzia hartatik aurrera beste modalitate batzuk ezagutu ditu; txotxongi-loena, besteak beste. Gaur egun, folk musika lantzen du, kutsu artistikoarekin, eta Indian oso artista ezaguna da.

Kultur egitasmo honen azken emanaldia irailaren 1ean izango da; Bidebarrietako jaien egitarauan sartuta egongo da. Era horretan, Errementari plazan, 19:00etan hasita, familientzako ikuskizuna izango da: Hortzmu- ga teatroak *Jule* emanaldia eskainiko du.

Nobedadeekin datoz Santxolopeztegiko Madalenako jaiak

Santxolopeztegi auzoan Madalenako jaiak ospatuko dituzte asteburuan. Gaur gauean, gainera, autobus zerbitzua egongo da, 22:00etatik 07:00etara bitartean, jaietara hurbildu nahi duenarentzat. Bestalde, hainbat nobedade daude aurtengo egitarauan: bizikleta zeharkaldia –bihar, 16:30ean izango da izen-ematea eta parte hartu nahi duenak bost euro ordaindu beharko ditu–, Potx eta Lotx pailazoaren ikuskizuna eta bihar-ko afalosteko erromeria, Laja eta Lutxurdixoren eskutik, besteak beste. Gai-ontzean, urteroko hainbat ekintzatan parte hartzeko aukera egongo da; esate baterako, musika emanaldiak, meza eta mus txapelketa.

Gaur, 17:30ean hasita, pilota txapelketarekin hasiko dira Madalenako jaiak eta ekintza ugari- riz gozatzeko aukera izango da domekara bitartean. Leire Etxezarretaren eta Eider Garroren kontzertu akustikoak itxiko ditu aurtengo auzoko jaiak.



1950ean Jean Robic izan zen lehena helmugaratzen. KUTXATEKA

Arantzazuko Igoeraren mende erdiko ibilbidea

16:00etan abiatuko da lasterketa, Triana auzotik, eta txirrindulariek 70 kilometroko ibilbidea egin beharko dute, Sindikako gainera iritsi aurretik. Ulma Aloña Mendi taldearekin, guztira, zazpi txirrindulari arituko dira, bost oñatiar eta bi bergarar

Maialen Regueiro OÑATI

Bihar 16:00etan abiatuko da, Triana auzotik, 50. Arantzazuko Igoera. Gazte mailako 90 txirrindularik, gutxienez, hartuko dute parte eta 70 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute.

Zazpi debagoiendar

Aloña Mendiko txirrindularitza sailak antolatzen duen lasterketa hau Gipuzkoako txapelketaren baitan dago, eta, horren eraginez, Gipuzkoa, Bizkai zein Arabako taldeek hartzen dute parte. Era berean, gazte mailako lehen eta bigarren urteetan diharduten bailarako ordezkariak ere izango dira biharko lasterketan; Ulma Aloña Mendi taldearekin zazpi debagoiendar arituko dira: Unai Cueva, Ander Blazquez, Aritz Plazaola, Aritz Torres eta Unax Agirre oñatiarrak eta Iker Ugarte eta Lander Uri-besalgo bergararrak.

Bederatzi kilometro

Lasterketa honek 50 urte beteko ditu bihar; Arantzazuko lehen igoera 1935ean egin zen. Hala ere, mende erdi honetan, lasterketak ibilbide aldaketa izan du, 2016az geroztik. 48 urtez, lasterketa bederatzi kilometrokoa izan da, baina antolakuntzatik ibilbidea aldatzeko, alegia, luzatzeko erabakia hartu zuten duela bi urte,

Ruper Arkauz Aloña Mendi txirrindularitza saileko kideak azaldu duenez: "Txirrindularitza sailak 50. urteurrena ospatu zuenean, ibilbidea aldatzea erabaki genuen, hainbat txirrindularik hala eskatu zutelako. Beraien eskaera ibilbidea luzatzea zen eta halaxe egin dugu azken bi urteetan. Hala, Arantzazura igo aurretik beste 60 kilometroko ibilbidea egiten dute,

beroketa gisa". Helmuga da 50 urtean aldatu ez dena, Sindikako gaina, hain zuzen, eta biharkoa ere han amaituko da. Lasterketa amaitu ostean, han banatuko dituzte sariak.

Palmaresa

1935eko otsailaren 24an egin zen Arantzazuko lehen igoera eta Vicente Truebak irabazi zuen. Lehen igoera hura oso arrakastatsua izan zen eta Arantzazurako bide bazterretan zale asko elkartu ziren. Bigarren igoera 1936an izan zen, eta, kasu hartan, Claudio Leturiaga oñatiarra izan zen onena. Urte hartan, gainera, Espainiako gerra hasi zen, eta, horren eraginez, hurrengo urte batzuetan ez zen igoerarik antolatu. Jose Antonio Mur izan zen 1969an lasterketa irabazi zuen beste oñatiarra.

2016an egin zen azkenengoz bederatzi kilometroko ibilbidea zuen Arantzazuko Igoera, eta kasu hartan, Jokin Alberdi izan zen lehena helmugaratzen. Ibilbidea aldatu zenetik, Xabier Berasategi eta Jokin Murguialday izan dira lasterketako irabazleak, 2017an eta 2018an, hurrenez hurren.

Azken urteetako oñatiarren emaitzei dagokienez, Julen Ume-rezek eta Xabier Murgiondok emaitza onak lortu izan dituzte –bigarren eta hirugarren postuak lortu dituzte–, garaipenik lortu ez badute ere.

Boluntario beharra

Lasterketaren harira, Aloña Mendi txirrindularitza sailetik jakinarazi dute biharko lasterketarako boluntarioak behar dituztela ibilbidean zehar egoteko. Lasterketa 16:00etan hasiko bada ere, 15:15ean egingo dute banaketa Aloña Mendi taberna kanpoaldean.



Ruben Nogueiras. O.E.

"Postuetan egoteko herritarrek behar ditugu"

RUBEN NOGUEIRAS

UDANA RACING

Uztailaren 27an izango da lasterketa, 14:00etan

M.R. OÑATI

Lasterketa ikusteko sarrerak dagoeneko salgai daude, zortzi eurotan, Oñati eta Helmuga tabernetan.

Zein egoeratan dago Udanako Igoeraren antolakuntza?

Eguna eta ordua zehaztuta daude, baina herritarren laguntza behar dugu antolakuntzan eta komisario lanetan laguntzeko. Beraz, herritarrek animatzen ditugu parte hartzera. Nirekin jar daitezela harremanetan.

Segurtasuna lotuta duzue.

Anbulantziak eta erreskaterako autoak lotuta daude. Hemezortzi postu izango ditugu ibilbidean zehar, eta horietan egoteko boluntarioak behar ditugu.

Zenbat parte-hartzaile espero dira?

Momentuz, 25 pilotuk eman dute izena, baina 50 parte-hartzaile espero ditugu. Oñatiarrak, momentuz, hiru pilotu daude konfirmatuta, horien artean ni neu. Zein da Udanako Igoeraren berezitasuna?

Miradorera iritsi arte, ibilbidea nahiko azkarra da, eta hor ez da arazorik izaten. Hortik aurrera, ibilbidea teknikoa da; hainbat pilotuk arazoak izaten dituzte.

Zer gomendatzen diezue ikusleei?

Komisarioen gomendioak jarraitzea, batez ere, baina baita toki seguruetan jartzea.

1949ko Arantzazuko Igoera

Arantzazuko Igoeraren berezitasuna amaiera gogorra duela da eta ezaugarri hori urtetik urtera mantendu izan da. Hori da, hain zuzen, argazkiak irudikatzen duena. 1949ko Arantzazuko Igoeran, esate baterako, gaur egun ere hain gogorra den azken aldapa hori bizikletatik jaitsita igotzen zuten txirrindulariek, garai hartan baimenduta zegoelako.



1949ko Arantzazuko Igoera. KUTXATEKA

Amillenak ordezkaritza izango du Arangoitin

PARAPENTEA Debagoieneko parapente taldeko Jon Iriarte 'Takolo' eta Jose Javier Alvarez Castillejo 'Casti' domekan hasiko duten Espainiako Txapelketan izango dira: "Zazpi txanda izango dira, egun bakoitzeko bat, eguraldiak laguntzen badu, behintzat"

Xabier Urzelai ARRASATE

Lurraldekako txapelketekin batera etorri zen Gipuzkoako txapelketa lehenengo –azken bi urteetan Jon Iriartek irabazi du–, eta Euskadikoa gero –Gorka Tornos soraluzetarra nagusitu da aurtentzen–. Domekan, berriz, Espainiako Txapelketa hasiko dute Arangoitin, Lumbier inguruan, eta aurretik aipatutako izenekin batera Amillenako *Casti* ere irteera puntuan izango da: "Gehienez, 125 piloturen dako tokia dago, eta plazen %20 nazioartetik datozen pilotuendako gordetzen dute. Horrenbestez, txapelketan esku hartzeko urteko rankingean batutako puntuak kontuan izaten dituzte", dio Iriartek.

Txapelketan zazpi txanda izango ditu: "Gure kirolean eguraldiaren menpe gaude, eta ikus-teko dago zazpi txanda horietatik zenbat egin ahal izango ditugun: euria egiten duen, ze haize dabilen... Halakoak erabakigarriak dira. Hala, berez, egun bakoitzeko txanda bat egingo dugu".

Irteera, ikusgarria

"Txanda bakoitzaren aurretik, batzarra izaten dugu antolatzaileekin, *breafing*-a deritzona, eta denok mendi magalera igotakoan



Jon Iriarte, parapentean. RAKEL ALBENIZ

"GPS GAILUA ALDEAN ERAMANDA IBILBIDE BAT AHALIK ETA AZKARREN EGITEA DA XEDEA"

hasiko dugu proba. Irteera ikusgarria izaten da; pentsa, 125 parapente elkarrekin hegan. Gutako bakoitzak GPS gailu bat izaten du, eta balizekin osatutako zirkuitu bat ahalik eta denbora laburrenean betetzea

da helburua. Proba ondoren, GPSak grabatu duen *track*-a –ibilbidea– antolatzaileei pasatzen diegu, guk egindakoa egiazta dezaten".

Parapente ezberdinak

Txapelketan bi parapente mota egongo dira: "Eta kategoría ere horren arabera da. Aurrean dabilzanek lasterketetako parapenteak erabiltzen dituzte, azkarragoak dira, baina pilotatzeko zailagoak. Gureak erosoagoak dira, baina ez dira horren azkarrak".

"Nortasuna transmititzen jarraitu behar du Ointxe!-k"

IÑAKI OGARA MU-KO ENTRENATZAILEA

SASKIBALOIA Talde zuri-morea hasi da EBAn egingo duten hurrengo denboraldia prestatzen

X. Urzelai / M. Bikuña ARRASATE

Kantxan lortutako emaitzei esker, EBAn jokatu du, berriro ere, Ointxe!-ko lehenengo taldeak. Hirugarren urtez jarraian Iñaki Ogara izango da entrenatzailea; dagoeneko hasi dira lanean.

Hirugarren urtea izango da taldea zuzentzen.

Halaxe da, eta oso pozik gaude, proiektua aurrera doalako eta egiten ari garen lanaren gainean konfiantza dagoela ikusten dugulako.

Aldaketak izango dituzue taldean?

Bai; pare bat baja izango ditugu, Markel eta Guillermo, baina alta oso garrantzitsuak izango ditugu, Arrasateko harrobiko lau jokalarierrekueratuko ditugulako taldea indartzeko: Imanol Zeziaga, Andoni Arantzabal, Mikel Atxa eta Ander Atxa. Eta eurekin batera iazko bloke osoak jarraitu egingo du; horrenbestez, oso pozik gaude.

Kanpotik etorri zirenek ere jarraitu egingo dute?

Bai; besteak beste, Zack Kirschbaum amerikarra taldean izango dugu. Eurekin batera, etxeko jokalarierrekuatzen, Martxelekin, Mikel Arejorekin, Andoni Atxarekin eta gainontzekoekin ilusio handiz ekin diezaiokegu denboraldiari, eta helburu handiagoengatik borrokatu.

Iaz, oso urte emankorra izan zen, ez zenuten mailari eusteko sufritu. Zein da aurtengo helburua?



Iñaki Ogara Iturripen. GOIENA

Taldeak nortasuna transmititzen jarraitu behar du, hori izan behar da helburu nagusietako bat. Eta noski, hobetzen jarraitu behar dugu. Kirol ikuspuntutik garbi izan behar dugu talde honek baduela potentziala, eta helburu garrantzitsuengatik borroka dezakegula. Gero, asteroko lanak gure lekuan jarriko gaitu, baina iazkoa hobetzeko kapaz izan behar dugu.

Talde nagusiaren eta juniorren artean zubi-lana egingo duen taldea izango duzue.

Beharrezkoa dugu. Azken urteotan, harrobian lan handia egiten gabiltza. Maila horietan taldeak euskal ligetan ditugu, finalerara iristen dabilta... eta horrek dakarrena da junior mailan maila oneko jokalariek izatea. Horregatik, 23 urtez azpikoendako taldea sortuko dugu bigarren nazional mailan, eta talde nagusiarekin zuri-lana egingo du, bai.

Amillena taldean hainbat sari

Debagoieneko Amillena taldean 24 lagun daude gaur egun federatuta. "Gure artean hainbat txapelketa ditugu, Kurtzebarritik irtenda nor iristen den urrunago, esaterako, edo nork egiten duen urteko hegaldi luzeena. Espainiako Txapelketara klubeko bi kide bakarrik joango gara, baina lurraldekako txapelketetan saltza polita izaten dugu", dio Iriartek.



Iriarte, iaz 110 kilometroko hegaldia egiteagatik jasotako sariarekin. AMILLENA

FUTBOLA Kuadrillen arteko zazpikoa, bihar Ibarran

Debagoieneko kuadrillen arteko futbol txapelketa antolatu du, beste behin, UDak. Bihar, hilak 21, izango da torneo, dagoeneko zortzigarrena. Hala ere, ize-na emateko epea atzo, eguna, amaitu zen.

600 euro irabazlearendako

Urtero moduan, egun osoko torneo izango da, goizean hasiko

dituzte kanporaketa norgehiagokak eta arratsaldean jokatu dituzte partidu erabakigarriak. Sari banaketa ekitaldia ere egunean bertan egingo dute, iluntzean. Gainera, UDako lagunak sari potoloak banatuko dituzte, egun osoko ahaleginaren ondoren afari eder bat egiteko modukoa.

Txapelketako sariak honako hauek dira: txapeldunak 600 euro poltsikoratuko ditu; txapeldunordeak, 300 euro; eta hirugarrenak, 100 euro.

Dorletako Ama saria, igotzaileendako aparta

TXIRRINDULARITZA Ibilbide berria izango du domekako lasterketak. "Araban lautadan egin beharreko kilometroak kendu egin ditugu. Horrela, Gatzagara bigarren igoeran ihes egiten duenak saria izan dezake. Lehen, ordea, ez", dio Joxerra Agirreurretak

Xabier Urzelai ARRASATE

Ausartendako kirola da txirrindularitza, baina ausartek ez dute beti saria jasotzen. Gatzagan amaitu da hori. Orain artean, Dorletako Ama sarian Gatzagara egin beharreko lehenengo bi igoerek apenas izaten zuten saririk, ondoren Urbinarako bidea hartzen zutelako, eta Arabako lurretan ia AP-leko sarre-rara egiten zuten joan-etorriak ezerezean uzten zuen ahalegin hori: talde indartsuek euren legea ezartzen zuten, talde estrategiak inposatzen zituzten, ihesaldiak bertan behera utzita: "Domekan, baina, Gatzagako bigarren igoeraren ondoren txirrindulariek Arlaban jaitziko dute Aingeru Guardaraino -Eskoriatzako sarrera- eta ostera zuzen joko dute Gatzagako hirugarren igoera erabakigarri. Hala, bigarren igoeran eraso jotzen duenak, akaso, saria izango du, taldeek ez dute-eta hori kontrolpean izateko tarterik izango", dio Joxerra Agirreurretak.

Ohi baino kilometro gutxiago

Domekako lasterketak -10:00, Leintz Gatzaga- 100 kilometro izango ditu, normalean baino gutxiago: "Federaziokoek gura izaten dute kilometro gehiagoko lasterketak egitea, baina aurtan ezetz esan dugu, lasterketa leherkorra antolatu gura izan dugu. Azken batean, hau proba baino ez da, esperimentu bat; gero, errepideak erakutsiko du asmatu egin dugun ala ez, baina Vueltan ere ikusi dugu etapa motzetan lasterketa biziagoak izaten direla, nahiz eta azken hori ere ez den beti hala betetzen. Ziklisten gogoaren araberakoa izaten da dena. Baina ez genuen lautadan kilometro gehiago jarri gura, Gatzagako lasterketak menditsua izan behar du, gu ez gara-eta lautadan bizi, gu Gatzagan bizi gara".



Aurtan ere Gatzagako iturri parean egongo da helmuga. Argazkian, Etxabe, iaz. GOIENA

"DORLETAKO AMA SARIAK MENDITSUA IZAN BEHAR DU, GU EZ GARA LAUTADAN BIZI, GATZAGAN BIZI GARA"

Andramaixetan Aretxabaletan

Uztailean bailaran izan diren lasterketa guztien ondoren, Dorletako Amaren sariaren ostean ziklistek lanean jarraituko dute, baina hemen ez da lasterketarik egongo abuztuaren 16ra arte.

Hala, Aretxabaletako andramaixen barruan, UDAk Leintz Bailarari Itzuliaren 81. edizioa antolatuko du -10:00, irteera eta helmuga Durana kalean-. Eskoriatza eta Arrasate artean egingo dituzte kilometro gehienak, eta birritan igoko dute Gatzaga.

Aramaio, beste nobedadea

Araban egin beharreko kilometroak kentzea ez da ibilbideari dagokionez egongo den nobedade bakarra. Izan ere, Dorletako Ama saria hasi eta Arrasatera jaistearekin batera, ziklistek Aramaiorako bidea hartuko dute -30. kilometroa-: "Herri barrutik pasako da lasterketa, eta bertan egongo da, gainera, esprint berezia. Alde horretatik, eskerrak eman gura dizkiogu Aramaioko Udalarari, eman digun babesagatik".

Aramaiotik Arrasaterako noranzkoa hartuko dute ziklistek, eta Olandixoko tuneletik Aretxabaletarantz -eruditik- joango dira, gero Eskoriatzara -eruditik- eta Gatzagako lehen igoerari ekingo diote -48. kilometroa-. Bigarren igoera egin aurretik, ziklistak Arrasateko Epeleko biribilguneraino etorriko dira -saihesbidetik- eta Aretxabaletan esprint berezia egin eta gero Eskoriatzatik -barrutik- pasa eta Gatzagara igoko dira bigarren -84.a-. Hirugarren igoerarako errekuaratzeko tarte txikia izango dute ziklistek, esan moduan, Arlaban jaitzi eta zuzen egingo dute-eta gora -100.a-.



Pilotu bat iazko lasterketan. GOIENA

Arrasateko Enduro Txapelketan eman daiteke izena dagoeneko

TXIRRINDULARITZA Irailaren 29an egingo duten lasterketa Espainiako Openerako puntuagarria izango da

X.U. ARRASATE

Arrasateko enduro lasterketak beste erronka bati helduko dio irailaren 29an; izan ere, aurtengo Espainiako Openerako bost proba puntuagarrietako bat izango da etxekoa. Hain zuzen, Arrasateko hitzorduekin amaituko da Opena, eta aurrealdeko postuengatik lehian dabilen pilotuek dena izango dute bertan jokoan.

Opena martxoan hasi zuten, Tortosan (Katalunia), bigarren hitzordua Madrilen antolatu zuten, La Adradan, hirugarren lasterketa maiatzan izan zen, Coruñan, eta pilotuak Tenerifera (Teror) joan ziren ekainaren 2an. Esan moduan, Arrasatekoa izango da azken hitzordua, irailaren 29an.

Izen ematea, zabalik

Arrasateko lasterketarako izen-ematea Espainiako Federazioa-

ren webgunearen bitartez egin behar da (*Rfec.com*). Txapelketa ofizialean parte hartzeko, federatuta daudenek 40 euro ordaindu beharko dituzte eta federatuta ez daudenek, 52 euro, eta irailaren 13a izango da izena emateko azken eguna. Hala, informazio gehiago gura duenak *enduroarrasate@gmail.com* helbidera idatz dezake.

Bergarako martxa, abian

Bestalde, Palmerakuak taldeak antolatuta, irailaren 22an egingo dute mendiko bizikleta martxa, eta hor ere zabalik dago izena emateko epea.

Kirol hitzordu horrek ez du inongo lehiakortasunik sustatuko; Palmerakuak taldeko lagunek martxarako bereziki prestatu dituzten bidezidor berriei gozatzea da helburua. *Kirolprobak.com* atarian eman daiteke izena (15 euro).

ZIKLISMOA Tourmalet-en egongo dira zain zale debagoiendarrak

Urtero moduan, Debagoieneko ziklismo-zale kuadrilla handia batuko da Tourmaleteko maldetan. Oñatitik autobusa abiatu zen eguaztenean 50 lagunekin. Bagnères de Bigorre-n amaitzen zen etapa ikustea zen asmoa, eta bihar, Tourmaleten egongo dira. "Ziklistak animatzera eta ondo pasatzera goaz", adierazi du Mikel Lizarralde.



Alaphilippe, Tourmaleten. N.SABATHIER



Iaz Italian egin zuten Bridges Nazioarteko Antzerki Egoitzako parte-hartzaileak. RESIDUI TEATRO

Nazioarteko sortzaileak Oñatin daude egunotan

Italian sortu zuten Bridges Nazioarteko Antzerki Egoitza ibiltariaren laugarren aldia abiatu zuten atzo, eguna, Oñatin; uztailaren 29ra bitartean, mundu osotik etorri diren artistek formakuntza saioak jasoko dituzte, eta herritarrekin ekintza asko egin ere bai

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Proiektu bat aurrera eramateko arte diziplina askotariko artistak toki baten elkartzen dituen ekimena da Bridges Nazioarteko Antzerki Egoitza. "Arloko profesionalendako formakuntza da, batetik, eta baita sorkuntza prozesu bat ere; izan ere, herriko hainbat txokotan eta herriko elkarteekin elkarlanean, ekitaldiak eskainiko ditugu egonaldiak irauten duen bitartean; horien artean, Udalaren Kanean egitarauan dagoen Parvathy Baul (Kerala-India) artistaren kontzertua eta uztailaren 28an, egonaldian sortuko dugun ikuskizuna estreinatuko dugu", azaldu du Ilargi Zabaleta antolatzaileak.

Mundu osotik etorritakoak

Jatorri eta profil askotariko artistak batu dira egunotan Oñatin. "Residui Teatroko kideak, hau da, antolatzaileak barne, hogeitaz lagun izango gara aurten go topaketan. Batzuk iaz Italian egin genuen hartan ere izan ziren, baina berriak dira gehienak. Denetik dago: Greziakoak, Argentinakoa, Italiako toki ezberdinetakoak, Danimarkakoa, Frantziakoak, Kanadakoak, Guatemalakoa, Espainiakoa ere hainbat daude...", dio Zabaletak.

Parte hartzaileek Eltzia dute lantoki eta lotarako leku, eta Antixena gaztetxean egingo dituzte otorduak. Urtero moduan,

gai bat izango du egoitzak oinarri, eta, oraingoan, *Mugak* aukeratu dute: "Euskal Herrian ardatz asko ditu gai horrek, eta egingo edo landuko dugun guztia horren bueltan izango da".

Herritarrekin elkartrukeak

Bridges sortzaileen arteko topaketa hutsa baino gehiago izatea gura dutela diote bultzatzaileek: "Erakundeen, herriko elkarten eta nazioarteko sortzaileen arteko sinergian sinisten dugu eta elkarrekin ikasteko espazioak sortzeko helburua ere badu; horregatik, hainbat elkartruke egingo ditugu, taberna eta bestelako tokietan, guztiontzako zabalik daudenak".

Herritarrei eskainitako ekintzak

Uztailak 22

- **22:00** Antixena gaztetxean elkar-truke saioa.

Uztailak 23

- **19:00** *De raices y cielo* ikuskizunaren proiektzioa Kultura etxeko zinema aretoan.

Uztailak 24

- **19:00** Parvathy Baul musikariaren kontzertua Lazarraga lorategian.

Uztailak 25

- **21:30** Iturri tabernan elkar-truke saioa.

Uztailak 26

- **20:00** *Apuntes sobre la felicidad* ikuskizuna eta ondoren, aktoreekin topaketa, Santa Ana aretoan.
- **22:00** Pako tabernan elkar-truke saioa.

Uztailak 27

- **13:30** Oñatin bizi diren kubatarrek antolatuta bazkaria eta elkar-truke ikuskizuna gaztetxean.

Uztailak 28

- **19:00** Ikuskizun ibiltaria kaleetan zehar.

Oharra: Aipatutakoez gain, beste elkar-truke gehiago ere egon daitezke; lotzen saiatzen ari dira.

Portugaleteko Folklore Jaialdia Debagoienean

Uztailaren 24an, dantzari kubatarrek izango dira Bergaran; eta Arrasaten, berriz, Armeniakoak

A. Aranburuzabala BERGARA

Elai Alai elkarteak 45. Nazioarteko Folklore jaialdia egingo du, bihar hasi eta martitzena bitartean, Portugaleten, eta, aurreko aldietan moduan, Bizkaiko herria bada ere jaialdiaren erdigune nagusi, handik kanpo hamasei ikuskizun eskainiko dituzte; horien artean, Arrasaten eta Bergaran.

Kubakoak eta Armeniakoak

Bergarako San Martin plazan, 19:00etan hasita, Kubako Camaguako Folklore Konpainiaren emanaldia izango da. Antolatzaileen esanetan, "konpainiak bere ezaugarri du herriak bihotz-bihotzean bizirik dituen tradizioak dantzaren eta musikaren bidez taularen gainean erakustea, dantza eta musika dira eta herriaren oinarri nagusi".

Monterron parkean izango da, 22:30ean hasita, Arrasateko emanaldia, eta Armeniako dantzariak izango dira taularen gainean. "Kokapen geografikoaren eraginez, kultura oso aberatsa du Armeniak. Gizonezkoen dantzak oldartsuak, azkarrak eta akrobaziazkoak dira, eta emakumezkoenak, berriz, pausu arinezkoak eta apaltasun handikoak", azaldu dute Elai Alai elkarteak.

ABUZTUAN ZABALIK!

ABUZTUKO OPORRETAN ERE GERTUKO INFORMAZIOA ESKAINIKO DIZUEGU
GOIENA TELEBISTAN, GOIENA.EUS ATARIAN ETA GOIENA NAHIERAN APP-EAN.



goiena
ZU HEMEN ZAUDE

Arrasate Blues jaialdiaren egitaraua

Uztailak 19

- **19:00** Kritikal Latin Blues taldea, 1990 Gastrotekan.
- **23:00** The Song taldea, Aterpe tabernan.

Uztailak 20

- **12:00** Mario Fernandino musikaria, Monte tabernan.
- **13:30** Blues Deluxe taldea, Kajoi eta Itzala tabernen artean.

- **17:00** Ibai-Txiki Blues Eguna –haurrentzako ekintzak–: Kia ukelele-jolearen kontzertua; apar festa; aurpegiak margotzeko tailerra eta Twistter erraldoia, Biteri plazan.
- **19:00** Aldakan taldea, Kajoi eta Itzala tabernen artean.
- **21:00** Leike taldea, San Andres auzoko Tantaka tabernan.
- **22:30** The Allnighters taldea, Herriko Plazan.

Uztailak 21

- **13:00** Garcia del Val taldea, Ezkiña tabernan.
- **19:00** Jose Barrio Quartet taldea, Herriko Plazan.
- **20:00** Jim TNT musikaria, Taupa tabernan.
- **21:00** Scarecrows taldea, Aterpe tabernan.

Oharra: Informazio gehiago, Ibaiarte.eus atarian.

Merkatarien eskutik, blues musika gozagarri

Ibai-Arte Merkataria eta Zerbitzu Elkartek, herriko tabernarekin eta Udalarekin elkarlanean, Arrasate Blues jaialdia antolatu du; hamaika kontzertu, haurrentzako ekintzak, argazki lehiaketa, herriko artisten mural-margotzea eta gehiago, asteburuan

A. Aranburuzabala ARRASATE

"Eguraldi ona egiten duenean, jendeak alde egiten du Arrasate, eta, ondorioz, antolatzen diren ekitaldietan ez da beti aurreikusi edo gura den besteko jenderik batzen.... eta hori ikusita, zergatik ez dugu musika aitzakia hartuta egitarau sendo bat antolatzen?", pentsatu genuen, eta hala sortu dugu Arrasate Blues jaialdia", azaldu du Ibai-Arteko presidente Jon Apraizek.

Tabernarietako ondo hartu zuten proposamena, eta uztailaren 4an estreinatu zuten egitaraua, Taupa tabernan, Blas Picon&The Junk Express taldearen kontzertuarekin, eta Kajoi tabernan eskaini zuen Fredi Pelaez Triok,

uztailaren 9an, bigarrena. Asteburuan, berriz, musika eskaintza zabala izango da hamar tabernatan izango dira zuzenekoak –horien artean herriko musikariak ere bai–, eta Udalaren eskutik, Herriko Plazan The Allnighters taldeak joko du bihar, zapatua.

Herriko elkarteekin elkarlanean
Gaur hasi eta domeka bitartean egingo duten Arrasate Blues-ek, musikaz gainera, osagai gehiago izango dituela azaldu du Apraizek: "Haurrentzako, adibidez, Ibai Txiki Blues Eguna izango da bihar, eta, horretarako, Atracciones Sanz-en eta Kids&Us herriko ingeles akademiaren laguntza izan dugu.

Artgazki elkartearekin batera lehiaketa antolatu dugu. Jaialdian egindako argazkiak izan behar dira, edozeinek har dezake parte, eta uztailaren 25eko 22:00ak aurretik bidali behar dira. Parte hartzeko orria Ibaiarte.eus atarian dago. Era berean, herriko hainbat artistak ere bat egin dute jaialdiarekin, eta hainbat kontzertutan muralak margotuko dituzte. Guztion artean erakutsiko dugu herrian ere badagoela non gozatu".

2.500 txartel banatu dituzte

Ibai-Arteko dendetan erostearren truke, jaialdian doako edariak lortzeko opari-txartelak arrakastaz banatu dituzte bi astean.

Oñatin abiatuko da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa, irailean

48 parte hartzaile izango dira, hiru debagoiendar horien artean; saioak hamasei herritan dira, eta finala Illunben

A. A. OÑATI

Santa Ana antzokian hasiko da, irailaren 14an, aurtengo Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. Hortik aurrera, ia astero izango dira saioak, fasetik faserako Gipuzkoan zehar: zazpi final-

zortziren, bost final-laurden, hiru finalurreko –horien arteko bat Arrasaten, azaroaren 17an; eta finala Illunben egingo dute abenduaren 14an.

Saio guztietako sarrerak Bertsosarrerak.eus atarian erosi

ahalko dira, irailaren 2an hasita. Bertsozale Elkarteko bazkideek sarreretan prezio berezia izango dute eta bonua eskuratzeke aukera ere bai –saio guztietarako balioa dutena, finale-rako izan ezik–.

Hiru emakume bertsolari

Ainhoa Agirreazaldegia elgetarra, Ane Zuazubiskar arrasatearra eta Maider Arregi oñatiarra dira aurtengo Debagoieneko ordezkariak txapelketan; Zuazubiskarrentzako estreinakoa da.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko uztailako sariak!



SPC Heaven 10.1 tableta

Parte hartzeko sariaren izena: Tableta



Sarrerak
Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz



Otarra
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarra



PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indusaren dogan (CFO 151000) legearen arabera, jakingarria dugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuen Informatika Sistemak baten bitarteko direla. Datu-haiek horien helburu bakarra da indusaren dogan zerbitzuen gestioa. Ez duzue inongo datu debetuzko artxibo, baina zuzentzeko edo zuzentzeko helburu honetarako dituzte. kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

SANTA ANA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkaria Otorduan atala eta hartu parte!

943 25 05 05 kluba@goiena.eus

KLUBA, Jatetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailak gozatzeko...



Bazkidetu zaitez 2019ko uztailetik aurrera: 31€
Deitu: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate edo Bergara. Bi edo hiru logelako etxebizitza behar dut errentan hartzeko. 651 67 96 79

Arrasate. Bi edo hiru logelako etxebizitza behar dugu errentan hartzeko, Arrasate erdigunean eta gertu. 608 15 37 07

Bergara. Ama-alabak gara eta etxebizitza edo logela bat behar dugu errentan. 611 07 91 50

Debagoiena. Etxebizitza hartuko nuke errentan. Telefonoak: 612 53 77 14 edo 612 55 69 52

105. ETXAEK OSATU

Bartzelonan etxebizitza osatu. 2019/2020 ikasturteko etxebizitza konpartitzeko ikasle bila nabil. 695 71 94 64

Bergara. Logela bat daukat errentan emateko. 659 90 85 13

Bergara. Logela ematen da errentan erdigunean. 631 15 19 94

Etxebizitza Bilbon. 2019/2020 ikasturtean, Bilbon ikasle-etxebizitza osatuko nuke. Telefonoak: 606 11 44 83

Oñatin etxekide bila. Oñatin lanean gabiltzan bi pertsona gara eta etxekide baten bila gabilta. Etxea erdigunean dago. 634 70 77 73

2. GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Altamirazpin garaje itxia salgai. 17 metro koadro dauzka eta ate automatiko. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 670 29 60 12 edo 697 41 66 24

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Antzuola. Irailetik aurrera, zortzi urteko bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko, posible bada, pertsona euskaldun baten bila gabilta. Orduetgia: goizeko 7:00etatik 10:00etara. 606 27 87 47

Umeak zaindu Bergaran. Bergaran, irailetik aurrera, umeak eskolara eraman, eguerdian bazkaria eman eta etxeko lanak egiteko pertsona baten bila gabilta. Nahiago dugu, euskaraz dakien pertsona izatea. Epe luzerako: 4-5 urte. Egun erdiko kontratua eskaintzen dugu. Telefonoak: 635 20 79 76

402. ESKAERA

Arrasate eta inguruak. 23 urteko mutila lanegian jarduteko gertu. Telefonoa: 608 15 37 07

Arrasate. Etxe eta atariak garbitzen, sukaldean laguntzen, nagusiak zainitzen edota supermerkatuan elikagaiak jartzen lan egingo nuke. Telefonoa: 688 29 97 05

Debagoiena. Abuztuan zehar etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke, ordezkapenak egiten. Telefonoa: 654 15 43 01

Debagoiena. Astean zehar nagusiak zaindu eta garbiketak egingo nituzke, orduka. 631 67 53 36

Debagoiena. Emakume boliviarra pertsona nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Deitu 617 80 53 43 edo 602 32 06 58 telefonoetara

Debagoiena. Emakumea astean zehar lan egiteko gertu. Nagusiak zainitzen edo bestelako lanak egiteko ere gertu. Telefonoa: 632 87 92 34

Debagoiena. Esperientzia duen neska nagusiak zainitzen, etxeak garbitzen eta abarreen lan egiteko gertu. 602 01 32 58

Debagoiena. Esperientzia duen neska orduka zein etxean bertan bizi izaten nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko gertu. Baita tabernako zerbitzari moduan lan egiteko ere. 654 11 15 14

Debagoiena. Esperientzia handia duen mutila nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko gertu. Baita tabernako zerbitzari moduan lan egiteko ere. 654 11 15 14

Antzuolako

"Gaztelu Gain"elkartea

Bazkide berrien bila gabilta. Elkartea Trekutzen dago, mendiaren erdian, basoz eta zelaiez inguratirik. Animatu eta etorri ikustera inongo konpromiso gabe. 635 20 58 41 lker

Debagoiena. Garbiketeta eta zaintza lanak egingo nituzke. Etxean bertan bizi izaten, orduka edota asteburuetan. 602 09 32 44

Debagoiena. Garbiketak egiten edo nagusiak zainitzen lan egingo nuke. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. Baita gauetan edota oporretako ordezkapenak egiten ere. Legezko agiriak eta sozio-sanitario ikasketak dauzkat. 682 31 97 37

Debagoiena. Garbiketak egiten, nagusiak zainitzen edota sukaldeko lanetan aritzeko gertu nago. Telefonoak: 632 84 49 63 edo 612 42 03 62

Debagoiena. Garbiketetan edota zaintza lanetan aritzeko nintzateke, orduka edo jardunaldi osoz. Telefonoa: 632 33 19 27

Debagoiena. Gaztea lan bila. Etxean bertan bizi izaten, egunez edo orduka. Gaez eta asteburuetan ere bai. Berehala hasteko prest eta orduetegi arazo barik. Telefonoa: 643 14 38 75

Debagoiena. Haurren edo pertsona nagusien zainketa lanak, garbiketeta lanak edo sukaldari moduan jarduteko prest nago. Esperientzia daukat. Orduka, etxean bertan bizi izaten eta baita asteburuetan ere. 632 57 66 30

Debagoiena. Mutila gertu atari, elkarte eta abarrek garbitzeko. Legezko agiriak eguneratuta dauzkat. Elikagaiekin lan egiteko titulua ere bai. Telefonoa: 625 28 38 11

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzeko edota baserrian lan egiteko. 602 88 89 83

Debagoiena. Mutila lan bila. Esperientzia dut janari dendan jendaurrean, biltegian, antolatan eta abarreen. Baita gaixoak gauetan ospitalean zainitzen ere. 692 02 94 72

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta garbiketak egingo nituzke orduka, egunez edo etxean bertan bizi izaten. 632 18 43 16

Debagoiena. Neska arduratsua gertu etxean bertan bizi izaten edo egunean zehar nagusiak zaintzeko. 631 93 11 90

Debagoiena. Neska euskalduna udan umeak zaintzeko prest. Telefonoa: 693 40 89 93

Debagoiena. Oporretako ordezkapenak egiteko gertu nago, nagusien eta umeen zaintzan edota

garbiketeta lanetan. Telefonoa: 674 53 60 59

Debagoiena. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Orduka. 632 27 58 61

Debagoiena. Pertsona nagusiak edota haurrak zainitzen, garbitzaile bezala edo zerbitzari eta sukaldari laguntzaile bezala lan egiteko prest. Telefonoa: 632 62 76 07

Debagoiena. Soziosanitario titulua daukan neska gertu etxean bertan bizi izaten edo orduka zaintza lanetan jarduteko. Telefonoa: 600 01 48 81

Debagoiena. Zaintza eta garbiketeta lanetan aritzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Orduetegi arazo barik. Telefonoa: 612 27 82 34

Debagoiena. Zaintza eta garbiketeta lanetan aritzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Pres-tutasun osoa. Telefonoa: 627 62 50 08

Debagoiena. Zaintza lanak egingo nituzke etxean

bertan bizi izaten edo bestela. Legezko agiriak, erreferentziak eta Eusko Jaurlaritzako ziurtagiria dauzkat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 695 38 85 09

Debagoiena. Zaintza lanak eta atari zein bestelakoen garbiketak egiteko gertu nago. 663 46 71 10

Debagoiena. Zerbitzari edo sukalde laguntzaile moduan, denetarik garbiketak egiten, pertsona nagusiak zainitzen, animaliak zainitzen edo enpresen administrazio alorrean prestatutako pertsona lanerako prest. 631 76 69 33

Umeak zainitzen. Mondragon Unibertsitateko magisteritza haur hezkuntzako ikasle bat naiz. 18 urte ditut eta Aretxabale-tan bizi naiz. Uztaillean umeak zainitzen lan egitea gustatuko litzaidake. Esperientzia dut horretan umeekin praktikak ikastolan eta udalekuetan egin ditudalako. 688 66 41 14

7. ANIMALIAK

704. BESTELAKOAK

Loroa galdu da Bergaran. Ostegunean, uztailak 4, loroak ihes egin digu Madura kalean. IAT inguruan ere ibili da. Grisa da. 695 69 81 66 edo 943 76 26 92

8. DENETARIK

801. SALDU

Txabola salgai Leintz-Gatzagan. Egoera onean, tximiniarekin, ekipatuta eta inguruan lursail txiki bat duena. Errepide generaletik metro gutxira, Arabako mugatik oso gertu. Deitu zenbaki honetara: 669 29 29 38

802. EROSI

Artzain elektrikoa. Bigarren eskuko artzain elektrikoa erosiko nuke. Telefonoa: 656 75 76 98

807. AURKITU

Audifonoa Oñata Zelain. Audifono bat aurkitu dugu Urkuluko Oñata Zelain. Arrasateko BAZen utzi dugu.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



IMANOL SORIANO

'MILA ESKER ETA GERO ARTE, ALFREDO'

'Berezia' Zapata, 16:00 eta 21:15/Domeka, 12:00 eta 22:00



IMANOL SORIANO

ANTZUOLAKO JAIETAKO LABURPENA

'Jaiak Martitzena, 21:00 eta 23:00

EGUBAKOITZA, 19	ZAPATUA, 20	DOMKA, 21
10:00 Hemen Debagoiena 11:00 Elkarrizketak: Iñigo Astiz 11:30 Hemen Debagoiena 12:30 Elkarrizketak: Manu Etxezortu 13:00 Hiri-baratzea 3 13:30 Hemen Debagoiena 14:30 Albisteak 14:45 Harmailatik 15:15 Hemen Debagoiena 16:15 Albisteak 16:30 Kantari 9 17:00 Albisteak 17:15 Nor baino nor (Aramio) 17:45 Albisteak 18:00 Hemen Debagoiena 19:00 Hiri-baratzea 3 19:30 Elkarrizketak: Iñigo Astiz 20:00 Hemen Debagoiena 21:00 Nor baino nor 21:30 Elkarrizketak: Itziar Cantera 22:00 Hemen Debagoiena 23:00 Nor baino nor 23:30 Elkarrizketak: Itziar Cantera	09:00 123 Hemen da Miru 09:30 Txantxariak 1 10:00 Kantari 10 10:30 123 Hemen da Miru 11:00 Hemen Debagoiena 12:00 Elkarrizketak: Itziar Cantera 12:30 Hiri-baratzea 3 13:00 Jaiak: Antzuolako jaiak 2018 14:00 Nor baino nor (Aramio) 14:30 Hemen Debagoiena 15:30 Asteko errepasoa 16:00 Chirlaqueren agur kontzertua 15:45 Elkarrizketak: Manu Etxezortu 18:15 Asteko errepasoa 18:45 Hemen Debagoiena 19:45 Jaiak: Antzuolako jaiak 2018 20:45 Elkarrizketak: Itziar Cantera 21:15 Chirlaqueren agur kontzertua 23:00 Jaiak: Antzuolako jaiak 2018	09:00 Txantxariak 1 09:30 Kantari 10 10:00 123 Hemen da Miru 10:30 Txantxariak 1 11:00 Kantari 10 11:30 Elikatu 7 12:00 Chirlaqueren agur kontzertua 13:45 Elkarrizketak: Manu Etxezortu 14:15 Asteko errepasoa 14:45 Hemen Debagoiena 15:30 Hiri-baratzea 3 16:00 Elikatu 7 16:30 Jaiak: Antzuolako jaiak 2018 17:30 Elkarrizketak: Itziar Cantera 18:00 Nor baino nor 18:30 Elkarrizketak: Manu Etxezortu 19:00 Hemen Debagoiena 20:00 Elikatu 7 20:30 Hiri-baratzea 3 21:00 Jaiak: Antzuolako jaiak 2018 22:00 Chirlaqueren agur kontzertua 23:45 Elkarrizketak: Manu Etxezortu

EGUBAKOITZA, 19

ITZIAR CANTERARI ELKARRIZKETA

'Elkarrizketak'

21:30/23:30

ASTELEHENA, 22

ASTEBURUKO KIROL EMAITZEN ERREPASOA


'Harmailatik'

21:30/23:30



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/telebista Edo eskaneatu aldameneko q kodea.

EGUAZTENA, 24



GOIENA

OPORRETARAKO GOMENDIOAK

'Hemen Debagoiena'

18:00/20:00/22:00

EGUAZTENA, 24

SAMARA VELTERI ELKARRIZKETA

'Elkarrizketak'

21:30/23:30

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

URTEURRENA



Juan Maria Ayastuy Igarzabal

2018ko uztailaren 1ean hil zen, 87 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, uztailaren 21ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2019ko uztailaren 19an.

URTEURRENA



Araceli Alarcia Eguluz
'Txeli'

2018ko uztailaren 19an hil zen, 84 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, uztailaren 21ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Beti egongo zara gure bihotzetan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, familiaren izenean. Bergaran, 2019ko uztailaren 19an.

URTEURRENA



Ana Maria Barcena Ezpeleta
Florencio Yarzaren alarguna

2018ko uztailaren 18an hil zen, 86 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, uztailaren 21ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Gogoan zaitugu.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2019ko uztailaren 19an.

URTEURRENA

Jose Julian Urcelay Arregui

2018ko uztailaren 23an hil zen, 81 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, uztailaren 21ean, 13:00etan, Ueberako San Paulo elizan.

Gure eredua izan zinen eta gure zeruko izarra izango zara.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran (Ubera), 2019ko uztailaren 19an.

URTEURRENA



Fernando Martinez de Zuazo Unzurrunzaga

2018ko uztailaren 19an hil zen, 69 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, uztailaren 20an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Beti pozik eta beti alai ibiltten ziñan pasuan, Lagun danairi kaso egiñaz aurrera zure bidian.

Zure izate horren parte bat Gordeta daku geurian, Zutaz oroittuko gara beti, Usakon eta mendixan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2019ko uztailaren 19an.

URTEURRENA



Antonio Errasti Ortueta

2018ko uztailaren 26an hil zen, 81 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, uztailaren 21ean, 13:00etan, Aramaioko Azkoaga auzoko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Beti gure bihotzean.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, familiaren izenean. Aramaion, 2019ko uztailaren 19an.

OROIGARRIA



Joxe Ramon Elortza Gorosabel

2019ko uztailaren 15ean hil zen, 74 urte zituela.

Umore ta eskuzabaltasunez familia bete duzu, zuk emandako guztiarekin bidea egingo dugu.

Eskerrik asko, osaba!

Zure lobak. Arrasaten, 2019ko uztailaren 19an.

OROIGARRIA



Joxe Ramon Elortza Gorosabel

2019ko uztailaren 15ean hil zen, 74 urte zituela.

Zure maitasun, kermen ta umoreak izar argi bat sortu du gurean. Zuk erein duzun haziak loratuko du gure etxean. Lurrak goxo-goxo har zaitzala. Mila esker, Joxerra.

Zure anai-arrebak. Arrasaten, 2019ko uztailaren 19an.

OROIGARRIA



Igor Lete Aranburu

2008ko uztailaren 22an hil zen, 24 urte zituela.

Zu bezalako izarrak ez dira inoiz itzaltzen.

Maite zaitugu.

Zure familia. Bergaran, 2019ko uztailaren 19an.

OROIGARRIA

Joxe Ramon Elortza Gorosabel

2019ko uztailaren 15ean hil zen, 74 urte zituela.

Arrasate Telebistaren sorreratik bertatik eta Goienako Errektore Kontseiluraino, ondoan izan zaitugulako, eskerrik asko, Joxerra.

goiena

Arrasaten, 2019ko uztailaren 19an.

ESKER ONA



Joxe Ramon Elortza Gorosabel

2019ko uztailaren 15ean hil zen, 74 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztiok. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2019ko uztailaren 19an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu




Jakin ezazue nahiz eta heriotz asegurtua izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA

TXUTXU-MUTXUAK

**1. Omenaldia jaso zuten**

Antzuolako erretiratuek herriko jaietako bazkaria egin zuten. Landatxoeko nagusienak diren Magdalena Ortiz (97 urte) eta Angel Garcia (95 urte) omendu zituzten.

2. 'Busti zaitez', arrakastatsu

Esklerosi anizkoitza dutenen aldeko ekimena egin zuten aurreko asteburuan Oñatin. Material salmenta postua ipini zuten, eta saldutako kamisetekin jasotako dirua EM Euskadi elkartearendako izango da.

3. Urpeko arkeologia egin zuten

Urteroko hitzordu bilakatu da Musakolako igerilekuetan urpeko tailerra egitea. Oraingoan, Kristo aurreko XIV. mendeko itsasontzi baten aztarnen bila ibili ziren irudiko gaztetxoak.

4. Madrildik Goienara

IAMCR nazioarteko biltzarrean parte hartu duten eta komunikazio irakasten duten hainbat irakasle Goienan egon dira bisitan, komunikabide euskaldunen lana ezagutzeko.

5. Zilarrezko ezteiak, elkarrekin

Jose eta Ana 1994ko uztailaren 23an ezkondu ziren, eta urte bereko abuztuaren 13an Anaren ahizpa Kati eta Jesus. Bikote eskoriatzarrek elkarrekin ospatu zituzten 25 urteak. "Beste 25 bete ditzagula!"

6. Bihar ezkonduko dira

Maitane eta Andoni oñatiarrak bihar ezkonduko dira. "Zorionak, etxekoen eta kuadrillakoen partetik! Topera disfrutatuko dugu bihar elkarrekin. Segi zoriontsu izaten, eta ondo pasa eztei-bidaian".

Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkariatzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ZORION AGURRAK




ARRASATE
Aner eta Marene Galan Uriarte
3 eta 6 urte beteko dituzte uztailaren 25 eta 29an. Mila zorion, maitiak! Aitabxoren, amatxoren eta familia osoaren partetik!



OÑATI
Oinatz Urzelai Aizpeolea
Uztailaren 25ean, 8 urte. Zorionak, Oinatz!! Dagoeneko zortzi urte gure etxeko mutikoak; ze handi egiten ari zaren! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta ia zuk espero duzun opari berezi hori iristen den! Muxu handi bat etxeko denen eta, bereziki, Auritzen partetik!



ZUMARRAGA
Mayi Garciagango Zabalo
Uztailaren 25ean, 10 urte. Zorionak, Mayi. Ondo pasatu zure urtebetetzea. Muxu handi bat .



ARRASATE
Irati Horrillo Tierno
Uztailaren 25ean, 8 urte. Zorionak, Irati! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetzea. Musu handi bat denon partetik!



OÑATI
Noa Garcia Albizu
Uztailaren 24an, urtebete. Zorionak, *bitxito!* Jarraitu gure bizitzak alaiketan. Patxo bat etxekuan partetik!



BERGARA
Jurgi Larrea Perez
Uztailaren 24an, 9 urte. Zorionak, Jurgi! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu handi bat, familia osoaren partetik.



BERGARA
Shere Moreno
Uztailaren 23an. Zorionak, amatxo! Egun polita pasatu. Munduko amarik onena zara. Asko-asko maite zaitugu. Muxu handi bat, Kenarren eta Alaineren partetik.



BERGARA
Elene Cruz Aldekoa
Uztailaren 23an, 2 urte. Zorionak, gure printzesa!



BERGARA
Oier Gantxegi Gallastegi
Uztailaren 23an, 6 urte. Zorionak, erraldi! Zoragarri pasatu zure urtebetetze eguna, Enekoren eta etxekoan partetik! Muxu pila bat.



OÑATI
Laia Umerez Eceolaza
Uztailaren 22an, 5 urte. Zorionak, Laia! Jada bost urte! Ondo-ondo pasatu zure zorion egunean. Muxu pottolo bat danon partetik; bereziki, Izeirena.



ARAMAIO
Markel Arrizabalaga Gonzalez
Uztailaren 22an, 4 urte. Zorionak, mutikote! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egune. Patxo handi bat, danon partetik.



ARRASATE
Unax Beitia Jara
Uztailaren 22an, 11 urte. Zorionak, Unax! Primeran pasatu zure eguna eta gozatu. Segi horrelako jator! Izugarri maite zaitugu. Mila patxo! Familia eta, batez ere, Malen.



OÑATI
Oier Sanchez Gomez
Uztailaren 21ean, 10 urte. Zorionak, Oier! Ondo pasatu zure eguna. Zure familiaren partetik! Segi horrela. Maite zaitugu. Amatxo, aitaxo eta Unai. Muxuak!



OÑATI
Leire Aranburu Inza
Uztailaren 20an, 20 urte. Zorionak eta urte askotarako, *petarda!* Primeran pasatu eguna eta aprobetxatu, ez daku-eta dudarik. Patxo handi bat Miliren eta Oihanaren partetik.



OÑATI
Izar Unzurrunzaga Goñi
Uztailaren 20an, 11 urte. Ondo-ondo pasatu zure eguna. Zorionak eta muxu mila, familiaren partetik, bihotza.



ARRASATE
Maialen Usatorre
Uztailaren 20an, 18 urte. Zorionak, Maialen, familia osoaren partetik! Muxu handi bat!



BERGARA
Laida Akizu Bilbao
Uztailaren 20an, 10 urte. Zorionak, Laida! Ondo pasatu zure eguna eta disfrutatu! Patxo handi bat, familiakoen partetik! Mua!



OÑATI
Aihoa Dorado Hernandez
Uztailaren 19an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Zazpi urte! Zu bezain egun alai eta magikoa ospatuko dugu elkarrekin. Muxu erraldi bat, familia osoaren partetik. Maite zaitugu.



ARETXABALETA
Elene San Miguel Erostarbe
Uztailaren 19an, 4 urte. Zorionak, *pitxurrina!* Ondo-ondo pasatu eguna, sorginxo guria! Muxu eta besarkada itzela, maitia!



ARETXABALETA
Salvador Rodriguez Coronado
Uztailaren 19an, 49 urte. Zorionak, aita, zure urtebetetzean! Ondo-ondo pasa dezagula guztiok elkarrekin. Muxuak zure semearen eta etxekoan partetik.



OÑATI
Iker Serrano Lopez
Uztailaren 19an, 9 urte. Zorionak, maitia! Ondo-ondo pasatu zure egunean. Muxu handi bat, denon partetik!



ARAMAIO
Iñaki Gonzalez Moreno
Uztailaren 18an, 9 urte. Zorionak, Iñaki! Ondo pasatu zure eguna eta patxo pila bat, familia osoaren partetik. Maite zaitugu!



BERGARA
Maialen Arregi Gantxegi
Uztailaren 18an, 9 urte. Zorionak, pitxin! Bederatzi urte pasatu die konturatu gabe. Handi-handi zauz jada! Orain arte bezain jatorra izeten jarraitxu. Patxo handi bat, etxekuan partetik.



ARRASATE
Mikel Segovia
Uztailaren 18an, 2 urte. Zorionak, pitxin. Bi urte egin dituzu jada. Zelako handi egin zaren. Muxu pottolo bat amatxoren, familiaren eta lagunaren partetik.



ELGETA
Aner Garciagango Valdevieso
Uztailaren 17an, 11 urte. Zorionak, Aner. Ondo pasatu zure urtebetetzea, danon partetik.



ARRASATE
Naia Nilsson
Uztailaren 17an, urtebete. Zorionak! Urtetxo bat, maitia! Muxu handi-handi bat, familiaren eta laguntxoan partetik, pexpolin!



ARRASATE
Oxel Etxenautia Arrizabalaga
Uztailaren 16an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu eguna eta muxu handi bat, etxekoan partetik. Berezi zure lehengusu Xabatek.



ARRASATE
Izaro Ramos Andres
Uztailaren 15ean, 10 urte. Zorionak, Izaro. Ondo pasatu eguna, aittaren eta amamaren partetik.



OÑATI
Xuban Pildain
Uztailaren 12an, 3 urte. Zorionak, Xuban! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Muxu potolo bat, danon partetik.

Urte askotarako!

Zorion itazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 19

OÑATI 'Letraz' jardunaldiak
EHUko diseinu grafikoko ikerketa taldearen eta Arantzazu Gaur Fundazioaren eskutik.
Gandiaga Topagunean, 16:00etan.

ELGETA Bisita berezia
Intxortako frontera

Gaur, 16:30ean. Izena, aurrez: *turismo@debagoiena.eus* edo 943-79 64 63.
Asentzion.

OÑATI Orturako produktuak
San Martingo auzoko aisialdi-baratzeen jarraipen teknika egin eta baratzezainei produktuak eskainiko zaizkie.
San Martinen, 16:30ean.

OÑATI Odol ateratzea
Oporren aurreko azkena.
Euskaldun Berria gelan, 17:00etan.

ARETXABALETA Portasolgo jaiak
17:30ean, buruhandiak eta erraldoiak; 18:00etan, patata-tortilla lehiaketa; 19:30ean, sari banaketa eta tortilla dastatzea; 22:30ean, familiendako zinema emanaldia; eta 22:30ean, Bixentak eta The Tacata's taldeen kontzertua.
Portasolen.

OÑATI Madalenako jaiak
17:30ean, pilota txapelketa; 20:00etan, etxafuego jaurtiketa; eta 22:00etan, Wood Strings, The Bobby's eta KO Etiliko taldeak.
Santxolopeztegi auzoan.

ARRASATE Kritikal Latin Blues Band taldea
Arrasate Blues ekimenaren baitan.
Euskal Herria plazan, 19:00etan.

OÑATI Txost! taldea
Urretxu-Zumarragako laukotearen kontzertua.
Arrano tabernan, 20:30ean.

BERGARA A Contrablues taldea
Bizitasuna, ausardia eta konpromisoa dituen taldea. Alberto Noel, Hector Martin, Joan Vigo, Nuria Perich eta Jonathan Herrero dira taldeko kideak.
Espolioan, 22:00etan.

ESKORIATZA Eskean Kristo taldea
Rock klasikoan oinarrituta, ukitu psikodelikoak dituzten kantuak, Errekan Gora jaialdian.
Gernika plazan, 22:30ean.

ARRASATE 'The Song' taldea
Arrasate Blues ekimenaren baitan.
Aterpe tabernan, 23:00etan.

ANTZUOLA Obaneuke taldea
Erronomia, herriko jaietan.
Herriko plazan, 23:00etan.

ZAPATUA 20

OÑATI Mendi irteera
Hiru Erregeen Mahaira joango dira Aloña Mendikoak.
Postetxeko geltokian, 06:00etan.

OÑATI 'Letraz' jardunaldiak
EHUko diseinu grafikoko ikerketa taldearen eta Arantzazu Gaur Fundazioaren eskutik.
Gandiaga Topagunean, 09:00etan.

ELGETA Bisita berezia
Intxortako frontera
Gaur, 11:00etan. Izena, aurrez: *turismo@debagoiena.eus* edo 943-79 64 63.
Asentzion.

ARETXABALETA Portasolgo jaiak
11:30ean, 100 metro takarraran lasterketa; 12:00etan, puzgarriak; 13:00etan, paella dastatzea; 14:30ean, auzo bazkaria; 16:00etan, mus txapelketa eta Margumission taldea; 17:00etan, jolasak; 17:30ean, kalejira, 18:30ean, poteoa; 20:00etan, batukada; 22:30ean, Maikel Night DJa; eta 23:00etan, suzko erruberak.
Portasolen.

ARRASATE Mario Fernandino taldea
Arrasate Blues ekimenaren baitan.
Monte tabernan, 12:00etan.

OÑATI Madalenako jaiak
13:00etan, meza; 17:00etan, mus txapelketa, bizikleta ibilaldia eta pilota txapelketa; 18:00etan, Potx eta Lotx, 21:00etan, afaria; eta erronomia.
Santxolopeztegi auzoan.

ARRASATE Blues Deluxe taldea
Arrasate Blues ekimenaren baitan.
Herriko Plazan, 13:30ean.

OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua
Parrokia eta Sancti Spiritus unibertsitatea ezagutzeko aukera. Izena, aurrez: 943-78 34 53.
Turismo Bulegoan, 13:00etan.

OÑATI 50. Arantzazura Igoera
Gazte mailakoendako lasterketa. Sindika jatetxean bukatuko da.
Roke Azkuneke biribilgunean, 16:00etan.

ANTZUOLA Goitibeherak
Antzuolako jaiak.
Ondarren, 17:00etan.

OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua
Parrokia eta Sancti Spiritus unibertsitatea ezagutzeko aukera. Izena, aurrez: 943-78 34 53.
Turismo Bulegoan, 17:00etan.

ESKORIATZA Maringo jaiak
18:00etan, etxafuegoak eta Arientza kanpai-jole eskolakoak; 21:00etan, afaria; eta 23:00etan, AZ Gaubela.
Marin auzoan.

ANTZUOLA Alardea
Lehenengoz emakumezko bat izango da kapitain: Edurne Iturbe.
Herriko Plazan, 19:00etan.

OÑATI 'Aloña ilunabarrean'
Izena: *arantzazu@gipuzkoamendizmendi.net* edo 943-78 28 94.
Arantzazuko Parketxean, 18:30ean.

ARRASATE Aldakan taldea
Arrasate Blues ekimenaren baitan.
Herriko Plazan, 19:00etan.

ARRASATE Leike taldea
Arrasate Blues ekimenaren baitan.
Tantaka tabernan, 21:00etan.

ARRASATE The Allnighters taldea
Arrasate Blues ekimenaren baitan.
Herriko Plazan, 22:30ean.

ANTZUOLA Joselu Anaiak taldea
Antzuolako jaiak.
Herriko Plazan, 23:45ean.



IMANO SORIANO

ARRASATE Txakolin Eguna
Debagoieneko txakolin ekoizleen txakolina dastatzeko aukera egongo da. 12:00etan, txakolin dastatzea eta hanburgesa-pintxoak Seber Altuben, eta egun osoan zehar azoka berezia.
Bihar, zapatua, Seber Altube plazan, 12:00etan.

DOMEKA 21

OÑATI 'Espele Arrikruz' abentura
18 urtetik gorakoendako. Izena, aurrez: 943-08 20 00.
Arrikruzten, 09:30ean.

ARRASATE 'Lezetxiki, Neanderthalen bila' bisita gidatua
Iberiar penintsulako hamar aztarnategi klasikoaren artean garrantzitsuenetakoa ezagutzeko aukera. 10:00etan euskaraz, eta 11:30ean gazteleraz.
Garagartzako plazan.

ANTZUOLA Jolas parkea
Umeendako ekintza, Antzuolako jaietan.
Patioan, 11:00etan.

ESKORIATZA Maringo jaiak
11:30ean, meza, eta ostean, luntxa.
Marinen.

ARETXABALETA Portasolgo jaiak
11:00etan, azoka; 12:00etan, ur-puzgarriak; 12:30ean, emakumeendako defentsa pertsonal ikastaroa; 13:00etan, paella lehiaketa; 17:00etan, skate erakustaldia; 18:00etan, erronomia; eta 19:30ean auzoko gazteenari eta nagusienari omenaldia.
Portasolen.

OÑATI Madalenako jaiak
12:00etan, meza eta ostean luntxa; 13:00etan, pilota txapelketako

finala; eta 18:00etan, Leire Etxezarretaren eta Eider Garroren emanaldi akustikoa.
Santxolopeztegin.

ARRASATE Artazubiaga baserrira bisita
Hango Otxia txakolina ezagutzera, Txakolin Egunaren baitan.
Artazubiaga baserrian, 12:00etan.

BERGARA Musika Bandaren kontzertua
Enrike Txurrukak gidatuta.
Pilotalekuan, 12:30ean.

OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua
Parrokia eta Sancti Spiritus unibertsitatea ezagutzeko aukera. Izena, aurrez: 943-78 34 53.
Turismo Bulegoan, 13:00etan.

ARRASATE Garcia del Val taldea
Arrasate Blues ekimenaren baitan.
Ezkiña tabernan, 13:00etan.

OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua
Parrokia eta Sancti Spiritus unibertsitatea ezagutzeko aukera. Izena, aurrez: 943-78 34 53.
Turismo Bulegoan, 17:00etan.

ARRASATE Jose Barrio Quartet taldea
Arrasate Blues ekimenaren baitan.
Herriko Plazan, 19:00etan.

ARRASATE Jim TNT taldea
Arrasate Blues ekimenaren baitan.
Taupako terrazan, 20:00etan.

ARRASATE Scareworks taldea
Arrasate Blues ekimenaren baitan.
Aterpe taberman, 21:00etan.

BERGARA DeDiego Brothers taldea

Juan eta Victor de Diego anaiek sortutako taldea. Jazz eta soul doinuak, Berumugan.
Espoloian, 22:00etan.

ASTELEHENA 22

ARETXABALETA 'Imaginagintza laikoa' erakusketa

Jabier Oiartzunen eskulturak ikusgai, hilaren 31ra arte.
Arkupen, 11:00etan.

OÑATI 'Bridges' proiektuko artisten lan zatien erakusketa
Hamabi egunez herrialde desberdinetan egindako antzerki erakustaldietako collage bat.
Gaztetxean, 18:00etan.

MARTITZENA 23

OÑATI Donostiako hondartzara irteera

Topalekuko erabiltzaileendako. Aurrez eman behar zen izena.
Postetxeko geltokian, 09:00etan.

OÑATI Singular dendak tailerra
Bigarren prestakuntza tailerra egingo dute.
Bidaurreta dorrean, 14:30ean.

OÑATI Usakora irteera
Kuboko erabiltzaileendako.
Kuboan, 16:00etan.

OÑATI Bingo jokoa eta merienda
Erretiratuendako. Meriendak, bi euro.
Lagun Lekun, 17:00etan.

OÑATI Umeen danborradako zozketak
Konpainietako kideak zehazteko. Umeak bakarrik joan ahal dira zozketara.
Santa Anan, 18:00etan.

BERGARA 'Naturari, irribarria' erakusketa
Guillermo Azkarateren eta Agustin Amasorrainen argazki bilduma

ikusgai egongo da, hilaren 28ra arte, martitzenetik domekara.
Aroztegin, 18:00etan.

OÑATI 'Albaniaren konkista' filma

Martizinema egitarauko pelikula. 1984an Alfonso Hungriak zuzendutako filma.
Antixena gaztetxean, 22:00etan.

EGUAZTENA 24

OÑATI Lasturrera eta Hondarribira irteera
Paintball-ean jokatuko dute Lasturren eta Hondarribian egingo dute lo Lehen Hezkuntzako bosgarren mailakoek. Aurrez eman behar zen izena.
Postetxeko geltokian, 10:30ean.

BERGARA Eguaztenetako azoka
Herriko baserritarren produktuak eta garaikoak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:00etan.

BERGARA 'Biribilak mendian' erakusketa
Gorteen Euskal Herriko nekazaritzan izan duten garrantzia ezagutzera ematea da erakusketaren helburua: zirriborroak, antzinako mugarriak... ezagutzeko. Irailaren 16ra arte.
Laboratoriumen, 18:00etan.

OÑATI Parvathy Baul
Indiako artistaren ikuskizuna. Folk musika, narrazioa eta mugimenduak dira Baulen emanaldiaren zutabeak.
Lazarraga lorategian, 19:00etan.

BERGARA Kubako Camagua taldea
Nazioarteko Folklore Jaialdiaren baitan ikuskizuna egingo du Fernando Medranok zuzentzen duen taldeak. Kubako musika, dantzak, jantziak, kolorea izango dira protagonista.
San Martin plazan, 19:00etan.

ARETXABALETA 'Chef nature' ikuskizuna
Markeliñe taldekoek kalera aterako dute beraien jatetxea. Naturaz eta imaginazioz betetako jatetxea da. Askotariko jakiak dituena.
Monterron parkean, 22:30ean.

ARRASATE 'Bert' folklore jaialdia
Izen bereko Armeniako taldearen emanaldia. Hango dantza oinarri hartuta, 40 urtetako sormen lanaren erakustaldia egingo du.
Monterron parkean, 22:30ean.

EGUENA 25

LEINTZ GATZAGA Bisita gidatuak
11:30ean euskaraz egingo dute, eta 13:00etan gazteleraz. Izena, aurrez: 943-71 47 92 edo *reservas@gatzmuseoa.com*.
Gatz Museoa.

OÑATI 'Ezustekoak' erakusketa
Orbelaun taldeko kideen lanak ikusteko aukera, urriaren 15era arte.
Turismo Bulegoan, 12:00etan.

OÑATI 'Oteiza eta Arantzazuko estatuaria' erakusketa
Orioko artistaren eta Arantzazuren arteko harremanaren bilakaera ezagutzeko aukera, apostoluak fatxadan ipini zireneko 50. urteurrenean.
Gandiaga Topagunean, 12:00etan.

OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua
Parrokia eta Sancti Spiritus unibertsitatea ezagutzeko aukera. Izena, aurrez: 943-78 34 53.
Turismo Bulegoan, 13:00etan eta 17:00etan.

ARRASATE Kalakan eta Alexandre Arkhintchee
Bien arteko elkarlanak arrakasta handia izan zuen 2017ko abenduan. Bi unibertso tradizioaletako instrumentu eta kantu nahasketa desberdinak, osotasun bakar batean sartzen direnak.
Monterron parkean, 22:30ean.

EGUBAKOITZA 26

OÑATI 'Día de la rebeldía nacional' eguna
Kubako ospakizun egunaren 66. urteurrena ospatuko dute, Acesmak antolatuta. Kubako kontsulatuaren zerbitzuak egongo dira.
Gaztetxean, 15:00etan.

ZINEMA

GASTEIZ

GORBEIA

Aladdin
Egunero, domeka izan ezik: 16:30. Domeka: 11:45, 16:30.

Anabelle vuelve a casa
Egunero: 17:30, 20:15, 22:30.

Ayla: la hija de la guerra
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

El bosque maldito
Egunero: 18:25, 20:25, 22:30.

Elcano y Magallanes (euskaraz)
Egunero, domeka izan ezik: 16:35. Domeka: 12:15, 16:35.

El rey leon
Egunero: 16:45, 18:30, 19:15, 20:50, 21:45. Egunero, domeka izan ezik: 17:30, 20:00, 22:30.

Domeka: 12:00, 17:30, 20:00, 22:30.

Los Japon
Egunero, domeka izan ezik: 16:30. Domeka: 11:45, 16:30.

Men in black
Egunero, domeka izan ezik: 16:30. Domeka: 12:00, 16:30.

Serenity
Egunero: 21:30.

Spider-man
Egunero, domeka izan ezik: 16:30, 18:25, 20:30, 22:30. Domeka: 11:45, 16:30, 18:25, 20:30, 22:30.

Vitoria, 3 de marzo
Egunero, domeka izan ezik: 18:20. Domeka: 12:00, 18:20.

Yesterday
Egunero, domeka izan ezik: 20:15. Domeka: 12:00, 20:15.

FLORIDA

Al agua gambas
Egubakoitzetik domekara: 12:00, 16:30, 18:30, 20:30 22:30. Astelehenetik eguenera: 12:00, 17:30, 20:30, 22:30.

Aladdin
Egunero: 17:30.

Elcano y Magallanes
Egubakoitza: 12:30. Zapatutik eguenera: 12:00. **El cuento de las comadreas**
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

El rey leon
Egubakoitza: 12:30, 17:30, 20:00, 22:30. Zapatutik eguenera: 12:00, 17:30, 20:00, 22:30.

La biblioteca de los libros rechazados
Egunero: 20:00.

Lo nunca visto
Egunero, eguena izan ezik: 20:30, 22:30. Eguena: 22:30.

Los Japon
Egubakoitza: 12:30, 16:30, 20:35. Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30, 20:35. Astelehenetik eguenera: 12:00, 20:30.

Spider-man
Egunero: 12:00, 17:30, 22:30.

Toy story 4
Egubakoitza: 12:30, 16:30, 18:30. Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30, 18:30. Astelehenetik eguenera: 12:00, 17:30.

Un amor imposible
Egunero, eguena izan ezik: 17:00, 19:45, 22:30. Eguena: 17:00, 19:45.

Vitoria, 3 de marzo
Egunero: 12:00, 20:00, 22:30.

Yersterday
Egubakoitzetik domekara: 12:00, 18:20, 22:30. Astelehenetik eguenera: 12:00, 17:30, 22:30.

KRITIKA

Wild Rose ★★☆☆☆
Zuz.: Tom Harper. **Herr.:** Britania Handia (2018). **Aktoreak:** Jessie Buckley, Julie Walters, Sophie Okonedo. **Iraupena:** 101 minutu.

Ametsak eta errealitatea

ANTONIO ZABALA

Rose Lynn bi seme-alaba dituen neska bat da. Filmean, ametsaren eta errealitatearen artean duen norgehiagoka azaltzen zaigu. Kartzelatik irten berria dela eta bi seme-alabaz arduratu behar duela da bere errealitatea. Bere ametsa, Eskoziatik Nashvillera joatea, country abeslari izateko. Duen ametsak ez dio uzten egunero errealitateari behar den bezala aurre egiten: haurrek ama baten beharra dute, eta, askotan, amamak ama-lanak egiten ditu, eta errealitate horrek bere ametsa betetzeko aukerak murrizten dizkio. Eta pelikulari antzeko zerbait gertatzen zaio. Zinema errealistaren itxura hartzen badu ere, azken finean, ipuin nahiko konbentzionala da. Gaintitze istorio bat da.

Rosek, gaztea denez, ez daki oso ondo bizitzari nola aurre egin, eta biziko duen ikastaldi prozesua ikusiko dugu. Protagonistak momentu latzak jasango dituen arren, filma nahiko gozoa da. Egoera onera doala ematen duenean, zailtasunen bat sortzen zaio. Bada, zuzendariak, film gordina egin baino, nahiago izan du pelikula arina egin. Dena den, badaude pelikulan aipagarriak diren osagaiak. Esate baterako, Jessie Buckleyren eta Julie Waltersenen interpretazio ederrak. Pelikulako country abestiak politak dira eta Jessie Buckleyk oso ondo abesten du, gainera. Hori horrela, gustura ikusten den pelikula da, baina gauza gehiegi esan barik.



AZKEN BERBA

AGURNE BARRUSO

Xabier Ieregi eta Bergara

2007. urtean ezagutu nuen Xabier Ieregi, Bergarako udaletxean. Plan Orokorra lantzeko fasean zegoen Udala, eta ANV eta Aralarrek osatutako gobernuak aldaketa sakona planteatu genuen: Zabalotegiko bide berria kendu egin genuen Plan Orokorretik. Testuinguru horretan ezagutu nuen udaletxeko arkitekto-aholkularia den Xabier.

Lau urte intentsu bizi izan genituen hirigintzan. Xabierrekin –eta beste batzuk– lan asko eta handia egin genuen eta orduan konturatu nintzen ni Bergara, urbanistikoki, den modukoa bada, asko zor diola Xabierri. Agintean dagoen gobernuak dagoela, herriko nortasuna mantentzearen aldeko apustu garbia dauka Xabierrek eta horri esker daukagu daukagun herria, neurri handi batean.

Zinegotzi-ardurak utzita, hirigintzako hainbat kide agurtzera hurbildu nintzen eta orduan jakin nuen Xabierrek berak ere Udala utziko duela hilabete honetan. Imanol Bolinaga alkate zela hasi omen zen. 9 alkate eta beste horrenbeste legegintzaldi egin ditu gurean.

Adiorik ez, Xabier. Seguru nago udaletxetik dei eta kontsulta asko jasoko dituzula oraindik. Eskerrik asko egindako lanagatik, ongi bizi

BUKATZEKO

'Antzuolako Guda', auzoen arteko konkista jokoa

Antzuolako auzoen artean pikeak piztu eta herritarrentzat denbora-pasa gisa jarri du martxan Ion Lizarazuk guda. Atzo hasi eta domekara bitartean, herriko auzoen arteko konkista eta independentzia izango da jokoa sare sozialetan

Aitor Agiriano ANTZUOLA

Helburu zehatzik gabe, "polita litzateke" batetik jaiotako ideia jarri du martxan Ion Lizarazu antzuolarrak. Aurrez, antzerakoak diren *Mundu Gerra*, *Euskal Guda Zibila* eta *Euskal Herria Guda* ezagutzen zituen, eta horien inguruan lagunekin hizketan ari zen batean sortu zen *Antzuolako Guda* egitearen ideia: "Lagun batek airera bota zuen: 'Polita litzateke herriko jaietan auzoen arteko guda bat'. Ea, ba, polita izaten den!", dio Lizarazuk.

Aipaturikoen moduan, sare sozialetan, Facebook, Twitter eta Instagram kontuetan zabalduak ekimena da honako hau, nahiz eta guda honen programazioa ez den gainerakoekin parekoa: "*Euskal Guda Zibila*", adibidez, ez da herrien independentziarik planteatu eta gurean, aldiz, bai. Auzo bat konkistatua izan ostean independentizatu egin daiteke, eta guda irabazteko aukerak izaten jarraitu. Atsegetan afera ere hor dago; ikusitakoetan ez dago erabiltzaileen aldetik jokoa eboluzioan interakzioarako tarterik; gurean, gutxi bada ere, bai".



Ion Lizarazu, sortu duen *Antzuolako Guda* profila erakusten tabletan. ION LIZARAZU

Hain zuzen, hasieran, erabiltzaileak ez zuen jokoa baldintzarik sartzeko aukerarik. Baina horrek interes eta zabalkunde falta ekarri zezakeela jabetu eta gero, herritar bakoitzak bere auzoaren alde aletxo bat jartzeko aukera ere izan du. Hala, orotariko jendea animatu da sare sozialetan jarraitu eta nahi izan duen auzoaren

alde *atsegin dut* ematera. Horieta batzuk, ideia zer den pixka bat ulertuta eta galdezka, eta beste batzuk, zer den jakin gabe beraien auzoa defendatzera.

Bestetik, baserri auzoetako jendea kexu ere izan du Lizarazuk, beraien auzoa aukeren artean agertu ez delako, jokoaren garapenerako bateragarria ez dela erabakita, kanpoan utzi behar izan ditu eta Galartza, Uzarraga, Lizarraga, Irimo Goena, Basalde eta Irimo Barrena auzoak.

Dena den, orain, jada, erabiltzaileak ez dauka zereginik: "Zorizko programa bat da hau, eta programa exekutatzeari ez dago atzera bueltarik. Hori bai, sareetako atsegiteek izango dute eragina konkista gauzatzeko orduan".

Hasi da guda

Atzo, egunena, eguerdian, hasi zen benetako guda. Hasieran, bi orduan behin ari da izaten konkista bat, eta, jokoak aurrera egin ahala, maiztasuna ordubetera handituko da. Goizaldean deskantsua egingo dute eta eguerditan, berriro ere hasi. Herriko jaietako domekan bukatuko da guda eta, hain zuzen ere, irabazlea zein izan den jakingo da orduan: azkeneko hamar konkistak biltzen dituen bideo bat argitaratuko du sortzaileak, eta baita amaiera zein izan den herritarrei erakutsi ere.

Denbora-pasa gisa sortutako ideia puntual bat izan da hau, eta ez du jarraipenik edukiko: "Ondo funtzionatzen badu, poztuko naiz, eta bestela, ere bai".



Guda iragartzen duen irudia. ION LIZARAZU

ZURE UKIPEN-LENTEAK EROSITA,
ERAMAN EZAZU

Wildgo

BETAURREKOA OPARI

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIOPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com